

Gorka Moreno Márquez

Ongizate estatua bidegurutzean:

Gizarte eskubideak eta lan
merkatuaren arteko harremana
ezbaian



Deusto

Pedro Arrupe Giza
Eskubideen Institutua

Giza eskubideak

Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak

Giza Eskubideeri Buruzko Deustu Koadernoak

61. zenb.

Ongizate estatua bidegurutzean:
Gizarte eskubideak eta lan merkatuaren arteko
harremana ezbaian

Gorka Moreno Márquez

Bilbao
Deustuko Unibertsitatea
2010

ERREDAKZIO BATZORDEA

Felipe Gómez Isa, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Marta Zubia, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Susana Ardanaz, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Trinidad L. Vicente, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Xabier Etxeberria, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

ARGITATZE BATZORDEA

Anja Mihr, Utrechteko Unibertsitateko Human Rights Centereko ikertzailea, Herbehereak.
Antoni Blanc Altemir, Lleidako Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle titularra.
Bartolomé Clavero, Sevillako Unibertsitateko Zuzenbidearen Historiako katedraduna eta Indigenen Gaietarako Nazio Batuen Foroko kidea.
Carlos Villán Durán, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea sustatzeko espainiar elkarteak.
Carmen Márquez, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle titularra, Sevillako Unibertsitatea.
Cristina Churrua, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Eduardo J. Ruiz Vieytes, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Fernando Fantova, gizarte zerbitzuekin lotutako gaietako aholkularia, Bilbao.
Francisco López Bárcenas, Giza Eskubideen Mexikar Akademia, Mexiko.
Gaby Oré Aguilar, giza eskubideetako eta genero gaietako nazioarteko aholkularia eta Human Rights Aheadeko kidea, Madril.
Gloria Ramírez, Mexikoko Unibertsitate Autonomo Nazionaleko Politika Zientziako katedraduna, Mexiko.
Gorka Urrutia, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Jaume Saura, Kataluniako Giza Eskubideen Institutuko presidentea, Bartzelona.
Joana Abrisketa, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Jordi Bonet, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Bartzelonako Unibertsitatea.
José Aylwin, Giza Eskubideen behatokiko zuzendaria, Temuco, Txile.
José Luis Gómez del Prado, Mertzzenarioak erabiltzeari buruzko Nazio Batuetako lan-taldeko kidea.
José Manuel Pureza, Ikasketa Sozialen Zentroa, Coimbrako Unibertsitatea, Portugal.
Judith Salgado, Giza Eskubideetako Andeetako Programa, Simón Bolívar Andeetako Unibertsitatea, Quito, Ekuador.
Koen de Feyter, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Anbereseko Unibertsitatea, Belgika.
Mónica Goded, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Manuela Mesa, Bakerako Hezkuntza eta Ikerketa Zentroko (CEIPAZ) zuzendaria, Madril.
Noé Cornago, Nazioarteko Harremanetako irakasle titularra, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
Pablo de Greiff, International Center on Transnational Justice, New York.
Victor Toledo Llancaqueo, Politika Publikoetako Zentroa, ARCIS Unibertsitatea, Santiago, Txile.
Vidal Martín, Nazioarteko Harremanetarako eta Kanpoko Elkarriketarako Fundazioko (FRIDE) ikertzailea, Madril.

Lau honen berregintza, banaketa, komunikazio publiko edo moldaketaren bat egiteko, ezinbestekoa da egileen baimena izatea, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Lan honen atalen bat fotokopiatu edo eskaneatu behar izanez gero, jo ezazu CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

© Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak
1 posta-kutxa - 48080 Bilbao
Posta elektronikoa: publicaciones@deusto.es
ISBN: 978-84-9830-275-2

Uxuerentzat

Aurkibidea

SARRERA	11
1. KAPITULUA: ONGIZATE ESTATUEN KRISIA ETA HONEN AURRE- KO ERANTZUNAK	15
2. KAPITULUA: WORKFARE EREDUA	23
2.1. Zer da workfare-a?	23
2.2. Workfare eredu estatubatuarra	26
2.3. Erresuma Batuko workfare: New Deal	33
2.4. Asset-based welfare-a	38
2.5. Workfare al da jarraitu behar den bidea?	41
2.5.1. Teoria mailan workfare ereduari egindako kritikak	41
2.5.2. Neurri ezberdinen ebaluazioa	44
3. KAPITULUA: AKTIBAZIOA ETA ENPLEGURAKO POLITIKA AKTI- BOAK	53
3.1. Zer da aktibazioa?	53
3.2. EPA mota ezberdinak eta hauen ezaugarriak	56
3.3. EPA-en sorrera eta garapena	59
3.3.1. EPA-en sorrera: Lurralde nordikoak	59
3.3.2. EPA-en garapena Europar Batasunean	62
3.4. Aktibazioaren oraina eta etorkizuna: Malgusegurtasun eredua	67
3.4.1. Malgusegurtasunaren inguruko hainbat ekarpen kritiko	70
3.4.2. Ereduaren esperientzia praktikoak: Danimarka eta Holanda	72
3.4.3. Malgusegurtasun ereduaren balorazioa: Daniar eredua esportagarria al da?	74
3.5. EPA-en emaitzak eta kritika nagusiak	77

4. KAPITULUA: GIZARATERATZEKO GUTXIENENKO ERRENTAK . . .	83
4.1. Gutxieneko errenten definizio eta ezaugarriak	83
4.2. Gutxieneko errenten sorrera eta garapena: Frantziako RMI	87
4.3. Estatu mailako gutxieneko errentak: 17 eredu	90
4.3.1. Gutxieneko errenten sorrera	90
4.3.2. Ezaugarri nagusiak: aniztasuna, zatiketa eta desberdintasunak	92
4.4. Euskal eredua: Europari begira	94
4.5. GE-en programen oraina eta etorkizuna Europan: Aktibazioaren bidea	96
4.6. GE-en balorazioa eta kritikak	100
4.6.1. Baldintzen eta asistentzialismoaren arazoak	101
4.6.2. GE-en programen muga propioak	103
4.6.3. Lortzen al da gizarteratzea GE-en bidez?	105
ONDORIOAK	109
BIBLIOGRAFIA	113

Sarrera

Azken hamarkadetan behin eta berriz hitz egiten da Ongizate Estatuaren krisiari buruz, gehienbat *Petroleoaren krisia* eman zenetik –1973–. Garai honetatik gaur egun arte nolabaiteko Ongizate Estatuaren krisi kroniko bati buruz hitz egin da lurralde garatuetan, orain bezalako krisi ekonomiko garaietan baieztapen honek indar gehiago hartzen duelarik. Kasu gehienetan gizarte arloan egiten den gehiegizko gastua eta honen jasanezintasuna azpimarratzen dira. 70. hamarkadetako eztabaida enpleguaren inguruan kokatu zen. Lehenengo aldiz, 2. Mundu Gerra eta gero desenpleguaren hazkunde nabaria eman zen lurralde garatu gehienetan, garai hori arte emandako *enplegu osoa* zalantzan jarri zelarik eta honen bidez Ongizate Estatu nagusietan euren balantza fiskalaren desoreka gauzatu, kotizazio gutxiago ematen zirelako eta aldi berean gizarte-prestazio gehiago, gastu gehiago eta diru-sarrera gutxiago alegia.

Gaur egun, desenpleguaren inguruko eztabaidaz gain, eta azken hilabete hauetan oso garrantzitsua izanik, Ongizate Estatuak tentsio berrien aurrean daude eta honek ere erronka berriak suposatzen ditu jada aipatutako jasangarritasunaren inguruan. Hor ditugu, besteak beste, pentsioen, dependentsiaren, osasunaren edota beste gizarte-prestazioen inguruan agertzen diren eztabaida eta iritzi ezberdinak eta guzti horiei Ongizate Estatuak erantzun egokia ematearen inguruko gogoeta.

Ikusten denez, giza eta gizarte beharrak ugaltu egin dira azken hamarkadetan. Pentsatzekoa denez errealitate berri hauek baliabide gehiago egotea eskatzen dute. Historikoki, Ongizate Estatuak bi bide nagusi izan ditu baliabide gehiago eskuratzeko. Alde batetik, hazkunde ekonomikoa nagusi denean, kotizazio eta zerga gehiago jasotzen dira eta honen bidez baliabide gehiago izaten ditu Estatuak. Bestetik, krisi egoeretan baliabideen hazkundera emateko bide bakarra zergak igotzea

izaten da. Nabaria da iritzi publikoaren aurrean zergen igoerak duen eragin ezkorra. Hori dela eta, iritzi publikoaren nolabaiteko *zergen diskurtsoaren kortse* bati buruz hitz egin dezakegu ere Ongizate Estatuari dagokionez. Izan ere, behar eta eskaera gehiagori erantzun behar dio gaur egun Ongizate Estatuak baina era berean baliabideen mugaketa zorrotz baten aurrean topatzen da sarritan. Hauxe da hain zuzen ere momentu hauetan ematen ari den testuinguru sozial eta ekonomiko lurralde garatu gehienetan. Are gehiago krisi ekonomikoa nagusi den testuinguru batean.

Baina benetan, Ongizate Estatuak krisian dago? Zein da bere osasuna momentu hauetan? Galdera hauei erantzutea izango da liburu honen helburuetako bat. Horrela bada, gaur egun Ongizate Estatu ezberdinetan ematen ari diren erreformak eta berrikuntzak landuko dira, hauen ezaugarriak aztertuz eta etorkizunera begira eman daitezkeen urratsak aurreikusiz. Zehazki, hiru Ongizate Estatu eredu nagusiak aztertuko dira, bakoitzean erreformak hartu dituen ezaugarriak landu egingo direlarik. Hauen arteko elementu komuna aktibazioa izanik, edo beste hitzetan esanda, langabezia dauden pertsonen lan-merkaturatzea hobetzeko eta ahalbidetzeko ideian zentratzen diren neurri ezberdinak. Dena den, liburuan ikusiko den bezala, aktibazioaren norabidea ezberdina da ereduaren arabera eta noski, baita ere neurri hauen eragina.

Hortaz, eta lan honen egitura zentratuz, liburu honek lau kapitulu nagusi izango ditu. Lehenengoan Ongizate Estatuaren tipologiak landu egiten dira, egile ezberdinen ekarpenak kontuan harturik eta historian zehar azpimarratu egin diren hiru eredu ezberdinei arreta berezia jarritz. Lehenengo lurralde anglosaxoietan ematen dena, bigarrena lurralde eskandinabiarretan ematen dena eta hirugarrenik Europa kontinentaleko lurralde gehienetan nagusitzen den ongizate-eredua. Hauetako bakoitzean erantzun ezberdina ematen ari zaio arlo sozialean kokatzen diren erronka ezberdin hauei. Bide ezberdin hauek, hain zuzen ere dira hurrengo hiru kapituluetan lantzen direnak.

Bigarren kapituluak, Amerikako Estatu Batuetako –AEB– eta Erresuma Batuko Ongizate Estatuaren erreforma lantzen da, *workfare* izenarekin ezagutzen dena, bertan zigor eta koertzioaren bidez gizarte-prestazioak jasotzen dituzten pertsonen ahal den eta lan-merkaturatze azkarrena bilatzen delarik. Hirugarren kapituluak, *Enplegurako Politika Aktiboak* –EPA– lantzen dira, lurralde eskandinabiarretan jatorria duten arren, gero eta garrantzi handiagoa duten neurriak Europar Batasuneko lurraldean artean. Hauen bidez langabezirako politika pasiboak gainditu nahi dira –soilik prestazioa- eta prestazioaz gain lan-merkaturatzea eta formakuntza lantzen dituzten neurriak bultzatzen dira. Ongizate Estatuaren ereduarekin bukatzeko, laugarren kapituluak, behar gehien eta

gizarte-zaurgarritasun zein bazterkerian kokatzen diren pertsonentzat zuzentzen diren *Gutxieneko Errentak* –GE– aztertzen dira. Gaur egungo GE-n jatorria Frantzia kokatzen da eta hauen barruan gero eta nabariagoa da aktibazioa eta EPA-en eragina.

Hiru eredu hauek aztertzeko antzeko eskema erabili da: lehenik eta behin eredu hauen definizioa eta ezaugarriak landu dira; bigarrenik etorkizunera begira zeintzuk diren antzeman daitezkeen urratsak; eta azkenik, eredu bakoitzaren emaitzen azterketa eta egiten zaizkien kritika ezberdinak aipatu dira.

Azkenik, ondorioetan aktibazioaren inguruko hausnarketa egiten da. Izan ere hiru ereduetan elementu komuna aktibazioa eta honen aldeko apostua da. Emaitzak kontuan hartzen badira aktibazioaren arrakasta mugatua dela esan daiteke, integrazioa eta gizarte kohesioa bermatzeko erakusten dituen potentzialitateak nahiko ahulak direlarik.

Erabilitako metodologiari dagokionez, gaiarekin loturik dauden materialen errebisio bibliografiko sakona egin da. Maila akademikoan zein dibulgatzailean kokatzen diren hainbat liburu eta aldizkari erabili direlarik. Era berean, erakunde ofizial ezberdinek eskaintzen dituzten datu estatistikoak aztertu eta kontuan hartu dira, testuan zehar agertzen diren baieztapenak eta ideiak osatzeko eta hauen inguruko azterketa sakonagoa bultzatu ahal izateko.

Sarrera labur honekin bukatzeko azken pasarte honetan eskerrak eman nahiko nizkioke lan hau ahalbidetu duten pertsona eta erakunde guztiei, bereziki Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutoari, nigan jarritako konfidantzagatik, eskainitako erraztasunengatik, eta noski, liburua argitaratu eta zabaltzeagatik. Era berean, eskerrak eman nahiko nizkioke neure inguruko senideei. Bereziki Enarari, berarentzat izan beharko zen denbora kentzeagatik eta izan duen pazientziagatik. Azkenik, liburu hau Uxeri dedikatuta dago, liburua eta bera aldiberean jaio direlako eta ogia beso azpian ekarri baino liburu hau ekarri duelako.

1. Kapituluua: Ongizate Estatuaren krisia eta honen aurreko erantzunak

Ongizate Estatuaren azterketari ekiten bazaio ezinbestekoa da gizarte-eskubide eta enpleguaren arteko harremanak azpimarratzea. Zentzu honetan, gizarte modernoaren integrazioarako ardatz nagusia azken hamarkada hauetan enplegua eta honek sorturiko gizarte-eskubideak izan dira. Azken urte hauetan enpleguak jasan dituen aldaketak direla eta, kohesioaren mugak gero eta zehaztugabeak dira eta honen harira gizarte-bazterkeria zein zaurgarritasunaren fenomenoaren gorakada nabaria da eman Ongizate Estatu nagusi den lurralde gehienetan (Bernuz eta Susín, 2003). Era honetan, gaur egun bidegurutze garrantzitsu batean aurkitzen gara eta orain arte enplegua eta Ongizate Estatuaren artean eman den harremanean gero eta ahulezi eta eraldaketa gehiago somatzen dira. Alde batetik, enpleguak pertsonen bizitza gehiago baldintzatu egiten du, gehienbat bitarteko bezala ulerturik, baina era berean gero eta gutxiago eskaintzen du integrazioan, hiritartasuna edota elkartasuna bezalako kontzeptuen eraikuntza etikoan (Santos, 1999).

Working poors edo langile pobreen adibidea deigarria da eta ondo azaltzen ditu aurreko lerroetan aipaturikoa. Horrela, gero eta gehiago dira enplegu bat izateaz gain pobrezia-muga gainditzen ez dutenak eta gizarte-zaurgarritasuna pairatzen dituztenak. Orain dela berrogei urteko Ongizate Estatuetan hau gertatzea pentsaezina zen eta enplegu bat izateak integrazioa eta hiritartasun eskubideak bermatzea suposatzen zuen. Baina ez bakarrik langile pobreak, gero eta gehiago dira integrazioaren eremutik at gelditzen diren kolektiboak eta esparru honen sinonimoa izan daiteken *hiritartasun osoaz* gozatzen ez duten pertsonak. Robert Castel soziologo frantsesak ondo baino hobeto zehazten du egoera hau: "Orain dela urte batzutatik aurrera egoera berri baten aurrean aurkitzen gara. Gizarte elkartasuna garatzeko gero eta zailtasun handiagoak daude eta gizarte-babesa bermatzeko lana-

ren bidezko integrazioak gero eta indar gutxiago dauka. Gizarte-babeseko sistema tradizionaletan zeozer hautsi edo gutxienez eraldatu egin dela da nire hipotesia" (Castel, 1992: 26). Dahrendorf-ek ere honen berri ematen digu gaur egungo hiritartasunak azaltzen dituen gabeziei buruz hitz egiten duenean: "Azpiklasean kokatzen direnak gaur egun integratuek behar ez dituztenak dira: ez hiritarrak dira, jada ez hiritarrak, osoki ez hiritarrak edota oraindik ez hiritarrak" (Dahrendorf, 1994: 13). Beste hitz batzuk erabilia, integrazioari dagokionez, gero eta *Taifa Erresuma* gehiago topatu ditzazkegu gure gizarteetan (Moreno, 2008) eta hauetako askotan gizarte-zaurgarritasuna zeinu garrantzitsuena izaten da.

Hiritartasunaren krisiarekin batera honi lotuta dauden gizarte-politikak edota Ongizate Estatu bezalako kontzeptuak zalantzan jarri dira ere azken hamarkadetan. Testuinguru honetan ez da harritzekoa sarritan Ongizate Estatuaren krisia edota erreformari buruzko aipamenak topatzea eta hori izango da hain zuzen ere liburu honen helburu nagusia: Ongizate Estatuaren inguruan planteatzen eta gauzatzen ari diren erantzun ezberdinak aztertzea eta agertzen diren arazoaren aurrean zeintzuk izaten ari diren martxan jarritako estrategia ezberdinak.

Zentzu honetan, gizarte-bazterkeriari dagokionez bi ikuspegi nagusi aipatu ditzazkegu. Horrela, Estatu Batuetan gizarte-bazterkeria azaltzeko arrazoirik nagusia norbanakoaren ardura dela azpimarratzen den bitartean, Europa mailan gizarte-bazterkeriaren egiturazko izaera azpimarratzen da nagusiki (Dahl, 2003). Pentsatzekoa denez, ikuspegi normatibo ezberdinak baldin badaude, honen aurrean ematen diren erantzun eta eskuhartze publikoak ere ezberdinak dira. Eredu anglosaxoiarentzat gizarte-politikek menpekotasuna eta *pobreziaren kultura* sorrarazten dute diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsonen artean. European, aldiz, norbanakoaren ezaugarriak kontuan hartzen diren arren garrantzia ematen zaie ere egiturazko elementuei pobrezia, langabezia edota gizarte-bazterkeria aztertzerako momentuan. Zehazki, AEBetan zein Erresuma Batuan *workfare* edota *welfare to work* bezalako estrategia aurrera eramaten ari den bitartean, Europa kontinentalean Enplegurako Politika Aktiboak –*Active Labour Market Policies*– eta kohesioa bermatzen dituzten neurri ezberdinak bultzatzen ari dira. Lehenengo gerturapen honi Ongizate Estatuaren sailkapen ezberdinak gehitzen badiugu, tipologia konplexu eta aberatsago bat lortu dezakegu. Baina hau azaldu baino lehen, oso labur bada ere Ongizate Estatuaren sailkapen hauek aipatuko dira, horretarako Titmuss (1981), Esping-Andersen (1993) edota Ferrararenak (1998) aipatuko direlarik.

Titmuss-en arabera gizarte-politiken barruan hiru eredu ezberdin bereiztu daitezke (Titmuss, 1981):

1. Ongizaterako gizarte-politiken eredu erresiduala: Eredu honetan pertsonen beharrianak asetzeko paper nagusia merkatu pribatuak zein familiak betetzen dute. Hortaz, gizarte-politiken funtzioa bazterrekoa edota hondarrekoa izan behar da eta gehienetan epe jakin bati lotuta. Era berean, laguntzeko behar moralik ez litzateke egongo gizarte barruan eta hiritarren artean, gizarte-politikek ahal den eta eragin txikiena izan beharko lukete norbanakoaren erabakietan. Ikusi daitekeen bezala, norbanakoaren askatasuna hobesten da berdintasuna eta gizarte kohesioaren aurrean.
2. Norbanakoaren lorpenean eta lanean lortutako emaitzean oinarritzen den gizarte-politika eredu: Izenburuan aipatzen den bezala, kasu honetan lan merkatuak garrantzi handia du eta bertan lorturiko emaitzek baldintzatu egingo dute hein handi batean gizarte-politiken kalitatea.
3. Ongizaterako gizarte-politiken eredu instituzional-berbanatzailea: Gizarte ongizatea gizartearen oinarritzat jotzen da eredu hauetan. Horregatik, hiritarren integrazioa eta beharrianak bermatzeko bitarteko berbanatzaileak bultzatu egiten dira.

Esping-andersen-ek egiten duen sailkapenean, aldiz, merkantilizazio eza edo desmerkantilizazioa da hitz gakoa, gizarte eskubideen bidez pertsonak merkatu ekonomikoaren aurrean duten autonomia maila alegia. Elementu honi jarraituz egile honek ere hiru eredu ezberdin aurrekusten ditu (Esping-Andersen, 1993):

1. Eredu anglosaxoiarra: Gizarte eskubideen ikuspegi asistentziala eta erresiduala gailentzen da. Zentzu honetan, gizarte-prestazio bat jasotzea pertsonaren behararen arabera egongo da eta behar hau era objektiboan frogatu beharko da. Ongizate Estatu eredu liberala izango litzateke.
2. Bigarren eredu Europa kontinentalean ematen dena da, bertan gizarte segurantza delarik gizarte eskubideen oinarria. Enpleguaren bidez egindako kotizazioen arabera jasotzen dira gizarte-prestazioak. Enpleguan oinarritutako Ongizate Estatu korporatiboaren eredu izango litzateke honako hau.
3. Lurralde eskandinaviar gehienetan ematen den eredu izango litzateke Esping-Andersen-en hirugarrena. Kasu honetan ezaugarri nagusia gizarte-prestazioak zergen bidez eta izaera unibertsala izaten dutela da. Eredu sozialdemokrata izango litzateke eta norbanakoaren desmerkantilizazioa irizpidetzat harturik emaitza hoberenak lortu dituen eredu da egile honentzat.

Azkenik, eta sailkapen hauekin bukatuz, Ferrerak egiten duena aipatuko dugu. Kasu honetan lau dira azpimarratzen diren ereduak (Ferrera, 1998: 84-94):

1. Eredu eskandinabiarrak: Gizarte babesaren izaera unibertsaleko hiritartasun eskubidea da. Jasotzen diren prestazioak zergetan oinarritzen dira eta babes egokia eskaintzen duten hiritarrentzako.
2. Eredu anglosaxoiarra: Ematen den babesaren eskandinabiarrak eredu baxuagoa da eta unibertsaltasuna kasu gehienetan osasunera mugatzen da. Laguntzak jasotzeko bete behar diren baldintza ezberdinak ere eredu honen zeinuetako bat izaten dira.
3. Hirugarren ereduak Alemania, Frantzia, Austria, Suitza eta Benelux osatzen duten lurraldeek osatuko lukete. Lan egoera eta gizarte babesaren arteko lotura oso handia izaten da kasu hauetan. Horrela, prestazio nagusiak gizarte segurantzaren langileek egindako ekarpenen bidez lortzen dira. Dena den, Holanda edota Suitza bezalako lurraldeetan ere izaera unibertsala tartekatzen da hainbat neurrietan.
4. Laugarren ereduak, eta Ferreraren ekarpenean elementurik deigarriena, Europaren hegoaldean ematen den Ongizate Estatua da –Italia, Grezia, Portugal edota Espainia–, nahiz eta elementu ezberdinak azaldu euren artean. Historikoki gizarte segurantzaren oinarritutako eredu kontributiboak izan diren arren, hainbat ezberdintasun erakusten dute Europako eredu kontinentalarekin. Alde batetik, eredu honetan ematen den zatiketa maila; eta bestetik, lurralde bakoitzean ematen diren ezaugarri bereziak, askotan iruzur, klientelismo edota beste elementuetan bukatzen dutenak. Honen harira, ez da kasualitatea, Ferrerak eredu hauei buruz hitz egiten duenean *sui generis* esamoldea erabiltzea (Ferrera, 1998: 87).

Sailkapen ezberdin hauetan, bakoitzean elementu bati garrantzia ematen zaion arren, nabaria da ezaugarri komunak topatu daitezkeela guztietan. Horrela izanik, eta Ferreraren laugarren ereduak alde batera utzita, argi dago gainontzeko ereduak sailkapen batean laburtu daitezkeela:

1. Lehenengo tipologia batean lurralde eskandinabiarrak kokatuko liriteke. Bertan zergen bidezko gizarte-prestazioen babes handia –unibertsaltasuna– azpimarratu daiteke.
2. Bigarren ereduak anglosaxoiarra izango zen. Izaera liberal eta erresiduala duen ereduak da, asistentzialismoan oinarritzen da eta

beraz babesa bakarrik behar gehien duten pertsonetan zentratzen da.

3. Europa erdialdeko eredia: Enpleguaren bidez gauzatzen diren kotizazioetan oinarritutako gizarte babesa da nagusi –desenplegurako diru-laguntza, pentsioak, etabar–.

Gaur egungo testuingurua kontuan harturik eta lehen aipatu ditugun erronkak oinarritzat hartuta –hiritartasun kontzeptuaren krisia eta gizarte-zaurgarritasunaren hazkundea–, aipatutako hiru eredueta oinarrituz Ongizate Estatuaren krisiaren aurrean hiru erantzun ezberdin ere ematen ari direla azpimarratu dezakegu. Horrela, erantzun hauen jatorrian kokatzen den ikuspuntu teoriko edota testuinguru sozial, ekonomiko edota politikoa kontuan harturik, Ongizate Estatuak behar dituen eraldaketei erantzun ezberdinak ari dira garatzen gaur egun.

Oro har, hiruretan lanaren bidezko gizarteratzea bultzatzen ari den arren, aurrera eramaten diren estrategia eta eskuhartzeak ezberdinak izaten dira eta zenbaitetan euren artean kontraesankorrak ere. Horrela bada, nahiz eta askotan arazoaren deskribapen antzekoa egin, honen aurrean egiten den gerturapena ezberdina da hainbat aspektuetan: programa ezberdinetan parte hartzen duten pertsonen profilak, pobrezia-aren inguruko gerturapen teorikoa, elkartasuna eta hiritartasunaren arteko harremana edota aurrera eraman behar diren programen ezaugarrietan esaterako.

Esan bezala, gaur egun Ongizate Estatuaren krisiaren aurrean eta honen inguruko tipologia klasikoei jarraituz, bereiztu daitezkeen erantzunak hiru dira. Zehazki, Daguerre eta Taylor-Gooby-k (2004) egindako sailkapena izango da liburu honetan jarraituko den irizpide nagusia. Bi egile hauen ustez *workfare* eredu anglosaxoiarra, *enplegurako politika aktibo*en eredu nordikoa eta gutxieneko errentetan oinarritutako *gizarteratzeko* eredu frantziarra¹ bereiztu daitezke. Ezberdina baino nahiko antzekoa den gerturapena jarraituz, Chantal Euzébyk eredu frantziarra *workfare* anglosaxoiarra eta gizarteratze eredu eskandinabiarraren artean kokatzen du (Euzéby, 2004). Ondorengo lerroetan, labur bada ere, erantzun bakoitzaren ezaugarri nagusiak aipatuko dira:

1. *Workfare* edota *welfare to work* eredia: Gizarte-politikan norbanakoaren ardura azpimarratzen duen eredia da, honen aurrean besteetan ardura kolektiboari ematen zaiolarik garrantzia. 90.

¹ Ferreraren tipologiaren laugarren eredia, mediterranearra, baldintza batzuekin bederen, gutxieneko errentetan oinarritzen den gizarteratze eredian kokatuko litzateke.

hamarkada erdialdetik aurrera AEBetan, Erresuma Batuan, Australiar edota Kanadan aurrera eraman den eredia da. Ezaugarri nagusia, gizarte-prestazioak baldintzaturikoak direla eta askotan enplegu bat ez bada lortzen zigorrak ezartzen direla da. Hortaz, workfare programetan prestazioak jasotzen dituzten pertsonen ahal den eta azkarren enplegu bat lortzeko *behartzen* zaie, neurri ezberdinen bidez: diru-laguntzak epe jakin batetan bakarrik kobratu ahal izatea, diru-laguntzen kopuruaren murrizketa, edozein enplegua hartzera behartuta egon, etab.

2. Enplegurako Politika Aktiboak: Eredu honetan gizartearen integrazioa eta hiritartasuna bermatu ahal izateko *enplegu osoa* da ardatza. Ideia honen jatorrian lurralde eskandinabiaren Ongizate Estatuaren ideia nagusia den enplegu osoa dago. Hau lortzeko, enplegurako politika aktiboak dira bitartekorik garrantzitsuenak eta azken hauek formakuntza edota hezkuntzari loturiko jarduerak eta programen bidez gauzatzen dira, hauen bidez *enplegarritasun* –empleabilidad– hobeagoa lortzen delarik eredu honen defendatzaileentzat. 90. hamarkadaren erdialdetik aurrera ikuspegi honek eragin handia izaten ari du Europar Batasunak bulzatutako estrategia ezberdinetan.
3. Gizarteratzeko eredu frantziarra: Eredu honentzat integrazioaren eragiten duten faktore garrantzitsuenak egitura mailan kokatzen dira eta beraz gizarte-bazterkeria ez da norbanakoaren arazo soilak, workfare ereduaren bezala, baizik eta gizarte guztiaren ardurak. Ideia honetan oinarriturik gizarte-politiken ardatza elkartasun kolektiboan sostenganatu behar da eta ez bakoitzaren ardurak edo ahalmenenak. Eredu honen adibiderik deigarriena gutxienezko errenten programak dira, Europako lurralde gehienetan garatu egin den neurria eta gaur egungo aintzindaria jada desagertu egin den *Revenu Minimum d'Insertion* frantsesa izanik.

Azaldutakoan ikusi daitekeen moduan, azkeneko bi ereduak gizarte-bazterkeriari buruz egiten den gerturapen europarrarekin bat egiten duten bitartean, lehenengoak AEBetan nagusi den dependentzia eta pobreziaren kulturara atxekituta egongo zen. Era honetan, eta printzipio batean behintzat, Europa kontinentalean ematen ari diren bi ereduak euren arten workfare ereduarekin baino antzekotasun gehiago azaltzen dituzte (Barbier, 2000). Era berean, zenbait egile ere hiru ereduak hitz egitea baino nahiago dute bi erduei buruz aritzea: workfare eredia eta gizarteratzearena (Morel, 2002). Ildo honetan kokatzen da Barbier, Enplegurako Politika Aktibo liberalak eta unibertsalisten arteko bereizketa egiten duenean (Barbier, 2001); edota Dean, estatubatuetar-

ko *work first* programak eta *giza-kapitalean* oinarritutako programa eskandinabiarrak bereizten dituenean (Dean, 2003).

1. Taula. Ongizate Estatuaren tipologiak eta gaur egun ematen ari diren erantzunak

	TITMUSS	ESPING-ANDERSEN	FERRERA	GAUR EGUNGO ERANTZUNA
1. EREDUA	Ongizaterako gizarte-politiken eredu erresiduala	Ongizate-eredu liberala	Eredu anglosaxoiarra	Workfare
2. EREDUA	Ongizaterako gizarte-politiken eredu instituzional-berbanatzailea	Ongizate-eredu sozialdemokrata	Eredu eskandinabiarra	Enplegurako politika aktiboak
3. EREDUA	Norbanakoaren lorpenean eta lanean lortutako emaitzean oinarritzen den gizarte-politika eredu	Ongizate-eredu korporatibista	Europa kontinentala eta mediterraneoko eredu	Gizarteratze eredu/ gutxieneko errentak

Iturria: Egileak eginda.

Dena den, eta liburu honetan zehar ikusiko den moduan, eredu edota erantzun hauei buruz hitz egiten denean tipo idealei buruz ari gara eta politika ezberdinak sailkatzeko eta sistematizatzeko erraztasunak eskaintzen dizkigutelako erabiltzen ditugu hauek. Praktikan, sarritan ereduaren artean ezberdintasunak agertzen diren bezala hainbat antzekotasun ere azalduko dira, askotan nolabaiteko nahasketa ematen delarik hiru erantzun posibleen artean. Horrela, zenbait programa oso antzekoak dira, beste eruedetan oinarritzen dira eta beste zenbaitetan zaila izango da neurri bat argi eta garbi eredu batean soilik sailkatzea.

Are gehiago, eztabaida teoriko interesgarria ematen ari da erantzun ezberdinak ematen ari direla defendatzen dutenen artean (Bonoli eta Bonvin, 2001; Daguerre eta Taylor-Gooby, 2004; Schroter, 2004) eta erretorika eta teoria alde batera utzita, martxan jartzen ari diren neurriak oso antzekoak direla defendatzen dutenen artean, hauetan workfare ereduaren eragina nabaria delarik (Standing eta Vaughan-Whitehead,

1998; Kildal, 2000; Clasen, 2002; Handler, 2003; Dahl, 2003; Clasen eta Clegg, 2004). Eztabaida honetan, jada aipatu bezala, nabaria da antzekotasunak somatu daitezkeela eredu ezberdinen artean eta horietan workfare ereduak besteetan eragina sorrarazten duela ematen duela. Hala ere, ezin da baztertu ere, testuinguruaren arabera ezberdintasunak ere antzeman daitezkeela eta neurri beraren eraginak oso ondorio ezberdinak sortzen dituela.

2. Kapituluua: workfare eredu

2.1. ¿Zer da workfare-a?

90. hamarkadatik aurrera *workfare* edo *welfare to work* ereduak gero eta eragin gehiago izan du lurralde garatuetako gizarte-politike-tan. Alde batetik, lurralde anglosaxoietan Ongizate Estatuaren erreforman hartu duen garrantziagatik, gehienbat Amerikako Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan, baina baita ere Kanada (Bancroft, 2004) edota Australian (Shaver, 2002; Crisp eta Roy, 2008). Bestetik, Europar lurraldeetako gizarte-politike-tan ere eragina sorrarazten ari duelako azkeneko urteetan. Workfare ereduari buruz hitz egiten denean, gizarte-prestazioak jasotzen dutenentzat lan-merkaturatze azkarraren abantailak bultzatzen duten neurrien multzoa izango litzateke. Ingeleseko kontzeptuaren itzulpena ongizateetik lanera edota enplegura egiten den igoaldia izango litzateke.

Definizio bakar bat ematea zaila denez eta batzutan ikuspegi ezberdinak tartekatzen direnez, ondorengo lerroetan hainbat aipatuko ditugu. Lodemel eta Trickey-ren arabera, adibidez, workfare barruan "gizarte-prestazioak jasotzeko lan-merkatura itzultzea eskatzen duten neurriak egongo lirateke" (Lodemel eta Trickey, 2001). Jessop-en arabera, workfare-a "langabezia dauden pertsonak lan-merkaturatze azkar baten bidez prestazioekiko duten menpekotasuna ekiditeko programa neoliberal da" (Jessop, 2003: 13). Rubén Lo Vuolo-ren ustez, aldiz, "enplegua lortzeko pizgarriak edota enplegu bat izatearen eskubidearen orde, pertsonari diru-laguntzaren truke enplegatuta egoteko bete-behar zuzena ezartzen dizkion politikak dira" (Lo Vuolo, 2001: 116).

Definizio labur hauek kontuan harturik kontzeptua gorpuzten duten elementu komun batzuk ikusi ditzazkegu. Alde batetik, prestazioa jaso ahal izateko enplegu bat lortzearen derrigortasuna agertzen da guztie-

tan. Betebehar honen bidez, prestazioaren onuradunek mehatxu bat dutenez enplegu bat lehen bai lehen bilatzen saiatuko dira eta horrela ere prestazioak ez dituzte jasoko. Lan-merkaturatze honen lehentasuna, formazioa edota diru-sarreraren bermaketaren kalterako egiten da. Horrela, workfare-aren filosofiaren arabera neurririk arrakastatsuen da lan-merkaturatze azkarrena lortzen duena. Testuinguru honetan *enplegarritasuna* bezalako hitzak garrantzi handia hartzen du. Honen harira ez da kasualitatea Erresuma Batuko Lehen Ministroa izan den Gordon Brown-ek 1997. urtean jada *enplegu osoa* erabiltzea baino *enplegarritasun osoa* kontzeptua hobestea (Financial Times, 1997/9/30). Gizarte-prestazioak enplegarritasun hau sustatzeko pizgarritzat jokatuko lukete (Plinger, 2000). Beraz, workfare-aren *leifmotiv* nagusiena enplegua integrazioarako eta pobrezia aurre egiteko biderik hobereena –eta akaso bakarra– dela da. Honetaz gain, kontzeptu hau zehazten duten beste hainbat ezaugarri ere aipatu daitezke. Alde batetik, prestazioa enplegu bat lortzera baldintzatuta egotea eta prestazioak jasotzeko epeen mugaketa. Baldintza hauek ez badira betetzen, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu daiteke eta zenbaitetan galdu ere (Waddan, 2003).

Jessop-ek bere definizioan aipatzen duen bezala, workfare ereduja jatorri neoliberala duen teoria bada eta pobrezia ulertzeko *dependenziaren* edota *underclass* teorietan oinarritzen da. Izan ere, ezin da ahaztu workfare-an oinarritutako politiken bidez gastu sozialaren murrizketa ematen dela eta aldi berean lan-malgutasun gehiago lortzen dela, teoria neoliberalaren oinarriak direnetako bi, hain zuzen ere (Peck eta Theodore, 2000).

Workfare-aren defendatzaileen arabera, Ongizate Estatu tradizionalak hutsune asko ditu integrazioa eta kohesio soziala bermatzeko, bertan kokatzen diren gizarte-politikak zaharkituta daudelarik. Erreforma eman arte gizarte-politikek pobreak umeak izango balira bezala tratatzen zituen eredu honen jarraitzaileentzat, honek pobrezia eta dependenziaren kultura bultzatzen zuelarik. Hori dela eta, norbanakoaren ardua azpimarratzen duten baldintzak eta zigorrak jarri beharko liratenke, hauen bidez lan-merkaturatze azkarra errazteko eta pobrezia kronifikazioari aurre egiteko.

Pobrezia eta lanaren arteko lotura hau ez da berria. Are gehiago, historian zehar Grezia garaian jada gerturapen hau ematen zen eta gaur egun arte irauten du. Adibide bat aipatu arren, Ertaroan zehar limosna eskatzea ezintasunak ez zituzten pertsonentzako debekatu zituzten hiriak asko izan ziren. Augsburgotarren garaian, esaterako, 1530. urtean Carlos V. eskaleak kontrolatzeko agindua eman zuen eta hauen seme-alaben lan bat ikastearen beharra (Geremek, 1998: 159-160). Protestantismoaren garapena eta honek bultzatutako lanaren etikarekin

dinamika hauek bultzatu baino ez ziren egin. Zenbait lurraldeetan eska-leak lanak ikasteko egoitzetan atxilotzeraino ailegatu ziren. Ikusten denez enplegu bat izatearen betebeharra eta langabezia norberaren ardura izatea konstante bat izan dira historian zehar (Roche, 1992).

Iritzi honetan kokatzen da ere, Lawrence Mead, 90. hamarkadan zehar Ongizate Estatuaren erreforma aldarrikatzen duenean pobrezia edota dependentziaren kulturari aurre egiteko (Mead, 1992) eta workfare ereduarekin bat egiten duen *paternalismo berri* baten alde egiten duenean (Mead, 1997). Egile honentzat ongizate tradizionalak –welfare eredu–, enpleguaren bilaketan ondorio ezkorrak eragin ditu eta dependentziaren kultura bat sorrarazi du. Era berean ezkontzen aurkako neurriak bultzatu ditu, diru-laguntza gehienak ezkondegabeko edo banandutako emakumeentzako zuzendu direlako, seme-alabak dituzten famili tradizionalen kalterako (Mead, 1992: 115).

Ikuspegi hau bi esaldi hauen bidez nahiko ondo laburtu dezakegu: “pobreei laguntzen badiezu, zorigaitzoko bihurtuko dituzu, euren buruaren ardura ez dutelako hartuko” (Autes, 2004: 22). Eta “pertsonei hobeto doakie euren ongizatea gobernuarena baino euren ardura dela onartzen badute” (Schmidt, 2000: 25). Ideia hauetan ikusten den bezala, Workfare ereduaren bi norabideetako argudioak agertzen dira. Alde batetik, aurreko politikek sorrarazitako ondorio sozial eta ekonomiko ezkorrak aipatzen dira. Bestetik, arlo etiko-moralean kokatzen den kritika ere ematen da. Horrela, maila ekonomiko eta teknikoan kokatzen diren baldintzak ezartzen dira prestazioa jaso ahal izateko, baina baita morala eta bizitzeko era zehazten dituzten baldintzak ere.

Workfare-aren erreformarekin bat, 90. hamarkada erdialdetik aurrera gehienbat, aldaketa sakonak sartzen dira eredu sozialean, neurri politiko eta ekonomikoei dagokienez, baina baita zutabe teorikoei dagokiez. Azken honetan sakonduz, hiritarren eskubideetan oinarritzen den ikuspuntu normatibo batetik –welfare– betebeharrak eta eskubideak lotzen dituen beste baterako igaraldia ematen da, kasu honetan enplegu bat izatearen betebeharra hiritarra izan ahal izateko. Era berean, eskubideetan oinarritutako gizarte-hitzarmen batetik norbanakoaren arduraren oinarritutako beste batera pasatzen da (Lavalette eta Mooney, 1999). Horrela, maila kolektiboan eta sozialean kokatzen den arriskuari babesa langabeturik dagoen pertsonara pasatzen da (Culpitt, 1992; Culpitt, 1999; Peck eta Theodore, 2000).

Laburbilduz, workfare ereduak enplegu bat izatearen beharra defendatzen du gizarte eta norbanakoaren lotura zehazteko –gizarte-hitzarmena–. Horretarako, norbanakoaren ardurari eta enplegarritasunari garrantzia ematen zaio. Helburu hau lortzeko dependentziaren kulturari aurre egin behar zaio eta lan-merkatuaz bultzatzen duten

gizarte-politikak bultzatu behar dira. Horretarako, prestazioetan baldintza zorrotzagoak edota denbora mugak ezartzen dira.

Aplikazio praktikoari dagokionez workfare eredu gehienbat Amerikako Estatu Batuak eta Erresuma Batuan gauzatu da. Lehenengoan dago eredu honen jatorria Bill Clinton-ek 90. hamarkada erdialdean bultzatutako ongizate-politiken erreformarekin batera eta bertan kokatzen dira programa garatuenak. Erresuma Batuan, AEBetako eredu harturik workfare-a ere martxan jarri da azken urte hauetan. Kapitulu honetako ondorengo ataletan bi eredu hauen azterketa egingo da.

2.2. Workfare eredu estatubatuarra

Jada esan bezala, workfare-a lurralde jakin batean, AEBk, eta kultura berezi batean sostengatzen da, bertan gizarte-prestazioek dependentzia sorrarazten dutelaren sinesmena oso errotuta dagoelarik (Wilson, 1994). Horrela izanik, ez da harrigarria eredu hau leku honetan jaiotzea. Datu bat aipatu arren, lurralde honetako populazioaren %10 batentzat soilik dira garrantzitsuak pobrezia edota gizarte ongizatea bezalako gaiak (Danziger eta Danziger, 2005).

Benetako workfare-aren aldeko erreforma 90. hamarkada erdialdean ematen bada ere, 70. hamarkadetatik jada ideia honetan jatorria duten hainbat saiakera eman ziren AEBetan (Hermann, 2008), ideologiak neokontserbadorearen itzalpean. Zentzu honetan, ez da kasualitatea aurrera eramandako lehenengo programa pilotu hauen artean Kaliforniako Work Experience Program izenekoa egotea, zehazki estatu horretako gobernadorea eta gero AEBetako presidentea izatera ailegatu zen Ronald Reagan-en eskutik (Wiseman, 1988). Ideologia neokontserbadoreak bereziki bi kritika egiten die welfare-an oinarritutako politikei. Alde batetik, enpleguaren hedapena eragozten dutela; eta bestetik, familien desegituratzea sustatzen dutela.

Hasierako programa hauetan prestazio ekonomikoa jaso ahal izateko enplegu edota jarduera bat egitearen beharra ezartzen zen, baina oraindik ezberdintasun nabariak erakusten zituzten gaur egungo programekin. 80. hamarkada bukaeratik aurrera programa hauek estatu ezberdinetan garatu egingo dira. Momentu honetan gobernu federalak Family Support Act onartuko du eta honek workfare-aren filosofian oinarritzen diren programak bultzatu eta sustatuko ditu. Garai honetan, esaterako Aid to Families With Dependent Children –AFDC– izeneko laguntzan –seme-alabak dituzten famili behartsuenentzako diru-laguntza– lehenengo baldintzak ezarriko dira, seme-alabak eskolara joatearena diru-laguntza jaso ahal izateko adibidez (Norris eta Thompson, 1995). 1996. urteko erreforma handia eman arte, programa garatuenak

Kalifornian eman ziren, 1992 eta 1993. urte bitartean estatu honetako gizarte gastua %15n murriztu zelarik (Waste, 1995: 65).

Baina jada aipatu den bezala, Ongizate Estatu estatubatuarraren aldaketa eta erreforma 1996. urtean eman zen Clinton presidentearen eskutik eta berak esan zuen bezala "garai hori arte ongizatea bezala ezagutzen zen errealitatearen desagertzea emanez". Erreforma baino erabateko aldaketa bati buruz hitz egin dezakegu, bai arlo teorikoa zein gizarte ongizatearen egiturei dagokienez (Edelman, 1997). Erreforma hau Personal Responsibility and Work Opportunity Reconciliation Act –PRWORA– eta Contract With America Advancement Act legeen bidez gauzatuko da, nahiz eta lehenengoa izan aldaketa nagusiak zehazten dituena.

Esanguratsuenak diren aldaketak honako hauek dira: Aid to Families With Dependent Children –AFDC– diru-laguntzaren desagertzea emango da, 1935. urtean sortu zena Roosevelt presidentek bultzatutako New Deal izeneko programa erreformistaren baitan. AFDC zen AEBetako politika asistentzialen neurririk garrantzitsuenak. Desagertu baino lehen 5 milioi familia inguru ziren programa honen onuradunak, gutxigorabehera 14 milioi pertsona inguru (Waddan, 2003: 21). Programa honen ordez Temporary Assistance for Needy Families –TANF– sortuko da.

Gómez Abelleirak egindako sailkapena jarraituz PWORA legea idatzi zutenek lau helburu nagusi zituzten (Gómez, 1997: 61-62):

- Euren etxeetan beharrak dituzten familiak seme-alaben zainketa-rako laguntza izatea.
- Formakuntza, enplegua eta ezkontzaren bidez familia hauen autonomia sustatzea.
- Ezkontza kanpoko haurdunaldiak jeistea.
- Aita eta amaz osatutako bikote eta ezkontzen egonkortasuna bultzatzea.

Helburu hauetan argi ikusi daitekeen moduan lanaren etika eta, gehienbat familia tradizionalari loturiko baloreak sustatzen dira erreforma honen bidez ere. Hauetaz gain eta legean bertan –PRWORA–, lege berria martxan jartzeko argudioak agertzen dira ere. Horrela, 1965. urtetik 1992. arte AFDT programaren parte-hartzaileen kopurua hiru-koiztu egin zela eta 1992. urteko onuradunen artean haurren %89a familia monoparentaletan bizi zela aipatzen da. Horretaz gain, ezkontza kanpo ematen diren haurdunaldien ugalketa azaltzen da ere, ezkondu-gabeko amen kopurua asko hazi dela azpimarratuz. Honen arabera, erreforma baino aurreko legeak errealitate hau sustatu egiten zuen eta horregatik erreforma ezinbestekotzat jotzen da.

Erreforma honen ardatza ordainduriko lana –enplegua– izango da. Honen inguruan lau ideia nagusi azpimarratzen direlarik (Handler, 2003):

- Lan egin nahi duenarentzat lana dago.
- Lan-merkatutzeko eta honetan aurrera egin ahal izateko enplegu bat lortzea, edozein motatakoa delarik, oinarrizko lehen urratsa da.
- Ematen diren gizarte-prestazioek lan-merkatutzerako oztopo bat baino ez dira eta onuradunen desmotibazioa bultzatzen dute.
- Formakuntza edota heziketa arloan kokatzen diren programen aurrean, lehenetsuna eman behar zaie lan-merkatutze azkarra ahalbidetzen dituztenei, beraz welfare to work programei lehenetsuna eman behar zaie.

Hurrengo lerroetan zehar erreforma honen ardatz eta ezaugarri nagusiak aipatuko dira. Rebeca M. Blank-entzat, esaterako, hiru aldaketa nagusi azpimarratu daitezke (Blank: 2002):

- Seme-alabak dituzten familientzako prestazioaren erreforma, AFDC programatik TANF-erako igaroaldia ematen delarik. Era berean, programa honen eskumena izaera federala izatetik estatuen eskumena izatera pasako da.
- Finantziaketan ematen diren aldaketak, gaur egun gobernu estatal zein federalak parte hartzen dutelarik. Dena den, lehenengoaren ekarpena nagusiagoa da.
- Eredu pasibo batetik aktibora ematen den igaroaldia. Azken honetan enplegu bat lortzea izango delarik arrakastaren neurgailu.

Azken ezaugarri hauei lotuta erreformaren bidez deszentralizazioa bultzatu da. Horrela, lehen eskumena gobernu federalarena baldin bazen ere, orain finantziarioa federala da baina programen kudeaketa estatala da, arlo honetan duten autonomia maila nahiko handia delarik. Dena den, gobernu federalak baliabide ekonomikoak emateko baldintza batzuk ezartzen ditu eta estatuek bete behar dituzte jasotzen duten diru kopuruan murrizketarik eman ez dadin. Baldintza hauen artean, onuradunen murrizketa edota onuradunen lan-merkatutze handiagoko ematea kokatzen dira.

Era honetan, edozein enplegu lortzea onuragarria da workfare ereduaren defendatzaileentzat bai onuradunarentzat zein programaren garapenean. Langabezian dagoen pertsona edozein enplegu onartzera behartuta dago (Peck, 1998) eta *work first* estrategia da nagusitzen dena (Strawn, 1998; Handler, 2003). Zehazki, TANF-en ezartzen denaren arabera, gizarte-prestazioaren onuradunak enplegu bat lortzera,

formakuntza ikastaroak egitera edota babestutako *–workfare jobs–* edozein enplegu onartzera behartuta dago. Helburu hau lortzeko estatuak enplegu bilaketarako agentzia publiko zein pribatuak erabili ditzazkete. Zentzu honetan, denbora baterako enpresek *–Temporal Agency Employment–* indar handia hartu dute azken urteetan (Autor eta Houseman, 2002). Honen harira, TANF programan parte hartzen duten %20 enpresa mota hauen bidezko lan-merkaturatzea lortzen dutela uste da (Autor eta Houseman, 2005).

Enplegu bat lortzeko programez gain, formakuntza sustatzen dutenak ere martxan jarri dira *–Job Opportunities an Basic Skills Training Program (JOBS)–*. Hainbat programetan enplegua bilatzeko zein formakuntzarako programak konbinatzen dira, dena den lehehengoan nagusitasuna nabaria da formakuntza sustatzen duten programen kalterako (Ochel, 2001). Honen zergatia nahiko argia da. Jada esan bezala, helburu nagusienetakoa ahal den eta azkarren enplegu bat lortzea da eta noski enplegua bultzatzen duten programak beti arrakastatsuagoak izango dira. Era berean, formakuntza edota heziketa arloan kokatzen diren neurriak baino merkeagoak izaten dira gehienetan (Peck eta Theodore, 2000; Dodenhoff, 2005).

Baldintzei dagokionez, AFDC-aren desagerpenarekin laguntzak eskubide izaera edukitzeari utzi diote eta estatu ezberdinek jartzen dituzten baldintzen pean gelditzen dira. Soilik seme-alabak dituzten familiak izan daitezke programa honetako onuradun eta prestazio ekonomikoa jaso ahal izateko lan egiteko beharra ere zehazten da *–work requirement–*. Enplegua lortzeko borondaterik erakusten ez duenak edota enplegu bati uko egiten dionak zigorrak jaso ditzazke, diru kopuruaren murrizketa batetik programatik kanpo gelditzeraino. Are gehiago, 2006. urtetik aurrera lege federal baten arabera TANF programa jasotzen duten pertsonen %50a 30 orduko lan jardueren bat egitera behartuta daude, ezkondu gabeko amen kasuan 20 ordukoa delarik, baldin eta euren seme-alabek 6 urte baino gutxiago ez baldin badute.

Zigoren izaera estatala dela eta, bakoitzak zigor eta hauen aplikazio ezberdina egiten du. Batzutan zigorraren bidea jarraitzen den bitartean, beste batzutan onuradun eta administrazioaren arteko negoziazioa bultzatzen ari da (Kaplan, 1999). Hala ere, gobernu federalak baldintza orokor batzuk ezarri ditu honen inguruan. Bi urtez jarraian edo bost ez jarraian TANF programaren barruan egon direnak kanporatuak izan beharko dira. Hainbat estatuetan denbora muga hauek are zorrotzagoak dira. 2002. urtean, adibidez, 23 estatuetan ez zegoen denbora muga propiorik, beraz bost urtekoa zen, 17tan denbora muga propioa zuten eta gainontzekoetan diru kopuruaren murrizketa ematen zen programan ematen zen egonaldiaren arabera (Bloom, Farrell eta Fink,

2002). Hainbatetan ezarri diren denbora mugak direla eta ia zuzenki enplegu bat lortu behar da gizarte-prestazioa jaso ahal izateko, neurri zigortzaileen hedapena eman delarik programa ezarri zenetik. Muga hauen aurrean salbuespen batzuk daude, gehienbat ezintasunak dituzten pertsonentzako edota indarkeria sufritu duten emakumeentzako.

Seme-alabak dituzten familientzako prestazioan emandako aldaketek gain, bigarren mailako beste batzuk ere eman dira. Supplemental Security Income izeneko prestazioan adibidez, adinekoentzako eta ezintasuna duten pertsonentzako nolabaiteko gutxieneko errenta, ezintasunaren jatorria alkoholismoa edota drogomenpekotasuna baldin bada, pertsona hauek ez dute prestazioa jasoko eta programatik kanpo geldituko dira. Era berean, janaria erosteko Food Stamps laguntzaren kasuan baldintza gehiago eta gogorragoak ezarri dira eskatzaileen kopurua murriztu ahal izateko.

Baina workfare estatubatuarraren erreformak hiru zutabe nagusi ditu. Lehenik eta behin, jada aipatu den AFDC-aren desagertzea eta baldintza gehiago eta enplegu bat lortzea bultzatzen duen TANF programaren agerpena. Bigarrenik, gutxieneko soldataren hazkundea eman da, urtez-urte gora egin duelarik. Eta azkenik, Earned Income Tax Credit –EITC– izeneko txeki fiskala ezarri da, diru-sarrerak baxuak dituzten eta enplegu bat duten familientzat. Estrategia hirukoitz honen helburua, argi ikusi daitekeenez, lan merkatuak sustatzea eta enplegua lortzen duten pertsonen bizi baldintzak hobetzea dira.

EITC-a 1975. urtetik ematen bada ere, bere benetako garapena 1996. urtetik aurrera ematen da, ongizatean ematen den erreformarekin batera hain zuzen ere. Momentu hauetan maila federaleko EITC bat egoteaz gain, 24 estatuk bere EITC propioa ere badute. Gaur egun pobrezia aurre egiteko tresna nagusienetakoa da eta honen bidez jasotzen den diru kopurua enpleguaren bidez lortzen diren diru-sarrerak edota familiak dituen seme-alaba kopuruaren arabera ezartzen da. EITC-a jaso ahal izateko AEBetan gutxienez sei hilabetez bizitzen egon behar izan du pertsonak, 25 eta 64 urte bitartean kokatu behar da eta beste pertsonen menpekotasuna ez izatea frogatu behar da. Lehen esan bezala soilik seme-alabak eta enpleguaren bat duten familiek eskatu dezakete txeki fiskal hau. Beraz, langile pobreeentzako zuzentzen den neurria da. Gaur egun EITC-a jasotzeko aukera dute urtero 34.000 edota 41.000 dolar –egoeraren arabera– baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familiek.

Bere soldataren bidez 15.000 dolar jasotzen ez dituen familia batek diru kopuru horren heren bat inguru jasoko luke EITC-aren bidez, hortik aurrera diru-laguntza murriztu egiten delarik. EITC-a errenta-aitorpenaren bidez egituratzen da. Jaso behar den diru kopuruari urte horretan

eman diren erretentzioak batzen dira eta jaso behar den diru kopurua zergaren kuota baino handiagoa bada -%80en kasuan ematen dena-familia horri tokatzen zaion diru kopurua ordainduko zaio. Kontrako kasuan, EITC-aren bidez jaso behar den diru kopurua guztira ordaindu behar denari kenduko zaio. Neurri federala den arren, hainbat estatuek hobekuntzak sartu dituzte programa hauetan diru kopuru handiagoak jaso ahal izateko txeki fiskal honen bidez.

Eskaeretan eman den hazkundera oso handia izaten ari da urterik urte. 2000. urtean 18 milioi langile inguru jasotzen zuten EITC-a (Blank eta Schmidt, 2000: 16). 2003. ean 19 milioi ziren eta gastua 31 milioi dolarretan kokatzen zen (Newman, 2003). Adibide zehatz bat jartzearen, dolar bat eta 9.720 dolar bitartean eta bi seme-alaba edo gehiago zuen familia batek 40 zentaboko pizgarria lortzen zuen irabazitako dolar bakoitzeko eta 9.720 dolarrentzako bonifikazio fiskala 3.888 dolar inguru kokatzen zen. Zifra handiei erreparatuta, batez beste 2000. urtean familia bakoitzak 1.632 dolar jasotzen zituen EITC-aren bitartez (Ochel, 2001: 8). 2004. urtean 22 milioi onuradun zeuden eta gehienez EITC-aren bidez 4.204 dolar jaso zitezkeen (Eissa, Jacobsen eta Thurs-trup, 2004: 5). Datu hauekin bukatzeko, 2006. urtean 23 milioi familiek jasotzen zuten eta batez besteko diru-sarrera 2.375 dolarretan kokatzen zen (Center on Budget and Policy Priorities, 2008).

Datu guzti hauek direla eta egile askoretzat EITC-a da gaur egun AEBetan pobrezia aurre egiteko tresnarik garrantzitsuena, gutxienez langile pobreen artean. Honen inguruko datu bat esanguratsua da oso. 1985. urtean pobrezia mugan kokatzen zen familia batek bere diru-sarreraren %16,2a Ogasunari ordaindu behar bazion, 2001. urtean Ogasunak bere diru-sarreraren %15,5a ematen zion (Sammartino, Toder eta Maag, 2002).

Estatubatuetako ereduarekin bukatzeko workfare-k lortu dituen emaitzen azterketa egingo da. Ebaluazioek askotan ondorio ezberdin eta bukatugabeak aurkezten dituzte, ideologiaren arabera interpretazioak garrantzi handia duelarik arlo honetan. Oro har, ikerketa gehienek bi aldeko ondorio nagusi bat azpimarratzen dute.

Alde batetik, enplegua eta honen bidezko diru-sarrerak dituzten pertsona eta familien hazkundera eman da, prestazioak jasotzen dituzten onuradunen kopurua asko jaitsi delarik. 2000. urtean, esaterako sei milioi onuradun inguru zeuden, 60. hamarkadan ematen ziren antzeko datuak (Danziger, 2000: 2). Horrela bada, erreformaren lehen urteetan izugarrizko murrizketa eman da, AFDC-a jasotzen zuten familien kopurua 5 milioikoa baldin bazen ere, 2000. urtean 2,5 milioi ziren TANF jasotzen zutenak (Blank, 2000: 4; Walker eta Wiseman, 2001: 1; Barber, 2001: 12; Riedl eta Rector, 2002). Eta azken datuen arabera TANF-

en onuradunak 2008. urtean –krisiaren ondorio larrienak eman baino lehen– 1,7 milioi familia ziren (Lower-Basch, 2009: 1). Hortaz, 2008. urterarte etengabeko jaitsiera eman da, 2006-2008 tarte horretan are nabariagoa izan delarik, hiru faktore direla medio: programetan gero eta muga gehiago jarri dira, onuradunek enplegu bat bilatu dutelako eta programan egon ahal den gehieneko epea gero eta pertsona gehiagok betetzen dutelako.

Zenbait estatuetan murrizketa hau erabatekoa izan da, Wisconsin, adibidez, onuradunen kopurua %87n jaitsi zen erreforma jarri eta hiru urteetara, Hegoaldeko Karolinan edota Texas bezalako estuetan ere jaitsiera hau %50etik gorakoa izan zen (Brauner eta Loprest, 1999). Hala ere, erreformaren txanponak beste alde bat badu ere eta datu gehien arabera pobrezia murrizketarik ez da eman AEBetan azken urte hauetan eta enplegu bat lortu arren onuradun ohi gehienek ez dute pobrezia-muga gainditzea lortzen (Hamilton, 2002).

Workfare ereduaren defendatzaileek erreformaren arrakasta aldarrikatzen dute eta aurreko pasarteetan aipatutako datuak azpimarratzen dituzte, lan-merkaturatzea handitu dela gailentzen dutelarik, bereziki ezkondegabeko amen artean, hauen lan-merkaturatzea erreformaren lehenengo urteetan %63,6tik %71,5era pasa zelarik (Corbett, 2002: 4). Era berean, gizarte-prestazioak jasotzen dituzten pertsonen zenbatekoak asko jaitsi egin direla ere aipatzen dute sarritan arrakasta honen erakusgarritzat (Blank eta Schmidt, 2000; Bond eta Carmola, 2004). Honi lotuta hainbat familietan diru-sarreraren igoera bat eman da. Era berean, gizarte-prestazioetan emandako aurrezketaren bidez beste batzutan inbertsio berriak egin direla aldarrikatzen dute (Danziger eta Danziger, 2005).

Eztabaida honen bestaldean, workfare ereduaren kritikoak kokatzen dira. Hauen ustez sortu diren enplegu berriak gaizki ordaindurikoak eta guztiz prekarioak dira, hortaz TANF programa utzi eta Food Stamps edota Medicaid –familia pobreentzako osasun laguntza– bezalako prestazioak jasotzen jarraitu behar dute. Obama presidentek 2010. urteko udaberrian aurrera eramane duen osasunaren erreformaren nondiknorkoak garrantzitsuak izango dira ere pobreen osasun estaldurari dagokionez².

George Bush-en legegaldia ez zuen berrikuntza nabaririk suposatuz ongizatearen erreforman eta lehen Clinton-ek ezarritako bidea jarraitu zuen, 2002. urtean Kongresuak workfare programen jarraipena onartu

² Kapitulu honetako atal berezi batean workfare ereduaren kritika nagusienak landu direnez, honako honetan soilik apunte gisa aipatuko dira.

zuelarik. Dena den, Bush-ek bide zigortzailea indartu egin zuen bere legegaldian. Defizit publikoa murrizteko legean programen eta enpleguaren lotura estutu da (Schott, 2009) eta helburua 2007. urtean TANF onuradunen %70a 40 orduko enplegu bat izatea zen. 2006. urtean ere TANF-en jarraipena onartu egin zen Deficit Reduction Act izeneko legearen bidez (Parrot, 2007). Workfare jarraitzeko hurrengo onarpena 2010. urte bukaeran emango da.

2.3. Erresuma batuko workfare-a: new deal

Erresuma Batuko workfare ereduak AEBetako jarraitzen du, bi hauen arteko antzekotasunak nabariak direlarik (Walker, 1998; Lavallette eta Mooney, 1999; Deacon, 2000; Driver, 2000; Barbier, 2000; 2001). Enpleguari ere lehentasuna ematen zaio eta hainbat kolektibengan arreta berezia jartzen da, gazteena edota ezkondu gabeko amen kasuan. Hortaz, jada AEBetako eredurako aipatutako hainbat ezaugarri balioagarriak dira Erresuma Batuko kasua ulertu eta ikertzeko ere. Are gehiago, zenbait egileentzat lurralde honetako ereduak *Troyako Zaldia- ren* papera jokutzen du Europan eta bereziki Europar Batasunean (Jessop, 2003) workfare-aren politikak eragina sor dezaten.

Honetaz gain, Erresuma Batuan baldintza egokiak ematen ziren 90. hamarkada bukaeran workfare-aren garapenerako. Aurreko urteetan emandako gobernu kontserbadoreen ondorioz Ongiztae Estatu tradizionalan emandako aldaketak nabariak ziren. Gainera 1997. urtean laboristen hauteskunde garaipena emango da eta Tony Blairen eskutik Laborismo Berria bultzatuko da, honetan Clinton-en ideien eragina azpimarratu daiteke.

Testuinguru honetan gobernu laboristak Erresuma Batuko Beveridge-n ideietan oinarritutako welfare tradizionalaren erreforma bultzatuko du. Horrela, *Ongizaterako kontratu berria* izeneko proposamenean (1998), erreforma honen ardatzak zehaztuko dira, bost urteetan 4,5 milioi pertsona lan-merkatuaz izango delarik proposamen honen zutabe nagusienetakoa, honetarako sei mila milioi euroko aurrekontua ezartzen da. Alde batetik, ongizate sisteman ematen den iruzurra azpimarratzen da eta prestazioek dependentzia sorrarazten dutela defendatuko da, gehienbat gazte (Dean, 1997) edota ezkondu gabeko amen artean zehazki.

Testuan *aukeretan* oinarritutako Ongizate Estatuaren *laugarren aro* bati buruz hitz egiten da. Egile batzuen ustez estrategia hau bi norabideetako izan da. Alde batetik, izaera unibertsaleko gizarte zerbitzuak mantendu dira, klase ertainera zuzentzen direnak hain zuzen ere –osakuna eta hezkuntza nagusiki–. Bestetik, baldintzaturiko politikak bultza-

tu dira behar gehien dituzten pertsonentzat (Brewer, Clark eta Wakefield, 2002). Maila diskurtsibo honetan gobernu eta hiritartasunaren arteko kontratu berria aldarrikatzen da prestazioak jasotzeko pertsonak formakuntzan parte hartu edota enplegu bat bilatu behar duelarik (Alderdi Laborista, 1998: 158). Honekin oso lotuta agertzen da Laborismo Berriak aldarrikatzen duen eskubide eta arduren etika berria (Labour Party, 1997). Enplegua kontratu berri honen zutabe bilakatzen da eta integrazioarako ardatza nagusia, prestazioetarako zein ongizaterako atea izango delarik (Smith, 2000).

Kontratu berri hau *New Deal* bezala ezagutuko da eta *A new contract for welfare: principles into practices* izeneko dokumentuan zehaztu zen. Jada famatu egin den esaldi baten bidez laburtu daiteke bertan defendatzen dena: *enplegu bat lan egin dezaketenentzako eta segurtasuna lan egin ezin dezaketenentzako* –work for those who can; security for those who cannot–. Honetaz, gain Ongizate Estatuaren erreformarako zortzi printzipioei buruz hitz egiten da, gehienetan enpleguaren garrantzia eta lan-merkaturatzea azpimarratzen direlarik.

1998. urte hasieran hasten da ongizatearen erreforma Erresuma Batuan, langabezia dauden gazteentzako programa pilotu batzuk martxan jartzean, urte horretako udaberri aldean kolektibo honentzako izaera nazionaleko programa aurrera eramango delarik (Walker, 1998). Daguerre eta Taylor-Goobyk (2004) erreformaren lehenengo fase honetan bi azpifase ezberdin bereizten dituzte. Lehenengoa programen diseinua eta formulazioa (1997-1998): fase honetan gazteen kolektiboak du lehentasuna eta Clintonek bultzaturiko erreformaren eragina nabaria izango da. Bigarrean, programen konsolidazioa ematen da (2001-2003): Fase honetan AEBetako eragina are nabariagoa izango da oraindik

Martxan jarri diren neurriei dagokienez, berezitasun batzuk alde batera utzita, gehienek bat egiten dute AEBetan ezarritakoekin. Hiru dira nagusienak: gutxieneko soldataren hazkundea, gizarte asistentziaren erreforma eta enplegua bultzatzeko eta enplegua duten familien bizi baldintzak hobetzeko neurri fiskalak.

Gutxieneko soldata lehen aldiz Erresuma Batuan 1999. urtean ezarriko da. Aipagarria da oso bi gutxieneko soldata ezarri zirela momentu honetan, bata 18 eta 21 urte bitarteko gazteentzat eta bestea 22 urteko baino gehiagokoentzat. Neurri honen defendatzaileentzat horrela hobeto lortu zitekeen gazteen lehenengo lan-merkaturatzea. 2002. urtean gazteentzako gutxieneko soldata 3,6 libretakoa zen orduko eta besteena 4,2koa (McKay, 2003: 39).

Gizarte asistentziaren kasuan, lehen ematen ziren prestazioak desagertu dira eta *New Deal*-aren barruan barneratu dira, azken honek an-

tzekotasunak dituelarik TANF estatubatuarrekin (Blundell, 2002). Bertan kolektibo ezberdinetara zuzentzen diren sei programa ematen dira (Millar, 2000):

1. 18-24 urte bitarte eta langabezian sei hilabete baino gutxiago daramaten gazteentzako programa. Derrigorrezkoa da eta hasiera batean formakuntza eta aholkularitza fase bat ematen da. Ondoren lau aukera ezberdin aurreikusten dira: babestutako enplegua, formakuntza, heziketa intentsiboa eta bolondres lana edota ingurumenari loturiko lana. Lehenengo programa hau da diru kopuru eta parte-hartzaile gehien hartzen dituen.
2. Langabezian epe luzez daudenentzako programa: 55 urte eta eremu geografikoaren arabera, 12, 18 edota 25 hilabete langabezian dauden pertsonen zuzendua. Kasu honetan erabiltzaileek aholkularitza zerbitzua jaso ondoren bi aukera izaten dituzte: formakuntza eta heziketa ala babestutako enplegua.
3. Ama ezkontugabekoentzako programa: Income Support sei hilabetez baino gehiago eta euren seme-alabek bost urte baino gehiago duten ama ezkontugabekoentzako programa da. Borondatezko izaera du eta aholkularitzarekin batera beste laguntza mota batzuk agertzen dira, seme-alaben zaintzarena esaterako.
4. Bikotea langabezian daudenentzako programa: Kasu honetan bi aukera ematen dira. 18 eta 24 urte bitartean daudenentzako gazteentzako programa –guk aipatu dugun lehenengoa– eskaintzen da eta 25 urte baino gehiago dutenei aholkularitza eta laguntza pertsonala ematen zaie.
5. Ezintasunen bat duten pertsonentzako programa: Profesionalek eskaintzen duten aholkularitzan oinarritzen den borondatezko programa da. Era berean, enpresa buruekin kontzientziazio lana egiten da ezintasunen bat duten pertsonen errealitatea hobeto ezagutu dezaten.
6. 50 urte baino gehiago duten langabetuentzako programa: Kasu honetan laguntza eta pizgarrien bidez enplegua lortu dezaten bultzatzen da.

Hasiera batean, derrigorrezkoa zen programa bakarra gazteei zuzendurikoa zen. Baina 1998. urteko udazkenetik aurrera beste programa batzuen izaera aldatu egin zen, hala nola, epe luzez langabezian dauden pertsonena edota bikoteko bi kideek langabezian daudenena (Walker, 1999). Ezarritako baldintzak ez badira betetzen prestazioaren murrizketa eman daiteke. Baldintzei dagokienez ere, ezintasunen bat

dutenentzako baldintzak zorrotzu egin dira eta hauetako bakoitzak frogatu behar du lan egiteko aukerarik ez duela (Coates, 2008). New Deal-a gehienbat *Employment Zones*-en bidez egituratu da. Zona geografikoan arabera lana egiten da, desenplegu handia edota aktibitate tasa txikia dagoen lekuetan arreta berezia jartzen delarik.

Programa hauen emaitzei dagokienez, lehenengo urteetan ikusita-koaren arabera, gazteei zuzendutako programak ondorio onak izan ditu (NAO, 2002). Horrela, 2000. urte hasieran erabiltzaileen %34k enplegu bat bazuen. Dena den, kasu honetan ezin dugu ahaztu New Deal aurrekontuaren %70 kolektibo honetara bideratzen dela (Robinson, 2000: 19). Epe luzeko langabetuentzako programan ehuneko hau %13n kokatzen da (Millar, 2000; Clasen, 2002). Era berean, gainontzeko programek ere gazteena baino emaitza xumeagoak izan dituzte.

Erresuma Batuan ezarri den txeki fiskala *Working Families Tax Credit* –WFTC– bezala ezagutu zen hasieran. Orain dela urte batzuk emandako erreformaren ondoren *Employment Tax Credit* –ETC– bezala ezagutzen da. 1999. urtean martxan jarri zen soldata baxuak eta seme-alabak dituzten familientzako, baldin eta gurasoetako batek 16 ordu baino gehiagoz lan egiten badu. Honetaz gain, hainbat salbuespen daude, 16 urte baino gehiago eta 16 ordu baino gehiago lan egiten duten ezinduek edota 50 urte baino gehiago, 16 ordu baino gehiagoko enplegua eta lehen prestazio bat jasotzen zutenek ere aukera dute txeki fiskal honekin onura lortzeko. Hala ere, lehenengo taldearen barruan kokatzen da onuradun kopuru handiena –seme-alabak dituzten famili langileak–. ETC-a era ezberdinetara jaso daiteke, txeki, kontu korrante edota enplegatzaileak ematen duen soldataren baitan. Ondorengo lerroetan ikusiko dugun bezala, EITC-arekin antzekotasun handiak erakusten ditu, nahiz eta ematen den diru kopurua oro har handiagoa izan kasu honetan.

Neurri honen helburu nagusia enplegu bat duten familien pobrezia ekiditea da eta baita familia hauetan bizi diren adingabekoen bizi baldintzak hobetzea. Azken ideia hau ez da bigarren mailakoa kontuan hartzen badugu 90. hamarkada erdialdean Erresuma Batuko adingabekoen heren bat pobrezia-aren muga azpitik kokatzen zela (Jessop, 2003: 16). Horrela izanik, 2000. urtean umeen pobrezia %11n jaitsi egin zela estimatzen zen. Datu honetan ETC-aren eragina somatzen zen. AEBetan bezala, neurri honen bidez enplegua langabezia dauden pertsonentzako erakargarria izan dadin nahi da. ETC-aren bidez, adibidez Income Support bakarrik jasoko balitz baino 64 libra gehiago jasotzen ziren asterok (McKay, 2003: 42).

Beste kasutan bezala, neurri honen hazkundea nabaria izan da sortu zenetik. 2001. urtean esaterako, 1,25 milioi familiek onura ateratzen

zioten neurri fiskal honi. Batez beste, ETC-a jasotzen duten familiek 150 libretako diru-sarrerak izaten dituzte astero, familia monoparentaletan kopuru hau 110etakoa delarik. ETC-aren bidez jasotzen duten batez bestekoa, aldiz, 84 libretakoa izaten da, onuradunen %17k 120 libra edo gehiago jasotzen dituelarik. 2001. urtean Erresuma Batuko familia guztien %21k jasotzen zuen ETC-a, familia monoparentaletan %31, beraz garrantzitsua den neurria dela argi gelditzen da. Zentzu honetan 16 ordu baino gehiagoz lan egiten zuten familia monoparentalen bi herenek jasotzen zuten ETC-a 2003. urte inguruan (McKay, 2003). Adibide zehatz bat jartzearren, 2000. urtean 16 orduz baino gehiago eta 30 baino gutxiago eta 6 urteko umea zuen emakume batek astero 81,25 libra jasotzen zituen ETC-aren bidez, baldin eta 150 libretako diru-sarrera bazuen eta umearen zainketan 60 libra gastatzen bazituen (Francesconi eta Van der Klaun, 2004: 6). Ikusi daitekeen moduan, neurri honen bidez jasotzen den asteroko zenbatekoa pertsona horren diru-sarreraren %50a baino gehiagokoa da eta pentsatu daitekeenez, pobrezia-ondorioak baretzeko tresna garrantzitsua bada. ETC-aren bidez jasotzen den diruaren arabera, Housing Benefit edota Council Tax Benefit diru-laguntzen bidez jasotzen den kopurua ere aldatu egiten da (Brewer, Clark eta Myck, 2001).

2003. urtetik aurrera ETC-aren barruan bi mota ezberdin bereizten dira. Adingabekoentzako bata –Child Credit– eta bestea soldata baxuak dituzten familia langileentzako, seme-alabak eduki ala ez –Employment Tax Credit–. Bigarren honek WFTC-a ordezkutzen du eta era berean neurriaren hedapena suposatzen du (Lydon eta Walker, 2003). Adingabekoentzako diru-laguntza zaintzaile nagusiari ordaintzen zaio, izaera unibertsala du nahiz eta egoera ekonomikoaren arabera jasotzen den kopurua ezberdina izan. Erreforma hau aprobeixaturik, lehen familiaren bigarren diru-sarreraren ETC-ak sortu zitezkeen ondorio ezkorrak saihesteko pizgarriak ezarri dira. Izan ere, hasierako urteetan egindako ebaluaketen arabera, ETC-aren ondorioak onak ziren familia monoparentaletan, gehienbat ama ezkondu gabeko kasuan, kolektibo honen enplegu tasa %7an hazi delarik (Francesconi eta Van der Klaun, 2004). Baina ETC-aren kopurua jeisten denez diru-sarrera propioak handitzen badira, bi soldata jasotzen ziren familietan bigarren soldata izatea ez zen erakargarria suertatzen (Blundell, 2002). Hori dela eta, aldaketa batzuk sartu dira bigarren enplegua interesgarria izan dadin ere.

Laburbilduz, argi gelditzen da Erresuma Batuan politika publikoen transferentzien adibide garbia eman dela, AEBetako eredu oinarritzat hartuz egindako Ongizate Estatuaren erreforma eman da eta. Elementu komunak nabariak dira, enpleguari emandako lehenetasuna edota prezazioetan ezarritako baldintzak, zigorrak edota diru kopuruetan ematen

diren murrizketak honen adibide dira. Era berean, bi lurraldeetan gutxieneko soldata ezarri edota handitu egin da eta soldata baxuak dituzten pertsonentzako diru-laguntza bereziak ezarri dira desgrabazio eta pizgarri fiskalen bidez. Erresuma Batuan, hartutako neurriak ez dira AEBetakoak bezain bortitzak izan (Byrne, 1999). Horrela New Deal barruan kokatzen diren programa batzuk borondatezkoak dira, ezarritako baldintzak malguagoak, arazoak dituzten kolektiboentzako laguntzak daude eta formakuntzari ematen zaion garrantzia handiagoa da. Dena den, lehenengo urteen ondoren, AEBetako eredia gehiago jarraitzen ari dela ematen du, gero eta garrantzi handiago hartzen dutelarik lehenbailehen enplegu bat lortzeko programek (Driver, 2000; Clasen, 2001; Etherington eta Andersen, 2004).

2.4. **Asset-based welfare**

Atal honetan zehar workfare erreformaren barruan kokatzen den ongizatea ulertzeko eredu berri bat aztertuko da, *Asset-based welfare* edota, ahal den eta itzulpen egokiena eginez, ondasunen bidezko ongizatea. Horrela bada, 1996. urtean onartutako PRWORA legeak lehen aipatu ditugun neurriak ahalbidetzeaz gain, Individual Development Accounts –IDA, garapen pertsonalerako kontuak– neurriari buruz hitz egiten du ere, Asset-based welfare-an neurri garrantzitsua izanik. Eredu honen inguruan eman ziren lehenengo ekarpen teorikoak 90. hamarkada hasieran eman ziren Michael Sherraden-en eskutik (1991). Baina erreformaren ostean, bereziki 1998. urtetik aurrera, emango da eredu honen garapena AEBetan. Asset hitza, ondasuna bezala itzuli genezake, bertan pertsona batek dituen baliabide finantziero eta bere ondarea sartuko lirateklarik. Asset-based welfare-aren arabera ongizatea ondasunen bidez bermatu behar da, hauek aurrezki-kontu, dirua, etxebizitza, kotxea, etab. izan daitezkelarik. Era berean, giza eta gizarte baliabideak ere asset kontzeptu honen barruan kokatuko lirateke. Beraz, Asset-based welfare ez da mugatzen faktore ekonomiko edota ongizatera, maila sozial zein psikologikoan kokatzen diren elementuak azpimarratzen ditu ere, Sherraden-en esaldi honetan argi ikusi daitekeen bezala: “Assets-en bidez –ondasunen bidez– pertsonen pentsatzeko era aldatu egiten da eta munduarekin beste elkarrekintza mota bat ahalbidetzen da” (Sherraden, 1991:6).

Asset-based welfare-aren ideia nagusiarentzat pobrezia eta diru-sarrerak gutxi dituzten pertsonen egoerari aurre egiteko biderik egokiena euren diru-sarrerak handitzea da. Beeferman-en arabera “ondasunak –assets– pertsona bakoitzak bere proiektu bitala aukeratzeko eta zehazteko dituen ahalmen eta baliabideak izango lirateke. Aukeraketa

ezberdinen bidez bakoitzak berarentzat ongizatea zer den zehazten duelarik eta ondasun hauen bidez gauzaten duelarik” (Beeferman, 2001: 12). Honen arabera, ondarea eta diru-sarreraren bidez aukerak eta segurtasun ekonomikoa ahalbidetzen dira, administrazio publikoak ondarea sortzeko neurriak bultzatu behar dituelarik. Ikusi daitekeen moduan, eredu honen baitan kokatzen diren balore gehienek workfare-arekin bat egiten dute. Gainera ereduaren defendatzaileentzat, gaur egungo egoera eta testuinguru ekonomikora ondo egokitzen den bidea da.

Beeferman-en definizioan ikusi daitekeen moduan, ahalmenak alde batetik eta baliabideak bestetik bereizten dira. Gaur egun arte martxan jarri diren neurri gehienak izaera bikoitz hau azaltzen dute, baliabide ekonomikoek gain giza eta gizarte baliabideei ere garrantzia ematen zaiolarik. Administrazio ezberdinek beharrianak dituzten pertsonen aurrezte maila hobetzeko neurriak martxan jarri dituzte, nagusia desagrazio fiskal edota pizgarriak dituzten aurrezki-kontu bereziak bultzatzea da, hauek izaera publiko zein pribatua izaten dute. Hauetaz gain, ondarearen garrantzia eta norberaren ardura azpimarratzen duten formakuntza ikastaroak ere martxan jarri dira. Oro har, pizgarriak jasotzen dituzten aurrezki-kontuak izateko derrigorrezkoa izaten da hauetako ikastaroetan gutxieneko ordu batzuk ematea.

Jada aipatu bezala, AEBetan jarritako neurrien artean ezagunena IDA-rena da. Hauek welfare to work programetan eta soldata baxuak dituzten pertsonentzako pizgarriak dituzten aurrezki-kontuak dira (Weber eta Smith, 2001). Aurreztutako dolar bakoitzeko dolar erdia eta bi dolar arteko bonifikazioa lortzen da, programaren ezaugarrien arabera. Jaso daitekeen gehieneko dirua 100 eta 500 dolar artean kokatzen da (Schreiner, 2004: 7). IDA barruan diruaren kudeaketa egokia egiteko ikastaroak ere sartzen dira (Friedman eta Boshara, 2000). Kasu gehienetan IDA hauek onurarik gabeko erakundeek kudeatzen dituzte. Era berean, bonifikazioak izaera publiko zein pribatua izan dezake, bigarren kasuan, bankuak berak ordaintzen du eta ordainez karga fiskal baxuagoak jasaten ditu. Aurrezki-kontu hauetan sartzen den dirua soilik hezkuntza, etxebizitza erosi edo konpontzeko, formakuntza edota negozio bat martxan jartzeko erabili daiteke, beraz ezin da erabili kontsumoari loturiko ondasunen erosketan. Orain arte egindako lehen ebaluaketen arabera, aurrezki-kontu hauen bidez parte hartzaileek aurrezteko gaitasun handiagoa azaltzen dute (Stegman, 2003). IDA-z gain, Individual Retirement Accounts –IRA– izeneko aurrezki-kontuak ere martxan jarri dira. Kasu honetan erretiroa bermatzeko kontuak dira. Era berean, 2004. urtetik aurrera AEBetan jaio diren haurrentzako aurrezki kontuak ere sortu dira (Schreiner, 2004).

Asset-based welfare AEBetan jaio den arren, Kanada, Australia edota Suedia bezalako lurraldeetan ere honen barruan kokatzen diren hainbat neurri eraman dira aurrera (Reagan eta Paxton, 2001). Baina Erresuma Batuan izan du garapen handiena eredu honek, AEBetan baino gehiago oraindik. Horrela bada, Tony Blair-en gobernu laboristak maila honetan kokatzen diren bi neurri onartu zituen 2001. urtean. Alde batetik *Saving Gateway* eta bestetik *Child Trust Fund*.

Saving Gateway izeneko programa aurrezki kontuen bidez egiten da eta aurreztutako libra bakoitzeko aurrezki-kontu horren titularrak beste libra erdia jasotzen du ordainsari. Gehienez bost urteko iraupena izan dezakeen kontua da eta diru-sarrera eskasak dituzten familientzat zuzentzen da. Hilero gehienez 25 libretako pizgarria jaso daiteke kontu bakoitzean eta bost urteetan 1.000. IDA-tan bezala, baliabide ekonomikoek gain aurrezkien kudeaketa egokia egiteko ikastaorak ere badaude. *Child Trust Fund*-aren kasuan, jaiotako ume bakoitzak 250 libretako aurrezki-kontua jasotzen du, 500 diru-sarrera baxuko familia bat baldin bada. 7 urte betetzean beste diru-sarrera bat egiten du gobernuak haur horren kontuan. Guraso eta senideek ere ekarpenak egin ditzazkete aurrezki-kontuan Gobernuaren helburua ume bakoitzak 18 urte betetzean kontu horretan 5.000 eta 7.000 libra inguru izatea da, kontutik dirua ezin delarik atera umeak 18 urte bete arte. Kasu honetan, neurri hau ez da soilik behar gehien duten familientzat, izaera unibertsala du eta hein batean bada ere Espainiako gobernuak ematen dituen 2.500 euro jaiotako ume bakoitzeko neurriarekin antzekotasunak baditu, guxtienez lehenengo momentu batean bederen. 2007. urte erdialderarte *Child Trust Fund* barruan 3,3 milioi kontu irekita zeuden eta hauetarik irekita eta indarrean 765.000 inguru zeuden, hauen batez besteko kopurua 981 libretakoa zelarik (Cramer, 2007: 5).

Asset-based welfare-a gaur egun oraindik garatzeke dagoen eredu ia zaila da honen inguruko balorazio argirik egitea. Dena den, hainbat galdera sortzen dira aipatutako ezaugarriak kontuan harturik. Alde batetik, egin diren ebaluaketa apurren arabera, neurri hauen garrantzia ez da oso handia eta ez dute lortzen pobrezian dauden pertsonak egoera hori gainditzea. Horrela izanik, neurri honek familia pobreen egoera hobetzen nolabaiteko eragina sorrarazten duten arren neurri hauek, ezberdintasunaren murrizketan ez dute batere inpaktorik eragiten (Finlayson, 2009). Gainera Asset-based welfare-aren bidez pobrezia edota gizarte-bazterkeria ahalbidetzen duten egiturazko elementuei ez zaie aurre egiten. Zentzu honetan, ez du oso egokia ematen momentuan beharrak dituzten pertsonentzako epe ertain eta luzean eragina izango duten programak martxan jartzea. Bestetik, argi utzi beharko zen neurri hauek beste gizarte-politiken osagarri diren, ala gizarte-politika tradi-

zionalak ordezkatzeko bidea diren (Gamble eta Prabhakar, 2005), honen bidez ondasunari garrantzia emanez eta gizarte zerbitzuen hornidura pribatua bultzatuz. Honen harira, ezin da ahaztu Ongizate Estatuaren oinarrietako bat aberastasunaren berbanaketa dela eta Asset-based welfare-an oinarritutako politikak ongizate politika ezberdinak zuzenki ordezkatu izango balute Ongizate Estatuaren muina bera zalantzan jarriko litzateke ere.

2.5. Workfare-a al da jarraitu behar den bidea?

Kapitulu honen azken atalean, workfare ereduari egiten zaizkion kritika nagusienak aipatuko ditugu. Lehenengo zati batean arlo normatibo eta teorikoari loturiko eragozpenak aipatuko dira, ondoren emaitzak aztertuko dira eta hauen azterketa kritikoa egingo da.

2.5.1. Teoria mailan workfare ereduari egindako kritikak

Lehenik eta behin dependentziaren inguruko gaia aipatuko da. Workfare ereduaren defendatzaileentzat aurreko ongizate sistemak behartsuen dependentzia eta pobreziaren kultura bultzatzen zuen. Egia esateko, honen inguruko gogoeta egin baino lehen datuek baieztapen honi indarra ematen dioten ala ez ikusi beharko genuke. Izan ere, ez dago batere garbi prestazioek lan-merkaturatzea saihesten dutelaren tesia. OCDE-ren ikerketa baten arabera, enplegu bat lortzeko arazo gehien azaltzen dituzten kolektiboen egoera azaltzeko desmerkantilizazio mailak ez du gehiegi esaten. Eragin apur bat izan dezake, baina beste faktoreak dira honetan benetan eragiten dutenak, testuinguru ekonomikoa edota lurralde bakoitzaren ezaugarriak esaterako. Esping-Andersen-ek esaten duen bezala, lurralde eskandinabiarretan gizarte-prestazioak altuak dira eta honek ez du suposatzen desenplegu tasa handirik edota desenplegu egoeran daudenen iraupena handitu egiten denik. Italian, aldiz, kontrakoa pasatzen da, desenplegurako dirulaguntza urria da, dena den honek ez dio aurre egiten iraupen luzeko desenpleguari (Esping-Andersen, 2000).

Ildo berean, gizarte-prestazioek kronifikazioa eta nolabaiteko *parasitismoa* –*Underclass* Teoria– sortzen dutelaren argudioa datu ezberdinekin zalantzan jarri daiteke. 1969 eta 1978. urte bitartean AEBetan prestazioak jaso zituzten pertsona guztien %8,3k bost urtez baino gehiago jaso zituen eta soilik %2 izan zen epe oso horretan jaso zituenak (Duncan, 1984: 75). Workfare erreforma eman zen garaian behin eta berriz gizarte-prestazioetataz bizitzeko nahita haurdun gelditzen diren neska nerabeen adibidea aipatu zen. AFDC-aren onuradunen profilen

azterketa eginez ideia hau zalantzan jartzen da. Izan ere, jada adin bat zutenak dira nagusi, seme-alaba gutxi dituztenak, epe luzez prestazioa jasotzen ez dutenak eta gehienek prestazioa uzten zuten enplegu batengatik (Handler eta Hasenfeld, 1997; Handler, 2003). Era berean, AFDC-aren gastua desagertu baino lehen BPG-ren %1koa zen (Fox Piven, 1996). Hau guztia dela eta dependentziaren inguruko tesia guxtienez zalantzan jarri daiteke. Testuinguru honetan ere kokatzen da Ekonomia Nobel saria jaso duen Robert Solow ere, prestazioen onuradunen gehienek prestazio bat baino enplegu bat nahiago dutela azpimarratzen duenean (Solow, 1997).

Dependentziaren gaiarekin bukatzeko, workfare ereduaren defen-datzaileek behin eta berriz dependentzia mota bati buruz hitz egiten dute baina beste hainbat dependentzia ahaztu egiten dituzte. Zentzu honetan, Estatuarenganako dependentzia salatzen dute baina ez dute zalantzan jartzen senarrarekiko, senideekiko edota lan merkatuarekiko ematen dena. Ongizate Estatuaren sorreraren abiapuntuetako bat, zehazki, dependentzia hauei aurre egitea da, gizarte-politiken bidez norberaren autonomia, eta ez dependentzia, sustatu ahal izateko. Goodin-ek aipatzen duen adibide praktiko batek ideia hau ezin baino hobeto irudikatu dezake. AFDC-aren erreformaren ondorioz, ezkondegabe-ko ama adingabeok *ardura pertsonaleko aitortpena* izeneko agiria sinatu behar dute. Bertan, euren gurasoen etxean bizitzen jarraitzeko betebeharra onartu behar dute (Goodin, 2000). Hortaz, dependentziaren aitzakiarekin –Estatuarenganakoa– beste dependentzia bat susttzen ari da, gurasoenganakoa hain zuzen ere. Dependentzia mota baten aldeko hautua egiten da, bertan bi helburu nagusi agertzen direlarik. Alde batetik, balore eta etika baten alde egiten da; eta bestetik, dependentziaren argudioaren atzean gizarte gastua erabat murrizteko helburua ere ezkututzen da. Gastuari loturiko adibide bat jartzearren erreforma eta gero estatuak gizarte laguntzan erabiltzen duten diru kopurua %45n murriztu dela estimatzen da (Schott, 2009).

Workfare ereduaren beste ideia nagusienetako bat norberaren ardu-
ra bultzatzearena da, honen bidez lan-merkatuarengana eta gizarteratzea ahalbidegaitzeko, norberaren arduraren bidez enplegarritasun handiagoa lortzen baita. Norberaren ardurak eragin bat izan dezake horretan, formakuntzari dagokionez adibidez. Baina enplegua sortzeko eta lan-merkatuarengana errazteko faktoreak egitura mailan kokatzen diren aldagaien menpe daude nagusiki. Workfare programetan eman diren emaitzetan baieztapen hau berretsi baino ez da egiten. Horrela, egiturazko gabeziak ematen diren zoneetan, AEBetan zein Erresuma Batuan, formakuntza eta enplegua sortzeko programak jarri diren arren, emaitzako oso urriak izan dira. Zentzu honetan ezin dira ahaztu, gizarte ezberdin-

tasunek erabat zehazten dutela lan-merkaturatzeko aukerak. Hortaz, pertsona bakoitzak aukerak izango ditu bere autonomia eta proiektu bitala garatzeko, baina era berean bere testuinguruak bilakaera hau baldintzatuko ditu eta hauek ez daude norberaren esku (Byrne, 1999). Beraz, norberaren ardurari hainbesteko garrantzia emanez beste faktore batzuk ezkututzen ari dira eta gainera *erru* guztia pertsonari leporatzen zaio. Enplegarritasuna ezin da definitu soilik pertsonaren ezaugarri pertsonalen arabera, arlo sozialean zein estrukturalean kokatzen diren elementuak kontuan hartzea ezinbestekoa da ere (EAPN, 1998). Eta enplegarritasunari lotuta txanponaren beste alde dago enplegarritasun eza. Izan ere, enplegarritasun kontzeptua ondo egokitzen da traba eta oztopo pertsonal zein sozial gehiegirik ez dutenentzat. Baina arazo gehien duten pertsonentzako enpleguaren bidezko gizarteratzeak gabezia batzuk aurreikusten ditu. Era honetan, hobeto daudenentzako tresna egokia izan badaiteke, gutxienez zenbait kasutan. Gizarte-bazterkerian eta egoera txarrean daudenentzako, enplegarritasun kontzeptuak, aldiz, ez du ekarpen nabaririk egiten edo ez du halabarrez egin behar.

Azkenik, eta arlo normatiboarekin bukatzen joateko, workfare ereduak, gehienbat AEBetan joera moral jakin baten alde agertzen da eta bertan hartutako neurrietan bide hori era nabarian agertzen da zenbait kasutan. Horrela, hainbat gizarte-prestazio eskuratu ahal izateko portaera moral jakin bat eman behar da, maila pribatuan kokatzen diren elementuak arautzen direlarik honen bidez, ezkontza barruan seme-alabak edukitzea baldintza moduan aipatzen denean adibidez eta familia tradizionala hobesten denean beste errealitateen aurrean. Prestazioa jasotzea merezi eta merezi ez dutenen arteko bereizketa ematen da ere. Kasu batzutan ere prestazioa galtzearen mehatxuak ondorio ezkor nabariak bultzatzen dezake. Familia tradizional batean emakumeak tratatu txarrak jasaten baditu, esaterako, bi aldiz pentsatu beharko du etxea uztea ala ez. Honen harira ere, zenbait kasutan senarrarekiko dependentzia ekonomikoa bultzatu daiteke ezarritako baldintza moral hauek direla eta. Trafiko edota droga kontsumoagatik kondenatuta izan direnak estatu guztien heren batean ezin dute TANF-a jaso eta baldintza honengatik programa honetatik kanpo gelditzen direnak asko ez diren arren (GAO, 2005), honek argi uzten du baldintza eta betebeharrak hauen nondiknorakoak.

Guzti hauen bidez, nolabaiteko balio eta moral jakin bat defendatu eta bultzatzeko, familia tradizionala edota lanaren etika protestantean oinarritzen dira workfare-aren defendatzaileak (Handler eta Hasenfeld, 1997). Ezkondugabeko amen edota afroamerikarren kasuan elementu hauek agertzen dira. Are gehiago, pentsatzekoa da programa hauetan

mugapen hauen bidez kolektibo batzuen kanporaketa nahi edo gutxienez ahalbidetzen dela. Gainera, ezarritako baldintza hauen urraketa handiagoa ematen da gizarte-bazterkeria sakonagoa pairatzen dutenen artean. Hortaz, kolektiboa zuzenean kanporatzen ez bada ere, errealitatean egoera hau bultzatzen da zeharka bada ere. Zentzu honetan, oso adierazgarria da AFDC-a ematen zenean erabiltzaileen artean %90 emakumeak zirela eta afroamerikarren pisua ere garrantzitsua zela AEBetako gizarte laguntzan (Jencks, 1992).

Bikotea mantentzea edota ezkontzatik kanpo seme-alabak ez edukitzea bezalako baldintzekin batera, beste betebeharrak bat agertzen da, halaber erreformaren ardatza dena: enplegu baten betebeharra. Workfare ereduaren aldekoentzat betebeharrak honen bidez lanaren etika eta norberaren ardura gizartearen aurrean bultzatzen dira eta era berean lan-merkaturatze azkarra ahalbidetzen da. Lanaren eskubidetik lanaren betebeharrerako igaroaldia ematen da. Praktikan enplegu baten betebeharrak ez du emaitza oso onik lortu kohesioa bermatzerako momentuan eta askotan baldintza hau prestazioen onuradunen kontrol sozialerako tresnatzat erabiltzen dela ematen du. Horregatik hain zuzen ere, hurrengo azpiatalean workfare-an oinarritzen diren neurri ezberdinen emaitzak eta arrakasta aztertuko dira.

2.5.2. *Neurri ezberdinen ebaluazioa*

Lehen aipatu bezala, erreformaren lehenengo urteetan eta ia gaur egun arte enplegua sortu zen. Baina sortu den enpleguak ez du pobrezia-tasaren jaitsierarik suposatu, ez gutxienez ehuneko esanguratsuetan. Zentzu honetan, sortu den enplegua aztertu nahi bada ezin da soilik aspektu kuantitatiboetara mugatu eta zenbat enplegu sortu diren aipatu. Aspektu kualitatiboek ere garrantzia eman beharko litzaiokio workfare ereduaren kritikoen ustez eta beraz sortu den enpleguaren ezaugarriak eta kalitatea ere kontuan hartu beharko lirateke. Bigarren irizpide honi erreparatuta, hasieratik lortu diren emaitzak oso eskasak dira eta gehienetan enplegu bat sortzeak ez du bizi-baldintzetan hobekuntzarik suposatu (Primus, Rawlings, Larin eta Porter, 1999). Are gehiago, egile batzuen esanetan, zenbait kasutan lanaldi osoko enplegu bat duten hainbat familien egoera okerrera jo du eta lehen prestazioaren bidez lortzen zuten diru kopurua baino soldata baxuagoa jasotzen dute orain (Michalopoulos eta Berlin, 2001).

TANF-a uztea eta enplegu bat lortzeak pobreziatik ateratze ez dakarrelaren adibide deigarria aipatzen dute Lichter eta Jayakodi (2002): 1994. eta 1999. urte tartean emakume bat nagusi den famili pobreen %22aren jaitsiera eman da. TANF programa utzi duten familia mota

hau, aldiz, %48koa izan da. Beste era batera izanda, prestazio bat jasozten zuten asko enplegu bat izatera pasa dira, baina honek ez du pobrezia uztea suposatu eta working poors edota langile pobreak izatera pasa dira (Waddan, 2003). Horrela, hauetako askok jada ez dute TANF jasozten baina beste diru-laguntza batzuk jaso behar dituzte. Beraz, TANF-a barruan kokatzen diren pertsona askok enplegu bat bilatu eta topatzen dute baina oso soldata baxuak izaten dituzten enpleguak izaten dira (Solow, 1997; Brauner eta Loprest, 1999; Peterson, Song eta Jones-De Weever, 2002). Horrela bada, working poors-en hazkundera nabaria izaten ari da azken hamarkada honetan AEB zein Erresuma Batuan (Kildal, 2000; Jessop, 2003) eta workfare-an oinarritzen diren neurriak ez dira zentzu honetan batere arrakastatsuak ez baitute fenomeno honi aurre egiten jakin. Are gehiago, zenbaitetan bultzatu egiten dutela esatera ailegatu gaitzke.

Pobreziaren mantenuaren inguruko datu batzuk esanguratsuak dira oso: New Jersey-n familia guztien %16a pobreziaren-mugaren erditik baino beherago kokatzen zen 2003. urtean –muturreko pobrezia–. Wisconsin, ehuneko hau %14koa da eta Washington-en %20koa (Cancian, Klawiter, Meyer, Rangarajan, Wallace eta Wood, 2003: 7-8). Erreforma eta gero onuradunen artean osasuna aseguruia zutenen kopurua %14koa zen, erreforma baino lehen %21koa zenean (Peterson, Song eta Jones-De Weever, 2002: 2).

Esan bezala, enplegua sortu da baina ez pobreziaren murrizketarik. Baina benetan enpleguaren sorrera honetan TANF-a edota New Deal-a bezalako programek hainbesteko eraginik izan al dute? Datuek esaten dutenaren arabera ideia hau baldintzatuta geratzen da eta honen eragina nahiko baxua dela azpimarratzen dute egile ezberdinek (Crisp eta Roy, 2008; Huber, Lechner, Wunsch eta Walter, 2009). Pentsatzekoa da betebeharrak honek pizgarri moduan funtzionatu izan dela baina lurralde hauetan emandako erreformak denboran bat egin du hazkunde ekonomiko handiko garai batean eta beraz krisi garaian neurri hauen emaitzak aztertzea oso interesgarria izan daiteke benetan programen eraginaren zenbatekoa neurtzeko eta testuinguru ekonomikoarena zenbatekoa ere kontuan hartzeko (Walker, 1999; Orloff, 2002). Hortaz, benetan prestazioen onuradunen kopuruaren jaitsiera ulertzeko TANF-a baino hazkunde ekonomikoa, soldata baxuetan oinarritutako lan merkaturak edota lan-merkaturatzeko pizgarriak bezalako elementuak kontuan hartu beharko lirarteke (Parrot eta Sherman, 2006). Honen harira, egile batzuk ematen dituzten datuen arabera 2001. urterarte lan-merkaturatzea sustatu eta pobrezia murriztu bazen ere, urte horretatik aurrera bi aldagai hauek egonkor mantendu dira (Lower-Basch, 2009).

Orain ematen den krisi ekonomikoko garaia benetan bidegurutze bat da workfare-an oinarritutako neurrientzat. Azken datuek oraindik krisi ekonomikokoaren ondorioak erraz erakusten ez dituzten arren, azken hila-betetan TANF onuradunen kopurua hazi da (Lower-Basch, 2009). Dena den, krisiaren eragin zuzena Food Stamp programan ikusi daiteke, 2008. urtean 38,8 milioi pertsona inguru jasotzen zutelarik AEBetan. Horrela bada, krisia dela eta, 2009. urtean onartutako American Recovery and Reinvestment Act-aren bidez, izaera mugatua duen TANF berria onartu da, 2009 eta 2010. urteko premiazko beharrei aurre egiteko. Onuradunen hazkunde honek suposatzen duen gastuari aurre egiteko gobernu federalak bere baliabideak %80n handitu ditu (Schott, 2009b: 1).

Lehen aipatu bezala, pobrezia tasak ez dira ia murriztu eta murriztu badira oso gutxi izan dira. Gainera murrizketa txiki horien jatorria bilatzeko egile askok defendatzen dute New Deal edo TANF bezalako neurrien eragina oso urria dela eta pobrezia-tasen jaitsiera bat eman bada gehienbat familia langileentzako martxan jarri diren txeke fiskalei esker –EITC, WTC– izan dela (Meyer eta Rosenbaum, 2000). Hori dela eta, gero eta lurralde gehiagotan martxan jartzen ari dira antzekoak diren neurriak (Haveman eta Wolfe, 2000). Kanada, Belgika edota Holandan, adibidez, enplegua sustatzeko neurri fiskalak hartu dira. Zenbait lurraldeetan ere, prestazioekin lotura duten pizgarri fiskalak ere martxan jarri dira. Azken talde honetan sartzen dira Revenu Minimum d’Insertion desagertu arte Frantzian ematen zen Prime a l’Emploi (Erhel eta Zadjela, 2004) edota EAEn bertan gaur egun ematen diren enplegurako pizgarriak. Gure kasuan, pizgarri hauen bidez Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duen pertsona batek denbora jakin batez enplegua eta prestazioaren bidezko diru-sarrerak tartekatu ditzazke, eta lehenengoaren bidez lortzen duenaren zati bat soilik kontuan hartuko da prestazioaren zenbatekoa zehazterako momentuan. Horrela, enplegu bat lortzea eta bilatzea erakargarria bihurtzen da eta *pobrezia*ren *tranpa* gainditu egiten da. Frantzian 2009. urtean prestazio asistentzialetan emandako erreforman ere, Revenu de Solidarité Active izeneko programan, oso nabaria da lurralde anglosaxoietan irekitako bide hori jarraitu egiten dela.

Guzti honek zalantzan jartzen du workfare ereduaren zenbait emaitza eta eredu honen arrakasta. Alde batetik, emaitzen jatorria ez dagoelako zuzenki lotuta ongizatean emandako erreforma honekin, edo ez gutxienez TANF edo New Deal bezalako neurri nagusienei. Bestetik, bakarrik alde onak azpimarratzen direlako eta hain erakargarriak ez diren beste ondorioak itzalpean ezkutatzen direlarik. Zentzu honetan, behin eta berriz lan-merkataturatzean eman diren lorpenak azpimarratzen

dira, baina ez arlo honetan ematen diren gabeziak. Horrela, programa hauek enplegarritasun ona ahalbidetzen dute arazo eta traba gutxi dituzten kolektiboekin, baina arazo gehiago dituztenekin lortzen den enplegarritasun tasa ez da hain ona (Crisp eta Roy, 2008). Honen harira ezin da ahaztu TANF programaren barruan kokatzen direnen artean %75k gutxienez trabaren bat duela enplegu bat lortzeko: formakuntza eskasa, familia ardurak, gaixotasun mentalak, etab. (Danziger, Corcoran, Danziger eta Heflin, 2000). Horrela bada, TANF jasotzen duten eta lan-merkaturatzeko arazorik ez dutenen artean erdiak enplegu bat lortzen duen bitartean, zenbateko hau %14ra jeisten da trabak dituztenen artean (Zedlewski, 2002: 1). Zentzu berean, TANF programaren barruan denbora luze bat daramaten onuradunek ere traba gehiago erakusten dituzte lan-merkaturatzeko helburu honetan.

Hortaz, argi gelditzen da onuradunen profilek hein handi batean programaren arrakasta baldintzatzen dutela eta hau programa ezberdinen emaitzetan argi agertzen da. Kaliforniako Riverside edota Oregongo Portland programetan, arrakastatsuenen artean kokatzen diren bi programa, onuradunen profila oso esanguratsua da. Bi programa hauek onuradunak beste batzutan baino helduagoak dira, txurien ehunekoak besteetan baino handiagoak da eta gizonezkoen kopurua ere handiagoak da (Walker, Greenberg, Ashworth eta Cebulla, 2003). Erresuma Batuan ere emaitza hoberenak gazteekin eman dira, epe luzeko langabetuak baino enplegarritasun maila handiagoak duen kolektiboa izanik. Ezin da ahaztu 18 eta 21 urte dituztenen kasuan gutxieneko soldata baxuagoa dela eta elementu honek euren lan-merkaturatzea erraz dezakeela, beste kolektiboen kalterako. Workfare-aren defendatzaileentzat soldata baxuago honen bidez lehenengo lan-merkaturatze bat ahalbidetzen da gero lan merkaturatze aurrera egin ahal izateko eta soldata altuagoak lortzeko, lehenengo gutxieneko soldata honek tranpolin gisa jolastuko lukeelarik. Dena den, datuen arabera goranzkorra den bilakaera hori gutxitan ematen da eta soldata baxuak gehienetan elementu iraunkor bilakatzen dira (OECD, 2007), tranpolin bat bezala jokatzen baino, *ate girakari* baten itxura gehiago izanik. Datu guzti hauek ondorio argi batera garamatxate. Workfare-k arazo gutxien dituztenen lan-merkaturatzea bideratzen du, baina ez du emaitza berdinak lortzen behar gehien dituztenekin (Dean, 2003; Autor eta Houseman, 2005).

Enplegua lehen bai lehen bilatzen duten programei lehentasuna ematen ari zaie –work first programs–. Hauek emaitzak lortzen dituzte epe motzari begira, baina hurrengo urteetan eragina galtzen dute eta 3 edo 4 urte pasa eta gero eragin hau nabariezina izaten da, onuradunek gizarte-zaurgarritasun egoeran aurkitzen direlarik berriz ere. Errealitate hau dela eta, askotan workfare-an oinarritutako programak uzten

dituen pertsona batek azkar bueltatzen da prestazioa berriz jasotzera (Theodore eta Peck, 2000; Daguerre eta Etherington, 2009). Testuinguru honetan formakuntzan oinarritutako programak alde batera utzi dira, sarritan hauek izanik egokienak behar gehien dituzten eta enplegarritasun maila baxua dutenentzat. Bigarren programa mota hauetan emaitzak ez dira bapatekoak izaten, baina gizarteratze ibilbide egoki baten bidez pertsonak izan ditzazkeen aukerak handitu egiten dira. Zentzu honetan, hainbat ikerketek aipatzen dutenaren arabera (Dean, 2003), gizarteratzea ahalbidetzeko, lanaren bidezko gizarteratzea ere, aspektu sozialak ere, landu behar da.

Bati ematen zaion lehenetasuna –enplegua lortu– eta bestea bigarren mailan gelditzea –formakuntza– ez da kasualitatea. Programen finantziarioa lan-merkaturatze azkarraren menpe dago, beraz lehen bai lehen enplegua lortzen bada baliabideak handitu egiten dira. Datu hau kontuan harturik ez da harrizkoa enplegu bulegoek arreta gehiago jartzea enplegarritasun-maila handiagoa duten pertsonengan, horrela baliabide gehiago bermatzen baitira. Era honetan, zenbait kasutan enplegu bat lortzeko oztopo gehienak dituztenak arreta gutxiago jasotzen dute. Halaber, nahiko errealitate paradoxikoa ematen da: laguntza gehien jasotzen dutenak laguntza gutxiago behar dutenak dira; eta alderantziz, laguntza gehien beharko luketenak dira laguntza gutxien jasotzen dutenak.

Baina jada aipatu bezala, pertsonaren ahalmenek ez dute bakarrik programa hauen arrakasta zehazten. Horretaz gain, egitura mailan kokatzen diren faktoreak ere badaude. Hauen artean eremu geografikoa baldintzatzaile nagusia da. Horrela, garapen ekonomiko handiko zoneetan programa hauek emaitza hobeagoak lortzen dituzten lan-merkaturatzearen helburu horretan. Arazo ekonomikoak dituzten lekuetan, aldiz, emaitzak ez dira hain onak. Ingalaterra iparraldean edota Eskoziako zenbait zonek azaltzen duten egitura eta desenplegu mailak egoera honen hizpide dira.

Enplegu bat epe motzean ahal den eta azkarren eta gastuak murriztearen aldeko apustu honek enplegurako bulego pribatuen agerpena ahalbidetu du AEBetan. Pentsatu daitekeenez, enpresa hauen helburua onura ekonomikoa lortzea da, hortaz enplegarritasun maila handiena erakusten duten onuradunekin lan egitea nahiago izaten dute (Handler, 2005). Era berean, programa merkeen alde egiten dute era nabari batean (Considine, 2000). Eta aipatutako ondorioak kasu honetan ere oso adierazgarriak dira. Enpresa pribatu hauek kudeatzen duten programetan enplegua dutenei 8,25 dolar orduko ordaindu egiten zaie, kontratu guztien %9,8k soilik zuen osasun aseguru eta %43a zeraman enplegu horretan urte bat baino gehiago. Lan merkatu osoaren datu

berdinei erreparatuz ezberdintasuna handiak dira. Ordu bakoitzeko 11,4 dolar ordaintzen ziren batez beste, kontratuen %62,5k osasun aseguruia zuen eta %81,6 urte bat baino gehiago zeraman enplegu berean (Corcoran eta Chen, 2004). Gainera eskaintzen diren zerbitzu hauetan behin baino gehiagotan gabeziak antzeman dira, irregularitasunak eta zenbaitetan praktika diskriminatzaileak (Berk, 2001). Erresuma Batuko kasuan ere, hain era nabarian ez bada ere, tendentzia hau jarraitzen ari da. New Deal programan parte hartzen duten gazteen %25k enpleguan 13 aste baino gutxiago egoten da (Driver, 2000). Kasu hauetan pentsatzekoa da lan-merkaturatze labor honen ondoren berriz prestazioa jaso beharko duela gazteak.

Kolektiboei dagokienez, AEBetan erreforma gehien sufritzen ari dutenak TANF-aren onuradun emakumezkoak dira –guztien %90 inguru–. Horrela seme-alabak dituzten emakume gehienak erreformaren ostean enplegu bat lortzera behartuta egoten dira prestazioa jasotzen jarraitu ahal izateko. Lege mailan, soilik 3 urte azpiko seme-alabak dituzten emakumeak gelditzen dira betebeharrak honetatik kanpo. Pentsa daitekeenez, baldintza honek arazo handiak sortzen ditu, gehienetan umeen zainketa bigarren maila batera pasa behar delarik enplegua lortu eta mantendu ahal izateko. Zenbait kasutan errealtate honek ondorio psikologikoak izaten ditu emakume hauengan (Dean, 2002). Honen ondorioz, emakume hauen *stressa* izugarri hazten da baina era berean umeen zainketa gabeziak ematen ari dira. Honen adibide nahiko nabaria Michael Moore-n *Bowling for Columbine* dokumentalean agertzen da. Pasarte batean klaseko kide bat tirokatu duen sei urte dituen mutiko baten historia kontatzen da. Ume honen amak Michigan-eko workfare programa batean lan egiten du eta egunero 130 kilometro egin behar ditu bi enplegu ezberdinetara joan ahal izateko, astean zehar 70 ordu lan egiten dituela eta orduko 5,50 dolar jasotzen dituelarik. Emakume hau –ezkondugabeko ama beltza– goizetik atera eta etxera ailegaten zen bere seme-alabak jada ohean zeudenean. Bi enplegu izateaz gain, etxerik gabe zegoen eta euren seme-alabak anai batek zaintzen zituen, honen etxean topatu zuen umeak pistola. Adibide honek argi erakusten du TANF programaren barruan zenbait emakumeek pairatzen duten errealtatea. Gertaera hau eman zen herriko Sheriff-ak galdera deigarri bat egiten du dokumentalean bertan: Zertan laguntzen dio eredu honek komunitateari? Ze onura eskaintzen dizkio estatuari?

Programen kudeaketa agertzen den beste arazoetako bat zigorrena da. Lehenik eta behin, oro har oztopo gehien dituzten pertsonak dira zigor gehien jasotzen dituztenak programa ezberdinetan (Hamilton, 2002, Handler, 2006). Horretaz gain, ezin da ahaztu bost urteko muga ezartzen dela eta beraz lehenago edo beranduago programatik kanpo-

ratuak izateko mehatxua handia dela. Hasierako urteetan jada baldintza hauek izandako ondorio batzuk detektatu ziren. Horrela, 2001. urtean TANF programatik kanporatutako pertsonen artean %40a genero indarkeria pairatutakoa zen (Hasenfeld, Ghose eta Hilleslana-Larson, 2001). Orain arten zigorren eta kanporaketen inguruko datu fidagarri askorik ez dugu izan, erreforma orain dela 15 urte martxan jarri zelako eta askotan bost urteko epea ez delako gainditu. Horrela, 1998. urtean egindako ikerketa baten arabera, onuradunen %4,5 -135.000 familia- zigorren bat bazuen programaren barruan eta 16.000 kanporatuta zeuden jada (Handler, 2003). Krisia dela eta kopuru hau handitu egin da (Schott, 2009) eta hurrengo urteetan kopuru hauek handitu egingo direla pentsa dezakegu. Testuinguru honetan administrazioek ze erabaki hartzen duten garrantzitsua izango da, legeak gaur egun dauden bezala mantentzen badira jende askok gizarte-prestazioen sistematik kanpo gelditzeko arrisku larrian egongo baita. Adibide bat aipatzearren, 2004. urtean jada langabezia eta inongo prestazio publikorik jasotzen ez zuten ezkontugabeko amak milioi inguru ziren, euren kargu bi milioi adingabeko inguru zeudelarik (Parrot eta Sherman, 2006: 16). Egile batzuen arabera, zigorrek ez dute onuradunen portaera aldatu. Are gehiago, zenbaitentzat enplegu bulego batzuek zigorrak neurrigabe erabiltzen ari dituzte, era irregularrean ere, honen bidez-enplegu bat bilatzeko arazo gehien dituztenak programatik kanpo gelditzeko eta horrela emaitza hobeto lortzeko eta baliabide gehiago eskuratu ahal izateko (Handler, 2003).

AEBetako TANF programak azaltzen duen beste gabezia bat, izenak berak esaten duen bezala, soilik seme-alabak dituzten familietara zuzentzen dela da, beste kolektibo mota ezberdinak kanpo gelditzen direlarik. AEBetan pobrezia-aren muga azpitik dauden erdia eta herenaren artean ez du prestaziorik jasotzen, programetan zigortuak izan direlako edota ezartzen diren baldintza ezberdinak ez dituztelako betetzen (Tickmayer, Henderson, White eta Tadlock, 2000; Zedlewski, Nelson, Edin, Koball, Pomper eta Roberts, 2003).

Kritika guzti hauek eta datuak ikusirik pobrezia-ari aurre egiteko tresna guztiz egokia ez dela onartuz, Waste-k erreforma egin baino lehen gaur egun arte dirauen galdera bat egin zuen: "Workfare pobrezia-ari aurre egiteko jaiotzen da ala pobreei aurre egiteko" (Waste, 1995: 56). Izan ere, prestazioen onuradunen kopurua asko jaitsi da eta programe-
tan ematen den iraupena ere laburragoa da, baina honek ez du esan nahi pobrezia-ari era egokiagoan aurre egiten ari zaionik. Hortaz, gizarte arloan erabiltzen den dirua asko murriztu da, erreformaren helburu nagusienetarikoa izanik, baina gizarte-bazterkeriaren borrokan TANF bezalako programak ez du ondorio onik ekarri. Horrela bada, pobrezia-

ren-muga azpitik kokatzen ziren estatubatuarrak %11,3 ziren -31 milioi pertsona inguru- (Handler, 2003: 231) eta 2003. urtean 6 urte azpiko ume pobreen ehunekoak %20koa zen (Autor eta Houseman, 2005: 1). Azken urteetan datu hauek hobera ez dute egin. Are gehiago, 2010. urtean, 36,5 milioi pertsona zeuden pobrezia-aren muga azpitik -%12,3- eta 47 milioi inguru -Obamaren erreforma eman eta aplikatu baino lehen- osasuna aseguratuz ez zuten. Beraz, 15 urteko erreforma eman eta gero pobre gehiago daude AEBetan, eta hazkunde ekonomiko handiko fasea ez da baliogarria izan pobrezia-tasa murrizteko, are gutxiago momentu hauetan ematen den krisi ekonomiko garaian.

3. Kapituluua: aktibazioa eta enplegurako politika aktiboak

3.1. Zer da aktibazioa?

Liburu honen lehenengo kapituluuan azaldu denez, lurralde eskandinabiarretan zein Europar Batasunean aktibazioaren estrategiak garrantzia hartu du. Honen arabera, langabetuen edota gizarte-zaugarritasun egoeran dauden pertsonen aktibazioa bultzatu behar da enpleguaren bidezko gizarteratzea errazteko eta *enplegu osoaren* bidez gizarte integrazioa bermatu ahal izateko. Baina eredu honen inguruko ezaugarri nagusiak azaldu baino lehen, aktibazioa kontzeptuan sakontzea eta honen oinarriko elementuak aipatzea interesgarria izan daiteke.

Aipatu beharreko lehenengo gauza aktibazioaren definizio bakarra ez dela ematen da. Halaber, aktibazioari buruz hitz egiten denean nork hitz egiten duenaren arabera gauza bat da edo beste bat ulertzen da. Adostasun orokor bat ez dagoenez aktibazio kontzeptuak errealitatea, esanahi eta ondorio ezberdinei egiten die erreferentzia (Geldof, 1999; Fina, 2001; Larsen, 2001; Keskitalo, 2005). Horrela bada, egile batzuk aktibazioa *continuum* bat bezala ulertzen dute, mutur batean workfare anglosaxoiarra kokatzen delarik eta beste muturrean eredu europarra (Barbier, 2001, 2004; Larsen, 2001; Clasen eta Clegg, 2003). Beste batzuk, aldiz, aktibazio hitza bakarrik erabiltzen dute bigarren ereduari buruz hitz egiteko. Pobrezia eta Giza Bazterketaren Aurkako Sarea –EAPN ingelesezko hizkietan– azken iritzi honen Aldekoa da bereizketa argia egiten duelarik workfare eta aktibazioaren artean (EAPN, 2005). OECD-ren arabera “aktibazioaren esentzia enplegu bat bilatzen ari duten pertsonen era aktiboagoan egin dezatela eta enplegu bat lortzeko edo daukatena hobetzeko ahalegin handiagoa egin dezatela izango zen” (OECD, 2007: 208). Liburu honetan zehar workfare eredu aktibazio kontzeptutik at gelditzen den eredu bezala landuko da.

Hala ere hau ez da aktibazioaren mugak zehazteko aurki dezakegun oztopo bacará, kontzepturaren baitan bi ikuspegi ezberdin topa daitezke (Geldof, 1999; Hvinden, 1999). Lehehengo esanahiaren arabera, aktibazioa Enplegurako Politika Aktiboen –Active Labour Market Policies, EPA hemendik aurrera– bidez ematen den lan-txertaketa izango zen nagusiki. Hauxe da gaur egun nagusi den definizioa eta erakunde zein administrazio gehienek darabiltena. Bigarrenaren kasuan, aldiz, aktibazioa izaera askotariko prozesu konplexua bezala ulertzen da, bertan lan-txertaketa elementu garrantzitsua izaten delarik, baina ez bakarra eta ezta ere nahikoa gizarteratzea posible egiteko.

Lehenengo definioarentzat EPA-k dira aktibazioaren oinarria, hauen inguruko definizio ezberdinak topa ditzazkegularik. Alujasen arabera, eta definizio orokorra izanik, EPA-k “langabetuak direnen enplegarritasun maila hobetzeko neurriak izango lirateke” (Alujas, 2003: 16). Definizio hauekin jarraituz, Van Aerschoot-entzat “gizarte-prestazioak jasotzen dutenen pertsonen integrazioa eta lan-txertaketa hobetzeko bidea da aktibazioa” (Van Aerschoot, 2003: 1). Azken definizio bat ematearren, Euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordearen –CES– arabera EPA-en bidez “langabezia daudenen baldintzak hobetu nahi dira lanpostu bat lortu dezaten edota jada ematen diren lanpostuen kalitatea hobetzeko. Besteak beste, formakuntza, enpleguaren sustapena, lan malgutasuna, aholkularitza edota lan bitartekaritza sartzen dira neurri hauen artean (CES, 2004: 15). Definizio hauetan ikusi daitekeen moduan, hainbat elementu errepikatu egiten dira guztietan. Hala nola, lan merkatuan txertatzearen garrantzia, langabetuen ahalmena eta enplegarritasunaren hobekuntza edota langabetuen gainean jartzen den arreta berezia.

Bigarren ikuspegiaren arabera, aldiz, aktibazioa ez da EPA-etara mugatu behar eta bertan gizarte langintzak eta gizarte-bazterkeriaren aurkako lanak lehentasuna izan behar dute. Honen harira, gizarteratzea ez zen soilik eta bakarrik enplegarritasunaren bidez lortuko, baizik eta gabezia sozial, kultural edota ekonomikoei aurre eginez bultzatzen den prozesu konplexuaren bidez. Hortaz, enplegarritasuna gizarteratzea lortzeko bitarteko bat izan daiteke baina ez berez helburu bat. Horregatik, EPA kontzeptua erabiltzea baino aktibazioa zentzu zabalean erabiltzea hobesten da gerturapen honetan, lehenengoek aktibazio zati bati erreferentzia egiten bait diote soilik baina ez kontzeptu osoari. Laburbilduz, aktibazioa ezin da mugatu lan merkatuan parte hartzera, gizarte parte hartzearen sustapena edota norbanakoaren autoestima edota ahalmenak kontuan hartu behar dira ere. Zentzu honetan, ez da kasualitatea EPA-ek garrantzia hartu arte, aktibazioa hitza gehienbat gizarte langintza komunitarioan, osasunaren sustapenean edota terapia okupazionalan erabiltzen zela (Hvinden, 1999: 27).

Ikuspegi honetatik, EPAk norbanakoaren kompetentziak, trebetasuna, sozializazioa edota osasuna hobetzeko beste hainbat neurriekin konbinatu behar dira (EAPN, 2005). Testuinguru honetan kokatzen da esaterako, Hanesch-ek EPA-ei buruz egiten duen definizioa: "hainbat neurri edota politika izango lirateke, gizarte-prestazioak jasotzen dituzten eta langabezian dauden pertsonak lan-merkatutzeko eta hauen gizarteratze ekonomiko zein soziala hobetzeko" (Hanesch, 2001: 4; Hanesch eta Balzter, 2001: 3). Definizio honetan aipatu dugun aktibazioaren lehenengo esanahia abiapuntutzat hartzen den arren, gizarteratze ekonomiko zein sozialek duten garrantzia ere azpimarratzen da. Holandan, adibidez, bertan egindako hainbat programetan bigarren ikuspegi honi ematen zaio garrantzia eta argi uzten da aktibazioa ez dela ulertzen soilik lan merkatuari lotuta baizik eta hainbat elementu sozialekin elkar harremandurik. Programa hauetan, gizarte langintzaren bidez enplegu bat lortu baino lehen, lehentasuna eman zaio hezkuntza edota familiei laguntzeko neurri ezberdinei. Horregatik, programa hauen deskribapena egiten denean aktibazioari *sozial* hitza gehitzen zaio –aktibazio soziala– (Nicaise eta Meinema, 2004), honen bidez ondo bereizteko. Ildo honetan ere, Hirugarren Sektoreko Gobernuz Kanpoko Erakundeen Europar Plataformak *gizarteratze aktiboari* buruz hitz egiten du lan arloa baino haratago doan aktibazioari buruz hitz egiterako momentuan. Ikuspuntu honetatik, helburua ez da –edo ez bereziki– enplegu bat lortzea, baizik eta pertsonen duintasuna bermatzea. Enpleguak zenbaitetan gutxieneko duintasun hori ahalbidetu egingo du, baina ez beste batzutan, zenbait kolektiboentzako gutxienez (Social Platform, 2006).

Eztabaida hau europar mailan oraindik dirauen gaia da eta ikuspegi ezberdinak daude honen inguruan (EAPN, 2005; Keskitalo, 2005). Dena den, eragile gehienen ustez aktibazioa ez da bakarrik lan-merkatutzeko, beste hainbat elementu ere badauzka bere barnean, Europar Batzordeak berak honen iritzia azaldu du ere (Europar Batzordea, 2000, 2006). Beraz, enpleguari ematen zaion garrantziaren inguruan kokatzen da eztabaida eta ikuspuntu batentzat enplegua ardatza izan behar den bitartean bestearentzat enplegua beste faktore batzuekin harremandurik agertzen zaigu. Ikusten denez, akibazioaren definizioa hein handi batean aspektu ideologiko zein instituzionaletara loturik agertzen zaigu (Elm, 2005). Azken urteetan enplegua azpimarratzen duen ikuspuntua gailentzen ari dela azpimarratu daiteke. Horregatik, hain zuzen ere, kapitulu honetan zehar, eta jada aipaturiko zehaztapenak egin ondoren, ikuspegi horri emango zaio garrantzia, beraz Enplegurako Politika Aktiboan azterketa sakona egingo da hurrengo lerroetan zehar.

3.2. Epa mota ezberdinak eta hauen ezaugarriak

Atal honetan EPA-k azaltzen dituzten ezaugarri, helburu eta motak landuko dira. Politika mota hauek –izenak berak aipatzen duen bezala– ohiko enplegurako politika pasiboak gainditu eta hobetzeko jaio egiten dira, azken hauek gaur egun ere nagusi dira lurralde gehienetan lan merkatuari zuzendutako politikei dagokienez. Enplegurako politika pasiboen helburua langabezia egoeran edota aurre jubilatuta daudentzako gutxieneko errenta batzuk bermatzea izaten da. Hortaz, EPA-k aurreko neurri horiek optimizatzeke sortzen dira (Eichhorst eta Konle-Seidl, 2008) eta azken urteetan lan merkatuak izan dituen aldaketetara egokitzeko tresnatzat jotzen dira. Era berean, administrazioa eta langabezian dagoen pertsonaren artean hitzarmen papera hartzen dute, honen bidez prestazioa jasotzen duenak EPA-k egitera behartuta egoten bait da. Kontzeptuarekin jarraituz ezin da alde batera utzi hitz batek edo beste batek esanahi oso ezberdina azaltzen dutela. Zentzu horretan, pasibotasuna eta estatikotasunaren aurrean EPA-ek esanahi positiboa erakusten dute. Rehn-entzat politika pasiboetatik aktiboetara egin den igaraldia “desenpleguan oinarritutako politika batetik enplegura zuzendutakora” (Rehn, 1989: 33) egin den igaraldia bezala ere ulertu daiteke. Dena den, ezin dugu ahaztu batzutan bi politika mota hauek elkarrekin agertzen direla eta beste zenbaitetan zaila izaten dela bata edo bestearen arteko mugak era nabari batean marraztea.

EPA-en helburuei dagokienez, eta enplegurako politika pasiboak gainditzeko nahi hori alde batera utziz, hainbat aipatu daitezke. Jessop-entzat, adibidez, lau elementu azpimarratu daitezke EPA-ren inguruan hitz egiten denean (Jessop, 2002: 155-156):

1. Lan merkatuaren malgutasunean sakondu.
2. Testuinguru post-fordista eta jada enplegua biritza osorako izaten ez den momentu batean langileen enplegarritasunari garrantzia eman.
3. Izaera nazionaleko programen aurrean maila lokalekoei garrantzia eman.
4. Langileak ezagutzaren gizartera gerturatu, horretarako formakuntzan oinarritutako neurriei lehentasuna eman.

Ruesgak, eta akaso ikuspegi baikorrako batetik abiatuta, bost helburu nagusi aipatzen ditu (Ruesga, 2002: 187):

1. Merkatuaren gardentasuna handitu.
2. Enpleguaren egonkortasuna bultzatu.
3. Giza harremanak optimizatu.

4. Enplegua sortu eta honen banaketa ahalbidetu.
5. Egoera txarrean dauden kolektiboei laguntzea, lan-merkaturatzeko duten ahalmenak hobetuz.

Bi sailkapen hauetan elementu ezberdinei arreta jartzen zaien arren, bietan hainbat ideia komun agertzen dira, hala nola, egiturazko aldaketek aurre egiteko eman behar diren aldaketak edota lan-merkaturatzea ahalbidetzeko neurriak, hauen bidez desenpleguari eta honen ondorioei aurre egiteko. Zehazki, helburu hauek EPA-en bidez bideratu eta kudeatu egiten dira. Era berean, eta hainbat egile aipatzen duten bezala, EPA-ek ez dute bilatzen, workfare eredian bezala, edozein enplegu mota lortzea. Hortaz, formakuntza edota diru-laguntzak sostengatutako enpleguen bidez ahal den eta lan-merkaturatze egonkor eta iraunkorrena bilatzen da, honen bidez enplegu bat duten eta pobreak diren pertsonen fenomenoak ekidin nahi delarik –working poors–. Laburbilduz, EPA-en helburua langabetuen trebetasunak eta ahalmenak hobetzea da hauen lan-merkaturatzea hobetu eta errazteko.

2. Taula. EPA motak

FORMAKUNTZA	ENPLEGUAREN SUSTAPENA	ENPLEGU ETA AHOLKULARITZARAKO ZERBITZUAK
Eskola uztea eragozteko eta gutxieneko hezkuntza izateko programak.	Gizarte izaera duten ekimen enpresarialak.	Enplegu bilaketan aholkularitza.
Behar profesionalen zehaztapena eta eskaera.	Kontrataziorako diru-laguntzak.	Enplegurako zerbitzu publiko zein pribatu.
Formakuntzaren errekonozimenduak (merituak eta zihurtagiriak).	Enplegurako toki-ekimenak.	Aldi baterako enplegua lortzeko enpresak.
Formakuntza eta enpleguaren arteko harremana sustatu.	Kontratazio mota berrien garapena.	
	Enplegua sortu zuzenean, administrazioa zein hirugarren sektoreko erakundeen bidez.	
	Gazteak, ezintasuna dutenak edota beste kolektibo jakin batzuk kontratatzeko erraztasunak.	
	Enpleguaren banaketa.	

Iturria: Ruesga (2002: 188).

EPA mota ezberdinei dagokienez, sailkapen bakarra ez da ematen eta honek batzutan hauen azterketa korapilatu egiten du. Ditch eta Roberts-entzat, adibidez, bi kategoria ezberdin bereiztu beharko lirateke: Alde batetik langabetuen enplegarritasuna hobetzeko eta enplegu bat lortzeko zuzentzen diren neurriak; eta bestetik, langabetuari zuzenean eskaintzen zaion enplegua, babestutako lanpostuen bidez edota arlo fiskalean kokatzen diren diru-laguntzen bidez (Ditch eta Roberts, 2002: 28). Bide honetan ere, Ruesgak hiru kategoria ezberdinei buruz hitz egiten du: formakuntzarako politikak, enpleguaren sustapenerako politikak eta enplegurako eta aholkularitzarako zerbitzuak (Ruesga, 2002). Ruesgaren lehenengo biek Ditch eta Roberts-en lehenengo kategoriarekin bat egingo lukete eta hirugarrenak bi hauen bigarrenarekin. Era berean, Ruesgak kategoria hauetan hainbat azpi-kategoria ere aipatzen ditu, hurrengo taulan ikusi daitezkenak.

Alujasek egiten duen sailkapenak (2003: 20-24) antzekotasun handiak erakusten ditu Ruesgak egindakoarekin, zehazki hiru ezaugarri nagusi azpimarratzen ditu:

1. Enplegurako zerbitzuak: Hauen barruan enplegu bat lortzea helburu duten enplegurako zerbitzu publikoak egongo lirateke. Era berean enplegua lortzeko laguntza eta aholkularitza ere atal honetan kokatzen dira. Zerbitzu publiko hauetan gehienetan hainbat arazo dituzten kolektiboek laguntzen zaie, hala nola, epe luzez langabezia egoeran dauden pertsonen, gazteen edota emakumeen.
2. Formakuntzarako neurriak: Honen barruan hainbat mota ere bereiztu daitezke: Formakuntza okupazionala: Enplegu bat lortzeko arazoak erakusten duten pertsona helduentzako formakuntza mota izaten da, hauen trebetasunak eta ahalmenak hobetzeko asmoz. Formakuntza jarraia: lanean eta oro har formakuntza gutxi duten langileentzat egiten den formakuntza, gehienetan enpresa bertan edota instituzio publiko zein pribatuek kudeatzen dute. Formakuntza profesionala: Gazteentzat zuzentzen dena nagusiki, hezkuntzatik lan-merkatuara igarobidea erraztu ahal izateko. Formakuntza hau hezkuntza zentroetan eta enpresetan bertan egiten da. Gizarte-babeserako formakuntza: Formakuntza mota hau bigarren hezkuntza edota formakuntza profesional arautua utzi eta enplegu bat topatzen ez duten gazteentzat izaten da. Honen helburua formakuntza zein hezkuntza araturako zubi gisa bezala funtzionatzea izango zen. Beregokitze profesionalerako programak: hauek gehienbat ezintasunak dituzten pertsonentzat zuzendurik daude, bertan lanpostuaren beharrak eta pertsonaren ezaugarriak hartzen dira kontuan.

3. Enplegurako laguntzak: Hemen enplegua sortzeko zein arazoak dituzten kolektiboen lan-txertaketa ahalbidetzeko laguntza ezberdinak kokatuko lirateke. Kasu honetan, Alujasek lau mota ezberdin bereizten ditu: Sektore pribatuko enplegu arrunterako laguntzak: Gehienbat hainbat kolektibo kontratatuak izateko ematen diren laguntzak, maila honetan ere dedukzio fiskalak edota gizarte segurantzako kuotetan ezartzen diren murrizketak kokatzen dira. Enpresak sortzen dituzten langabetuentzako laguntzak: Autoenplegua sustatzeko laguntzak dira. Gehienetan langabezirako-laguntza kapitalizatzearen bidez gauzatzen da. Honetaz gain, beste diru-laguntzak edota interes baxuko maileguak egoten dira ere. Aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen da horrelakoetan. Sektore publikoan sortzen den enplegu zuzena: Kasu honetan instituzio publikoek zein hirugarren sektoreko erakundeek aldi baterako edo denbora mugarik gabe sortzen dituzten enpleguak dira, gehienetan langabezian dauden eta arazoak dituzten kolektiboentzako. Ezintasunak dituzten pertsonentzako enpleguak: Bertan kolektibo honentzako enplegua sortzea eta hauen kontrataziorako diru-laguntzak ematea kokatuko lirateke.

Tipologia hauekin bukatzeko, Europar Batzordeak, gastuaren araberrako sailkapena egiten du. Sei mota ezberdin bereizten ditu zehazki: Lan-merkatutzeko formakuntza; sektore pribatuarentzako pizgarriak; enpleguaren sorrera sektore publikoan; zerbitzuak eta zigorrak; gazteentzako programak; eta ezintasunak dituzten pertsonentzako neurri ezberdinak (European Comission, 2004: 69; 2005: 19-21).

Aurreko tipologietan ikusi den bezala, neurri gehienak langabezian dauden pertsonentzako eta horretaz gain zailtasunak dituzten kolektiboentzat zuzentzen dira. Gazteen kasuan, euren formakuntzan gabeziak dituzten pertsonen jartzen zaie arreta berezia, heziketarako eta laneratzarako ikastaroak bultzatuz. Denbora luzez langabezian daramaten pertsonentzako, aldiz, lan merkatuarekin harreman zuzena duten programei ematen zaie lehentasuna, enpleguaren zeharkako zein zuzeneko sorreraren bidez esaterako.

3.3. EPA-en SORRERA ETA GARAPENA

3.3.1. EPA-en sorrera: Lurralde nordikoak

Enplegurako Politika Aktiboen –Active Labour Market Policies, ALMP– kontzeptua Suedian sortu zen XX. mendeko 50. eta 60. hamarkadetan (Rehn, 1989). Hauen helburua lan eskaintza eta eskaeraren

arteko oreka lortzea zen, honen bidez *enplegu osoa* –pleno empleo-bermatzeko helburuari erantzuteko, Ongizate Estatuaren oinarriko elementua denari erantzutea alegia. Baina ez Suedian bakarrik, lurralde nordiko gehienetan EPA-etan oinarritutako neurri eta programak aurrea eraman dira, izaera unibertsal zein baldintzazkoak. Dena den, orokorrean leku edota kolektibo zehatzentzako erabili izan diren politikak izan dira. Formakuntzan, heziketan eta mota honetako jardueretan zentratu izan dira eta gehienetan langabezia zeuden pertsonentzako. Kasu honetan, eta workfare ereduarekin erkatuz, lurralde hauetan garatu diren EPA-ek kontuan izan dute norbanakoaren aukerak, nahiak eta zentzu honetan politika hauek hiritarren eskubidetzat ulertu dira eta ez betebehar bezala, gutxienez azken urte hauek arte. Era honetan, pertsonaren onura eta gizartearen interesak dira azpimarratzen direnak. Norbanakoak bere kualifikazioa hobetzen du eta desenpleguari aurre egiteko aukera handiagoak izango ditu eta gizartearen kasuan lan-indarraren kalitate zein kantitatea hobetzen da eta horrela enplegu osoa lortzen da eta gizarte-bazterkeriak sortu ditzazkeen ondorio ezkorrak saihesten dira. Azken finean, EPA-ek jarraitu duten ikuspegi teorikoa eskubideetan eta *giza kapitalean* oinarritu dira (Esping-Andersen, 2002).

Hasiera batean, 60. eta 70. hamarkadetan EPA gehienak eskaera gutxiko sektoreetan dauden langileentzat zuzentzen ziren, hauen bidez beste sektore egoki eta hobeagoetara igaro ahal izateko. Baina, 80. eta gehienbat 90. hamarkadatik aurrera, eta krisi ekonomikoa eta langabeziaren hazkundearen ondorioz, EPA gehienak enplegarritasun arazoak dituzten pertsonetan zentratzen dira (Jensen, 1999). Aldiberean, agertzen diren programa berriek aurreko hamarkadetakoei erakusten zituzten ezaugarri ezberdinak azaleratzen dituzte. EPA berrien beste ezaugarri batzuk, eta gehienbat Suedian eta desenpleguaren igoerarekin batera, programetan ezartzen diren mugapenak eta hauen deszentralizazioa izango da. Gazteentzako EPA-ak adibidez 90. hamarkada erdialdean udaletxeetara transferitu egingo ditu Suediako gobernu zentralak. Kasu honetan udaletxeek 20 eta 24 urte bitartean eta desenplegua egoeran 90 egun baino gehiago daramatzatenentzako formakuntza edota enplegua bilatzeko programak eskaintzera behartuta daude.

Gaur egun Suedia bera da EPA-etan diru gehien inbertitzen duena. 2004. urtean, adibidez bere Barne Produktu Gordinaren %2 erabiltzen zuen eta bere lan indarraren %5,5 parte hartzen zuen mota honetako programetan (Calmfors, 2004). Hauen artean, garrantzitsuenetarikoa *Activity Guarantee* bezala ezagutzen den programa dago, 20 urte baino gehiago duten pertsona langabetuentzat zuzendua. 2002. urtean, martxan jarri eta bi urtetara, epe luzeko langabetu guztien %40

–38.000 inguru– programa honetatik pasata zeuden (Aust eta Arriba, 2004). Datu hauek argi erakusten dute Enplegurako Politika Aktiboen garapena Suedian.

Finlandian, 80. hamarkadan garatzen hasten diren arren, hurrengo hamarkadaren erdialdean eraldatu egingo dira EPA-k eta gaur egungo izaeraren ezaugarriak erakutsiz. Ezarri diren programen baldintzen ukapena egiten duten pertsonentzako zigorrek areagotu egin dira lurralde honetan eta Suedian bezala, udalen garrantzia handiagoa da. Hori dela eta, udaletxeek hainbat programa eskaintzera behartuta daude eta enplegurako zerbitzu publikoek eskaintzen dituzten neurriak ez badira arrakastatsuak, erabiltzailea eta udal agintarien artean aktibazio plan zehatz bat adosten da. Neurriei dagokienez, udalek *enplegu bergizarteratzailea* izeneko programa ari dira aurrera eramaten. Programa honen bidez enplegua sortzen da sektore publikoan, 25 urte azpikoentzako programa honetan parte hartzea derrigorrezkoa den bitartean, gainontzekoentzako borondatezkoa da (Hanesch eta Balzter, 2001). Honetaz gain, osasun edota garbitasun pertsonalaren arloan programa osagarriak garatu dira ere (Keskitalo, 2005).

Danimarkan EPA-k 70. hamarkadatik aurrera garatu dira, baina beste lurraldeetan bezala gaur egun ulertzen diren bezala 90. hamarkadatik aurrera. Kasu honetan ere lehen borondatezkoak ziren hainbat plan derrigorrezkoak izatera pasa dira, zigorrek ezartzen ari direlarik, gehienbat gazteentzat. Horrela, gazteak 1997. urtetik aurrera aktibazio planetan parte hartzera derrigortuta daude. Era berean, deszentralizazioa eta hainbat neurrien mugapena ematen ari da. Horrela, langabezirako prestazioa 7 urteko muga izateetik 4ra pasa da. 1993. urtean onartu egin zen erreformatik aurrera formakuntzari garrantzi handia ematen zaio, honen bidez lan merkatuak eskatzen duen kualifikazio egokia lortu ahal izateko. Horrela bada, lan-formakuntzari loturiko programetan parte-hartzaile guztien %45a parte hartzen du. Honen atzetik heziketari loturiko programak egongo lirake (Barbier, 2001), programetan parte hartzen dutenen kopurua %25an hazi zelarik 1995-1999 urte bitartean (Larsen, 2001: 11). Aktibazio planak, teoriarik behintzat, parte-hartzaile eta administrazioaren artean adosten dira eta egindako ebaluaketek azpimarratzen dutenaren arabera emaitzak nahiko positiboak izan dira aurreneko urteetan (Torfing, 1999).

Lurralde bakoitzaren garapenak kontuan harturik argi gelditzen da elementu komunak erakusten dituztela euren artean. Alde batetik, 90. hamarkadatik aurrera EPA-en erreforma hasten da ematen eta gehienetan derrigorrezkotasunak indar gehiago hartzen du borondatezko programen aurrean (Loftager, 1998), gehienbat gazteen artean. Era berean, norbanakoaren enplegarritasun ahalmena azpimarratzen da. Hor-

taz, eskaintzan eragiten da eta ez hainbeste eskarian. Bestetik, lurralde guztietan ere deszentralizazio prozesu bati ekin zaio, udaletxeek indar eta eskumen gehiago bereganatu dituztelarik. Hirugarrenik, lurralde eskandinabiarretan EPA-etan egiten den gastua handia da eta Europar Batasunari erreparatuz lurralde hauek dira beti goiko postuetan kokatzen direnak. Datu bat aipatzearren, 2000. urtean lurralde anglosaxoietan gastatzen zen bikoitza eta Europa hegoaldean gastatzen zen laukoitza erabiltzen zen lurralde eskandinabiarretan EPA-tarako (Adelantado eta Gomá, 2000: 84). Azpimarratu daitekeen azkeneko elementua erreforma hauen bidez lan merkatua eta gizarte-politika batu egin direla da. Historikoki berezita egon diren bi esparru izan arren gero eta lotura gehiago azaltzen dute gaur egun eta honek eragin zuzena izaten ari du Europar Batasuneko gizarte-politiken garapen eta hedapenean.

Lehen aipatu bezala, derrigorrezkotasuna gaur egun handiagoa da EPA-etan. Dena den, honek ez du esan nahi workfare eredu gailendu egin denik eta Ongizate Estatu nordikoaren ezaugarriak desagertzten ari direnik. Workfare ereduarekin konparatuz ezarri diren zigorrak txikiagoak dira, gainera formakuntzari eta giza kapitalari garrantzi handia ematen zaio eta diru-laguntzen zenbatekoa eta iraupenak handiagoak dira (Fischer eta Matthiessen, 2005). Beraz, antzekotasunaren bat somatu eta azpimarratu daitekeen arren, gaur egun gehiago dira ezberdintasunak workfare eredu eta EPA-etako eredu eskandinabiarraren artean. Ildo honetan, Kautto eta Kvistek egindako ikerketa konparatibo batean Suediako ongizate-ereduak beste ereduarekin ezberdintasunak mantentzen jarraitzen duela defendatzen dute. Adibidez, diru-sarreraren desorekak edota pobrezia erlatiboa baxuagoak dira, pobre eta aberatsen arteko tarteak ere txikiagoak da eta zerbitzu publiko edota EPA-etan gastatzen den diru kopurua handiagoa (Kautto eta Kvist, 2001).

3.3.2. *EPA-en garapena Europar Batasunean*

Pentsatu daitekeenez, eskandinabiar ereduak izan da Europar Batasunak jarraitu duen ereduak EPA-en garapena gauzatu ahal izateko (Dagueire eta Taylor-Gooby, 2004). Han bezala helburua EPA-en bidez lan-merkataturatzea eta lan merkatua hobetzea delarik (Bosco y Chassard, 1999; Gallie, 2000). Hau guztia argi uzten dute honen inguruan OECD-k edota Europar Batzordeak eginiko txosten ezberdinek (Europar Batzordea, 1999; Hanesch eta Balzter, 2001). Hauetan behin eta berriz aipatzen da EPA-en helburua lan-indarraren ahalmena handitzea dela, honen bidez egiturazko aldaketei aurre egiteko eta desenplegua prebenitzeko (Euro-

pean Comission, 2004). Horrela izanda, Europar Batasuneko lurralde gehienek azken bi hamarkada hauetan aktibazioarekin zeharka zein zuzenki harremana duten politikak jarri dituzte martxan. Lurralde batzutan, Belgika edo Alemania esaterako, 80. hamarkadan jada hasiera eman bazitzaion ere EPA-ei, 90. hamarkadaren erdialdetik aurrera izango dute garapena lurralde guztietan.

EPE-en jatorria Europar Batasunean, Europar Batzordeak Jacques Delors-en zuzendaritzapean argitaratu zuen *Hazkundera, Lehiakortasuna eta Enpleguari buruzko Liburu Txurian* topa daiteke. Liburu honetan lurralde bakoitzeko politiken koordinazioaren beharra azpimarratzen da eta desenpleguarekin bukatzeko estrategia berrien beharra. Estrategia berri hauen artean formakuntza, lan malgutasuna, lanaren banaketa edota lanaren bidezko aktibazioa azpimarratzen dira (Europar Batzordea, 1993). Beranduago ere, *Informazioaren Gizartean bizi eta lan egin* izeneko liburuan ere, Europar Batzordeak EPA-en alde egiten du eta europar mailan desenpleguari aurre egiteko bitarteko garrantzitsuenetarikoa izango dela azpimarratuko da (European Comission, 1996).

Baina EPA-ei benetako bultzada 1997. urtean Amsterdamen ospatu zen Europar Kontseiluan eman zitzaie, bertan lan arloan estrategia komuna jarraitzeko irizpideak zehaztu baitziren eta Europar Elkartearen Eratze Hitzarmenean enpleguari buruzko titulo oso bat sartu egin zen. Urte bereko azaroan Enpleguari buruzko ezohiko gailurra ospatu zen Luxemburgon eta bertan *Enplegurako Estrategia Europarra* –European Employment Strategy– zehaztu zen (CES, 2004; European Comission, 2005), lau lan ildo azpimarratzen direlarik: enplegarritasuna, ekimen enpresarialaren garapena, egokitzapen-ahalmena eta aukera berdintasuna (Fernández Cornejo eta Algarra, 2000). EPA-k lehenengo zutabea kokatzen dira eta hauen bidez ahalbidetuko da hain zuzen ere enplegarritasuna eta desenplegua uzteko neurri ezberdinak (Navarro, 2000; Daguerre eta Larsen, 2004). Halaber, 90. hamarkada erdialde eta bukaeratik aurrera aktibazioak eta EPA-k Europar Batasuneko ardatzetako bat izango dira enplegu arloan (Klammer, 2001; Pérez, 2008).

2000. urteko Koloniako Europar Kontseiluan jada irekitako bideari jarraitzen zaio eta Enplegurako Estrategia Europarrari oraindik garrantzi handiagoa emango zaio. Lisboan urte berean ospatuko den goi-bileran Europar Batasuneko estatuen arteko *Koordinazio Irekiko Metodoa* –Open Method of Coordination– zehazten da, estrategia ezberdinak koordinatu eta ebaluatu ahal izateko. Era berean, *Ongizate Estatu Aktiboari* buruz hitz egiten zen eta enplegu osoa helburutzat ezartzen zen 2010. urterako, helburu hau lortzeko ezagutzen eta teknologian oina-

rritutako ekonomiaren alde egiten zelarrik. Jada hamarkada horren erdialdean Lisboan ezarri ziren helburuak ez zirela beteko aurreikusi bazen ere (CES, 2005), gaur egun ematen ari den krisia kontuan harturik argi dago bertan aurkezten zen eszenatoki baikorra ez dela bete eta urruti gaudela 2010. urtean enplegu osoaren helburutik, adibidez Espainian langabezia %20 inguruan kokatzen denean esaterako. Dena den, eta aipatu bezala Europar Batasunak aktibazioaren alde egiten duen apostua nabaria da eta honen erakuslea da 2008. urtean Europar Batzordeak gizarteratze aktiboa bultzatzeko egin zuen gomendioa (European Commission, 2008).

Estatu mailan, Europar Batasuneko enplegurako estrategia, Enplegurako Ekimenerako Plan Nazionalen bidez gauzatu da. Orain arte onartu diren plan guztietan EPA-ei garrantzi handia ematen zaie eta enplegurako politika pasiboen ordezkatzailleak izan behar direla aldarrikatzen da (CES 2001: 12). Plan hauetan lan arlo honetan parte hartzen duten eragileak aipatzen dira besteak beste: Lan eta Inmigratioko Ministeritza, Enplegurako Instituto Nazionala, erkidegoak eta toki administrazioa. Zentzu honetan, eta EPA barruan kokatu ditzazkegun hainbat neurri erkidegoetara pasa diren arren, arlo honetako zatirik garrantzitsuena Enplegurako Instituto Nazionalaren –INEM– barruan kokatzen da.

EAE izan da orain gutxi arte enplegurako politika aktiboen eskumena izan ez duen erkidego bakarra –formakuntza okupazionala, enplegua sustatzeko diru-laguntzak, lan bitartekaritza...–. Azken negoziaketan ondorioz badirudi 2010. urteko bigarren erdialde aldera trasferitu egingo dela eskumen hau. Dena den, gaur egun oraindik ez da eman eta beraz EAEn egin diren programak zeharkakoak izan dira eta askotan Foru Aldundiek bultzaturikoak. Ikusten denez, gai eta neurri asko barneratzen dira EPA *etiketaren* barruan. Gainera, administrazio eta eragile ezberdinak dira bertan parte hartzen dutenak. Zentzu honetan, ezin dugu ahaztu hirugarren sektorearen eragina arlo honetan eta gehienbat arazo gehien duten kolektiboek. Ondorioz, konplexutasun honen aurrean eragile eta gai ezberdinen arteko koordinazioa ezinbestekoa suertatzen da.

EPA-etan europar mailan egiten den gastuari dagokionez 66,6 billio euro inguru kokatzen zen 2005. urtean Europar Batzordearen datuen arabera (2005: 21). Dena den, zenbaki honek ezin ditu ezkutatu lurraldeen arabera topatu daitezkeen ezberdintasunak oso handiak direla. Era berean, gaur egun politika pasiboetan egiten den gastua aktiboena baino handiagoa da ia lurralde gehienetan, soilik Suedia, Portugal eta Italiako politika aktiboen gastua pasiboena baino altuagoa da. Hala ere, hauen artean eta Suedia alde batera utzita, datu hau politika pasiboe-

tarako erabiltzen den gastua oso txikia delako da eta ez hainbeste politika aktiboan aldeko aposturik egin delako. Europan enplegurako politika pasiboetan egiten den gastua Barne Produktu Gordinaren %2 inguru kokatzen den bitartean, aktiboek %1 suposatzen dute (Navarro, 2000: 22; Fina, 2001: 252). Eta orain dela urte batzuk EPA-etan parte hartu behar zutenak langabetuen %25 izango zela aurreikusten zen 2010. urterako (De Graaf, Frericks eta Maier, 2003). Azken urteotan aurrerakuntzak eman diren arren, ez dira bete aurreko hamarkadan espero ziren espektatibak eta zifrak.

3. Taula: EPA-etako gastua Europar Batasunean

GASTU ALTUA	GASTU ERTAINA	GASTU BAXUA
SUEDIA DANIMARKA FINLANDIA HOLANDA BELGIKA	AUSTRIA ITALIA NORVEGIA PORTUGAL ESPAINIA	ERRESUMA BATUA GREZIA

Iturria: Egileak eginda Europar Batasuneko datuetan oinarrituta (European Comission, 2005).

EPA-etan Europar Batasunean ematen den gastuaren zatirik handiena formakuntza atalean ematen da, %28 zehazki. Hala ere, kasu honetan ere lurraldeen arteko ezberdintasunak oso nabariak dira. Horrela, Belgika edota Espainian enplegurako diru-laguntzak nagusi diren bitartean, Danimarka, Finlandia edota Austria bezalakoetan formakuntza da gailentzen dena. Formakuntzaren atzetik, enplegurako zerbitzu publikoak kokatuko lirateke, gastu osoaren %20rekin. Honen atzetik, sektore pribaturako enplegua sustatzeko laguntzak –%11– eta honen atzetik gainontzeko neurriak %10-15 batekin. Lurraldearen arabera azken neurri hauek garrantzitsuak izan daitezke Luxenburgon, esaterako, bere gastuaren erdia gazteentzako programetan erabiltzen da. Beste zenbaitetan EPA-en gastu gehiena sektore publikoan enplegua sortzeko erabiltzen da, hauxe da Belgika edo Irlandako kasua. Guzti honek argi uzten du Europan heterogeneitatea dela nagusi eta ezberdintasun anitz ematen direla lurraldeen arabera. OECD esparruaren barruan ere nabaria da aniztasun hau. Horrela bada, Japonia edota Estatu Batuak bezalako lurraldeetan 1998. urtean EPA-etan egiten

zen gastua Barne Produktu Gordinaren %0,2 baino baxuagoa baldin bazen ere, zifra hau %2,4koa zen Suediarentzako (Martin, 1998: 6). Datuekin jarraituz, Espainian pertsona aktibo bakoitzeko Barne Produktu Gordinaren %5 baino gutxiago gastatzen den bitartean, Suedian kopuru hau %20koa da (CES, 2004: 54). Egia da, Europar Batasunean EPA-etan egiten den gastua handiagoa dela gaur egun lurralde guztietan, baina oraindik oso nabariak dira ere lurralde ezberdinen artean ematen diren diferentziak eta horretan zatiketa nabaria aurkitzen da alde batetik Europa erdialde eta iparralde; eta bestetik Europa hegoaldearen artean.

Estatu mailan, 80. hamarkadan EPA-en garrantzia oso txikia zen eta 90. hamarkada hasieran garai hartako Europar Batasuneko gasturik txikiena suposatzen zuen (European Comission, 2005: 145). Azken urteotan, aldiz, gastu hau handitu da eta termino absolutuetan bada ere Europaren batez bestekotik gertu kokatzen da. 1985. urtean Barne Produktu Gordinaren %0,3 erabiltzen zen bitartean 1996. urtean %0,7koa zen (CES, 2004: 52). Termino erlatiboak kontuan hartzen badira eta hemengo langabezia tasa kontuan harturik, erabiltzen den dirua oraindik baxua da beste lurralde batzuekin konparatuz. 2004. urteko gastua 2.738 milioi euro ingurukoa izan zen (MTAS, 2004: 15). Hauetatik %41,2 enplegurako pizgarrietan erabili zen, ehuneko hau Europakoa baino altuagoa delarik -%17-. Bigarrenik, formakuntza legoke, %23,8 batekin -Europar %31,2-. Ikusi daitekeen moduan bi neurri hauek gastu guztiaren bi heren suposatzen dute. Gelditzen den herena beste neurri batzuen artean banatzen da: enpleguaren banaketa, lan erreleboa, ezintasuna duten kolektiboen integrazioa, enplegurako zerbitzuak, etab.

Erkidegoei dagokienez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egindako ikerketaren arabera EPA-etan diru gehien gastatzen dutenak Extremadura eta Gaztela La Mancha izango lirateke. Ondoren Nafarroa, Euskadi, Errioxa edota Galizia bezalako erkidegoak kokatuko lirateke. Azkenik, gastu gutxien erakusten dutenak Gaztela-Leoi, Balear Irlak, Cataluña eta Madril izango lirateke (CES, 2004: 92). Txosten hau Barne Produktu Gordinaren ehunekoaren kopurua kontuan harturik egin da, datu erlatiboak, hori dela eta hainbat erkidego Barne Produktu Gordin altua dutenez beheko postuetan agertzen dira eta alderantziz. Horregatik hain zuzen ere Extremadura agertzen da lehenengo postuetan. Ez EPA-en alde egiten den apostua handia delako, baizik eta bere Barne Produktu Gordina beste erkidegoena baino txikiagoa delako. Beraz, datu hauek benetan erakusten dutena da EPA-en garapena oso txikia dela Estatu mailan eta baita erkidego mailan ere.

Euskal kasuari dagokionez, eta lehen jada apuntatu den bezala, Erkidegoaren Estatutoaren arabera EPA-k erkidegoaren eskumena baldin badira ere, orain arte gobernu zentralak ez du eskumen hau transferitu eta 2010. urtean zehar emango dela ematen du. Hortaz, ez da oso deigarria Euskal Autonomi Erkidegoan –EAE– egiten den gastuaren %75 Enplegurako Instituto Nazioanalaren –INEM– bidez kudeatzea. Zehazki 2004. urtean 250 milioi euro erabili baziren, hauetako 195 eta 205 inguru erakunde honen bidez gauzatu ziren. 250 milioi hauetatik, %57 Estatu mailako administrazioak jartzen zuen, %22,9 Europar Batasunetik zetorren eta %9,3 erkidego mailako administrazioetik (CES, 2004: 97). Hauetaz gain beste eragile batzuk parte hartzen dute politika hauen kudeaketan, Foru Aldundiek, eskualdeek edota toki administrazioak. Baina hauen garrantzia askoz ere txikiagoa da. Neurriei zegokionez, enplegurako pizgarrietan EAEko EPA-etan egiten den gastuaren %50,7 egiten zen. Honen atzetik formakuntza -%22- eta pertsona ekintzaileentzako pizgarriak -%9,2- kokatzen ziren (CES, 2004: 93-94). Ikusi daitekeen modura, gastu guztiaren %75 enpresetara zuzentzen da. Era berean eta Estatu mailan gertatzen den bezala, EAEko gastua ere Europako batez bestekoaren azpitik kokatzen da. Zehazki, Barne Produktu Gordinaren %0,63, Estatu mailako ehunekoia -%0,64- eta Europakoa -%0,75- baino baxuagoak alegia (SIIS: 2005: 16).

3.4. Aktibazioaren oraina eta etorkizuna: malgusegurtasun ereduak

Gaur egungo EPA moten inguruko azterketa egiten badugu, aurrera eramaten ari diren neurri eta programa gehienak bi muturren arteko jarraikortasun batean kokatzen dira. Mutur hauetan, alde batek aktibazioaren eredu anglosaxoiarra izango genuke, workfare-tik gertu kokatzen dena; eta bestetik, europar ereduak, kontinente honen ongizate-ereduen ezaugarri klasikoetan oinarritzen dena, alegia. Beste arloetan bezala, eta Ongizate Estatuaren ereduarekin bezala, argitu beharko litzatekeena praktikara eramaten ari diren politika hauen artean gero eta ezberdintasun gehiago dauden edota eredu hauen arteko antzekotasunak gero eta nabariagoak diren ala ez da (Kautto eta Kvist, 2001).

4. Taula. Aktibazioaren tipo idealak

	EREDU LIBERALA (WORKFARE)	EREDU UNIBERTSALISTA (EUOPARRA)
GIZARTE BABESERAKO SISTEMA NAZIONALA	Ongizate Estatu Liberala	Ongizate Estatu Unibertsalista
IDEOLOGIA ETA BALORE NAGUSIAK	Indibidualismoa gizartearen arteko ardura Ongizaterako eredu asistentzialista	Norbanakoa eta Estatua izaera unibertsaleko zerbitzuak eskaintzera derrigortuta
AKTIBAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA	Estrategia zigortzailea	Erreziprozitatearen estrategia
PROGRAMA MOTAK	Workfare eta pizgarri fiskalak	Zerbitzu unibertsalen horniketa Aktibazio unibertsalista
KOLEKTIBOAK	Pertsona pobreak (menpekotasuna) Working poors	Hiritartasuna Working poors ez
PRESTAZIOAK	Diru kopuru txikia eta epe txiki baterako	Diru kopuru ertaina eta epe luzea
AKTIBAZIOAREN HELBURUA	Lan-merkaturatze azkarra indarpena	Parte hartze aktiboaren
KUDEAKETA	Administrazio zentrala	Deszentralizazio administratiboa

Iturria: Egileak eginda ondorengo iturrian oinarrituta: (Barbier, 2001: 10).

Aurreko taulan ikusi daitekeen moduan EPA-en bi eredu ezberdinei buruz hitz egin ahal dezakegu, bata workfare ereduaren oinarri duena eta bestea eskubideak eta aktibazioa uztartzen saiatzen dena. Jessop-en hitzetan, mutur batean "malguexplotazioa kokatuko zen eta bestean malgusegurtaun eredu" (Jessop, 2002: 156). Hortaz, eta egile honek egiten duen sailkapen horri jarraituz, EPA-k gaur egun workfare eredu anglosaxoiarra eta lan malgutasuna eta gizarte segurantzaren batzen saiatzen den *malgusegurtasun* ereduaren baitan kokatuko liriteke.

Lehenengo ereduaren langabezia dauden pertsonak eta lan-merkaturatze azkarra lortzen ez dutenentzat zigorrak areagotu egingo liriteke, honen bidez ahal den eta lan-merkaturatze azkarrena gauzatu ahal izateko. Lurralde eskandinabiarretako hainbat eredu aipatu direnean

jada arreta jarri da zigorren areagotze horretan. Horrela, gero eta gehiago eskatzen da formakuntza ikastaroak egitea edota edozein enplegu mota onartzera prest egotea prestazioa jaso ahal izateko (Torfing, 1999; Hvinden, 1999; Kildal, 2000; Kvist eta Meier, 2003; Bonvin eta Moachon, 2003). Eredu anglosaxioarraren eragina kontinenteko beste hainbat lurraldeetan ere antzeman daiteke gaur egun (Serrano, 2004).

Bigarren ereduari dagokionez –malgusegurtasuna, flexisecurity, flexiseguridad– gero eta indar gehiago islatzen du eta azken urte hauetan Europar Batasunean garrantzi handiko ideia eta kontzeptua bada, gehienbat 90. hamarkadatik aurrera eta Holanda edota Danimarka bezalako lurraldeetan (Polus, 2005). Izenak berak zehazten duen bezala, eredu honek lan-malgutasuna eta gizarte-segurtasuna lan harremanetan uztartu behar direla defendatzen du. Horrela, malgusegurtasunaren bidez, malgutasuna eta segurtasunaren artean ematen den ohiko eta orain arteko areriotasuna gainditu egingo litzateke eta bataren zabalpenak ez luke bestearengan ondorio ezkor edo kalterik sortu beharko. Horrela, gaur egun lan harremanetan ematen den egoera gainditu eta nolabaiteko *zirkulu bertutetsua* sortuko litzateke. Laburbilduz, kontratu eta kaleratzeetan malgutasun gehiago, langilearen enplegarritasun gehiago eta bi hauei estaldura egokia eskaintzen dien gizarte segurantzaren aldeko aldeak defendatzen duen eredu bat da malgusegurtasunarena.

80. hamarkada bukaeran jada eredu honen alde egiten duen proposamenen bat topatu dezakegun arren, adibidez Rehn-en mugikortasuna eta malgutasuna alde batetik eta gizarte segurantzaren eta enplegu osoa bestetik uztartzearena (Rehn, 1990), 90. hamarkada bukaera eta gehienbat mende honen hasiera arte ez du ideiak indarririk hartu, gehienbat Europa erdialde eta iparraldeko lurraldeetan hasiera batean eta gero Europar Batasuna osoan. Gaur egun, Europar Batasuneko Enplegu Estrategiaren barruan malgusegurtasunak paper garrantzitsua jokatzeko du (Klammer, 2007).

Horrela bada, 2004. urtetik aurrera Europar Batzordeak jada malgutasuna eta segurtasuna lan merkaturaren konbinatu behar direla defendatzen du (European Commission, 2004). Baina 2006. urtea izango da gaur egungo eztabaidari hasiera emango dion urtea. Momentu honetan, hain zuzen ere Europar Kontseiluak enplegurako planteamendu komun bat egitea eskatzen dio Europar Batzordeari, azken honek azaroan Liburu Berdea aurkezten duelarik. Bertan, malgusegurtasun ereduaren aldeko apostua egiten da. 2007. urteko ekainean, Batzordeak Malgusegurtasunaren inguruko Txostena onartu eta abenduan Malgusegurtasunarako Batzordea sortzen da, bertan Europar Batasuneko lurralde ezberdinetan eredu nola gauzatzen ari den aztertu egiten delarik, besteak beste. Eztabaida honen instituzionalizazio prozesu honen azkene-

ko urratsa 2007. urteko abenduak 13an egiten da, Lisboako Hitzarmenean malgusegutasunaren aipamena egin ostean. Hitzarmen honetan bertan esaten denaren arabera, malgusegurtasunak "Enplegurako Europar Estrategia sendotuko du, enplegu gehiago eta hobeagoak sortuko ditu eta era berean lan merkatua berritu eta kalitatezko enplegua sustatuko du malgutasuna eta segurtasuneko testuinguru batean. Hauen bidez, egokitzapena, enplegua eta gizarte kohesioa ahalbidetuko dira (Europar Kontseilua, 2007).

Testuinguru honetan ez da harritzekoa eztabaida honek gero eta eragin eta oihartzun handiagoa izatea eremu akademiko, politiko edota sozio-laborean, Estatu mailan ere. Honen adibide nabaria da, esaterako, Alderdi Sozialistak bere azkeneko Batzar Federalean –2008. urteko uztailean– malgusegurtasunaren alde egindako hautua. Dena den, asko izan ziren ere eredu honen kontra aurkeztutako emendakinak. Sindikatuei dagokienez, gehienak eredu honen kontra azaldu dira. Ikusi dezakegun moduan, eztabaida interesgarri baten hasieran gaude eta lehenengo momentutik interesgarria ematen du ideia honetan sakontzea malgusegurtasunari buruz hitz egiten dugunean zeri buruz ari garen hobeto jakiteko.

3.4.1. *Malgusegurtasunaren inguruko hainbat ekarpen teoriko*

Jada aipatu den bezala, malgusegurtasun kontzeptuak indarra hartu du arlo ezberdinetan eta mundu akademikoa ez da salbuespena kasu honetan. Hori dela eta, gero eta gehiago dira maila teorikoan eta eredu honi lotuta defendatzen ari diren teoria ezberdinak. Gehienek arreta jartzen dute lan merkatuan emandako aldaketetan eta gizarte babesa berreraiki behar dela azpimarratzen dute, gehienbat transizio epeei aurre egin ahal izateko eta nolabaiteko *segurtasun malgua* (Whiteside, 2004) lortu ahal izateko langilearen bizitza osoan.

Aipatuko dugun lehenengo teoria *Transiziozko Lan Merkatuena* da –Transitional Labour Markets– (Schmid, 1998; Klammer, 2001). Ikuspegi honen helburu nagusia jarraikortasunik ez duten lan-ibilbideak erregulatzea izango zen, horretarako transizio epeei garrantzia ematen zaiolarik. Zehazki, bost transizio mota nagusi aipatzen dira: hezkuntza/formakuntza eta enpleguaren artekoa; aldi baterako eta lanaldi osoko enpleguaren artekoa; lan asalariatu eta autoenpleguaren artekoa; ordainduriko lana eta ez ordaindurikoaren artekoa; desenplegua eta enpleguaren artekoa; eta enplegua eta erretiroa edota lan ezintasunaren artekoa (Schmid, 2002). Transiziozko lan merkatuen bidez transizio hauek izan dezaketen ondorio ezkorrak kontrolatu beharko lirateke, egoera kritiko horren ondorioz gizarte-bazterkeria edota zaurgarritasun

egoerak eman ez daitezzen. Beste hitzekin esanda, transiziozko lan merkatuek bizitzaren epe ezberdinen arteko zubi lana egin beharko lukete igaroaldi hauek erraztu eta ahalbidetzeko hain zuzen ere. Honen barruan aipatzen diren adibideen artean formakuntzarako eskubidea –ordu, egun edota kualifikazio mailaren arabera–, lan denbora bizitzan zehar handitu edo murrizteko eskubidea, autoenplegua sustatzeko pizgarriak; erretiro partzialak eta malguak ahalbidetzeko erraztasunak; familia zaintzarako eskubidea; edota eszedentzia garaiak izateko eskubidea kokatuko liriateke³ (Wilthagen eta Rogowski, 2002: 241). Arlo praktikoari dagokionez transiziozko lan merkatuen teoria oso ezaguna ez bada ere, nabaria da hainbat lurraldeetan bere filosofian oinarritzen diren hainbat neurri ari direla aurrera eramaten, hezkuntza eta enpleguaren arteko igaroaldian edota desenplegu eta enpleguaren artekoan (Kruppe, 2002).

Bigarren ekarpen teorikoa *Supiot Txostenean* topa dezakegu, lan honen zuzendaria Alain Supiot da eta Europar Batzordearen eskaera bati erantzun zion. Bertan, lan-ibilbidean zehar enplegua, formakuntza eta eszedentziak tartekatzeke aukera aztertzen da, tarte hauek lan behin-behinekotasuna areagotu ez dezatelaren helburuarekin. Hortaz, lan merkatu malgu baten alde eta lan ibilbidearen zehar nolabaiteko egonkortasunaren alde egiten da. Egilearen hitzetan, “askatasuna eta segurtasuna uztartzen dituen estatuto profesional berria” alegia (Supiot, 1999: 68). Lan merkatutik at gelditzen diren tarteak *Igorpen Gizarte Eskubideak* –derechos sociales de giro– bezala ezagutuko liriateke (Supiot, 1999) eta transizio epeetan denbora-txeke funtzioa beteko lukete. Giarini eta Liedtkeren proposamenak antzekotasunak islatzen ditu Supiot Txostenean defendatzen diren hainbat ideiekin. Horrela, bi egile hauek *lan multiestratifikatuan* oinarritutako sistema defendatzen dute. Lehenengo estratu edo maila batean *oinarrizko enplegua* kokatuko zen, Estatuak populazio aktiboari enplegu hau bermatu beharko lioke eta asteen 20 ordu edo urtean 1.000 izango liriateke. Era berean, Estatuak neurri ezberdinen bidez oinarrizko enplegu mota hau behin-behinekotasunean erortzeko arriskua saihestu beharko luke. Bigarren mailan lan merkatu pribatua kokatuko litzateke, eskaintza eta eskariaren arabera arautuko zen eta borondatezkoa izango zen. Hirugarren maila batean, azkenik, ez ordainduriko lana kokatuko zen, lan domestikoa eta borondatezkoa alegia (Giarini eta Liedtke, 1998).

³ Transiziozko lan merkatuen barruan kokatzen diren neurrietan sakondu nahi bada begiratu: (Klammer, 2001).

Era berean, testuinguru teoriko honetan kokatu dezakegu Guy Aznar-ek proposaturiko *Bigarren Txekearen* proposamena. Honen arabera, lan merkatuan parte hartzeagatik langileak denbora-txekeak lortzeko aukera izango luke eta hauen bidez enplegutik kanpoko jarduerak egin (Aznar, 1994; Riechmann, 1999). Lan komunitario eta borondatezkoaren berbalorazioa eskatzen duten ereduak maila honetan koka ditzazkegu ere (Rifkin, 1997; Beck, 2000; Offe eta Dekken, 2000).

Proposamen guzti hauen lotura komuna transizio epeetan babes neurri bereziak egon behar direla segurtasuna bermatu ahal izateko da. Era berean, honen bidez lan malgutasuna areagotzeko aukera egongo litzateke langilearen lan-ibilbidearen zehar. Honen bidez ere, formakuntza, enplegua eta erretiroaren arteko muga tradizionalak apurtu egingo lirateke eta hiru elementu hauek lan-ibilbidean zehar tartekatuko lirateke osotasun baten barruan.

Ekarpen teorikoekin bukatzeko eta proposamen hauek laburbiltzeko asmoarekin, malgusegurtasuna gauzatzeko Klammer-ek aipatzen dituen *lau hanka* aipatuko dira hurrengo lerroetan zehar (Klammer, 2001):

1. Aldizka edo aldi baterako enplegua dutenen pertsonen gizarte babes hobetzea. Bide honetan, langile hauentzako pizgarri edo diru-laguntzak eta desgrabazio fiskalak aipatzen dira.
2. Jarraikortasun eza ematen den lan ibilbideentzako gutxieneko babes maila. Holandan edota Danimarkan, esaterako gutxieneko erretiro unibertsal bat dago hiritar guztientzat, kontuan hartu gabe zein izan den bere parte hartze maila lan merkatuan.
3. Gizarte segurtasunaren indibidualizazioa. Orain arte gizarte segurtasuna bermatzeko neurri asko familian –tradizionala– oinarritu dira. Azken urte hauetan gizartearen egituraren eman diren aldaketak direla eta, norbanakoari zuzendutako neurrien sustapena hobesten da.
4. EPA eta transiziozko lan merkatuak. Transizio ezberdinak eman ahal izateko, egokitze-gaitasuna eta EPA-k oso garrantzitsuak dira. Hortaz, transizio momentuak garai kritikoak izan ez daitezten, gutxieneko ekonomiko eta material batzuk bermatu behar dira eta baita pertsonaren aktibazio egokia ere.

3.4.2. *Ereduaren esperientzia praktikoak: Danimarka eta Holanda*

Aditu gehienen iritzian Danimarka eta Holanda dira malgusegurtasuna gehien garatu egin duten lurraldeak (Polus, 2005, Klammer, 2007), nahiz eta bakoitzean hedapen eta abiadura ezberdinak eman (Keune,

2008). Bi esperientzia hauetaz gain, Europar Batasuneko gainontzeko lurraldeetan malgusegurtasuna garatzeko eman diren programak gaur egun nahiko mugatuak eta ahulak izan dira (European Foundation for the Improvement of Living and Working Conditions, 2005).

Holandaren kasuan, 1999. urtean Malgutasun eta Segurtasun Legea onartu zen. Honen bidez lanpostuen malgutasuna sustatu egiten zen eta honi lotuta segurtasuna eta lanpostu hauek bermatzeko neurriak onartu ziren. Lege honek enplegu malguko hainbat mota bultzatu ditu, gehienbat zatikako enplegua –denbora partzialerako enplegua–. Gaur egun adibidez, okupatuta dauden pertsonen %40 enplegu mota honetan dihardu, gure eremuan baino askoz ere portzentaje handia suposatzen duena hain zuzen ere.

Malgutasunean oinarritutako lanpostu hauen hedapenak ez du langileen eskubideen urraketarik suposatu eta zatikako lanaldia eta lanaldi osoa dutenen gizarte eta lan eskubideak berdina dira (Wilthagen eta Tros, 2004) opor, pentsioetarako kotizazio mailan, langabezia prestazio edota amatasun/aitatasun bajei dagokienez (Wilthagen eta Rogowski, 2002). Guzti honek zatikako enplegua Holandan pertsona askorentzat erakargarria izatea suposatzen du. Espainian, aldiz, guztiz kontrakoa gertatzen da, zatikako enplegua ez da aukeratua izaten eta lanaldi osoko enplegua ez delako lortzen onartzen da zatikako lan hau.

Zatikako enpleguaren sustapenarekin batera, eta gehien bat emakumeentzako eta lan-kontziliazioa bultzatzeko, malgusegurtasunaren eraginpean dauden beste zenbait neurri ere hartu dira. 2006. urtetik aurrera, adibidez, urteko soldataren zati bat –gehienez soldataren %12– aurrezki-kontu batean sartu daiteke, kontu hau langileak erabili dezake elarik diru edota denbora gehiago behar edo nahi duenean. Honen bidez, sei urtez lan egin ondoren –nahikoa aurrezki bada– langile batek formakuntzarako edota senideen zaintzarako eszedentzia urte bat hartu dezake (Klammer, 2007).

Danimarkak hainbat ezberdintasun erakusten ditu Holandarekin konparatuta eta Europar Batasuneko instituzioek jorratu eta bultzatu nahi duten eredu dela ematen du. Beraz, honen inguruko zehaztapen batzuk aipatzea interesgarriak suerta daitezke. Danimarkak, Holandaren zatikako lanaren hedapenaren aurrean, lan arauketa txikia eta gizarte-prestazioen estaldura handian oinarritutako lan-mugikortasun baten alde egin du.

Era honetan, Danimarkak *urrezko triangelua* bezala ezagutzen den eredu jarri du martxan, triangelu honetan hiru alde ezberdin azpimarratu daitezke: lan-babes baxua, langabezirako diru-laguntza handiak eta Enplegurako Politika Aktiboen garapen handia (Madsen, 2006). Lanaren babes baxuaren bidez lan-malgutasuna ahalbidetzen da, langa-

bezirako diru-laguntzen bidez gizarte segurantzaren garatzea eta azkenik, Enplegurako Politika Aktiboek lan harreman eredu hau erraztu egiten dute. Beste hitzetan esanda, Danimarkako ereduak malgutasunean oinarritutako eredu britainiarra eta lurralde eskandinabiarretako gizarte-estaldura uztartzea lortu du (Zubero, 2007). Eta honi lotuta, formakuntzari –Enplegurako Politika Aktiboak– garrantzi handia ematen zaio eta langile guztietara zabaltzen den eskaintza izaten da. Horrela, formakuntza jaso ahal izateko enpleguetan pertsonen errotazioa ahalbidetzen da, enplegua duen pertsonak formakuntza jaso egiten duen arren eta gainera langabezian dagoen pertsona batek enplegu hori bereganatzen duen arren. Lehen esan bezala, gizarte-estaldura handia da. Zentzu honetan, eta datu batzuk aipatzearen, langabezirako prestazioak lau urteko iraupena du eta aurreko soldataren %90 jasotzen da. Era berean, lan politiketara zuzentzen den gastu publikoa Barne Produktu Gordinareneko %4 da (Auer, Berg eta Coulibaly, 2005: 366).

3.4.3. *Malgusegurtasun ereduaren balorazioa: Daniar ereduaren esportagarritasuna al da?*

Jada aipatu den bezala eta gutxienez lehenengo begirada batean behintzat, teorikoki erakargarria ematen duen ereduaren baldin bada malgusegurtasunarena, bere aplikazio praktikoa nola gauzatzen den oso garrantzitsua da eta ikusi beharko da Holanda edota Danimarkako bezalako ereduak ondo egokitzen diren ala ez beste lurralde batzuen ezaugarri eta bereizgarrietara. Honen bidez jakin ahalko baita gaur egungo eta etorkizuneko lan harremanen inguruko eztabaidan kontzeptu hau garrantzitsua izango den eta epe ertain eta luzera eragina izango ote duen. Edota, aldiz, eztabaidaguneetatik azkar desagertuko den. Are gehiago kontuan harturik Europar Batasunak bi eredu hauek, bereziki daniarra, irizpidetzat hartzen dituela malgusegurtasunaren hedapenerako.

Erantzun beharreko lehenengo galdera eredu hau Europar Batasuneko gainontzeko lurraldeetara esportagarria den ala ez da. Lehenik eta behin, interesgarria izango litzateke daniar ereduaren zeinu diren gizarte-politiken edota Enplegurako Politika Aktiboetan emandako gastu handia lurralde ertain edo handiago batean eman daitezkeen ala ez argitzea. Zentzu honetan, ezin da ahaztu Danimarkako populazioa 5,5 milioi ingurukoa dela, Alemania –82 milioi baino gehiago–, Frantzia –63 inguru– edota Espainia –46 inguru– baino kopuru askoz ere txikiagoa duena beraz. Kontuan hartu behar den beste elementu bat lurralde honetako presio fiskala da, gure ingurunearena baino askoz ere handiagoa baita. Ezberdintasun hauek era grafikoan ikustearren, Danimar-

kak bere Barne Produktu Gordinaren %30,1 gizarte gastuan erabiltzen duen bitartean, Espainian zifra hau %20,9ra jeisten da (Petrasova, 2008: 1). Era berean, eta jada aurreko artikuluan aipatu zen bezala, lurralde eskandinaviar honetako gizarte-prestazioak gure ingurukoak baino askoz ere zabalagoak dira. Azkenik, aipatzekoa da malgusegurtasun eredu hau lurralde hauetan instituzio publiko eta gizarte-eragileen akordioen bidez gauzatu egin dela (Miguélez, 2007), hauen kultura politikoaren baitan gizarte-konzertazioak, hemen ez bezala, garrantzi handia duelarik.

Hau guztia aipatu ondoren eta Ongizate Estatu nordikoak azaltzen dituen ezaugarriak kontuan hartuta, beste leku batzutara eramatea zailtasunak sorraraziko dituela pentsa daiteke (Esping-Andersen, 1993). Adibidez, zaila izan daiteke mediterranean inguruko ongizate-sistemen baitan bere ezaugarrietatik at gelditzen den malgusegurtasuna errotzea (Algan eta Cahuc, 2005). Gure gertuko ingurunean, esaterako, ematen diren gizarte-parametroak ez dute batere zerikusirik Europa erdialde edota iparraldekoekin, gehienbat gizarte-babesari dagokionez. Hori dela eta, malgusegurtasun ereduaren apostua egiten bada hemen, hasieratik egiturazko arazo bat egongo da, ereduaren oinarrietako baten ahuleziak oso nabarmenak izango baitira. Honen bidez, eredu anker baten aurrean egongo ginatekelarik.

Honen harira, erantzun beharreko hurrengo galdera Europar Bata-sunean malgusegurtasun eredu bakarra eman daitekeen edo eman behar den da. Akaso, lurralde bakoitzaren testuingurua zein ezaugarri kulturalak kontuan harturik eredu ezberdinak egikaritu beharko dira, malgusegurtasun ereduari buruz hitz egin beharrean malgusegurtasun *ereduei* buruz hitz eginda. Izan ere, lurralde batean onuragarria izan daitekeena agian ez da besteetan. Are gehiago, batean aurrera pausua izan daitekeena beste batean, aldiz, traba edo oztopo bat baino ez izan daiteke.

Esportagarritasunaren kontua alde batera utzita, aztertu beharreko hurrengo elementua zeri buruz hitz egiten ari garen argitzea da. Izan ere, kontzeptuaren bi elementuetako bati garrantzi handiago edo txikiago emanaz, lortzen den emaitza oso ezberdina izango da. Horregatik, argi utzi behar da lan-malgutasuna eta gizarte-babesaren alde egiten den era orekatu batean, edota hauetako baten bati lehentasuna ematen zaion. Beste hitzekin esanda, ondo zehaztu behar *malguti* zenbat eta *segurtasun*-etik zenbat hartuko den kasu eta garapen ezberdin bakoitzean. Hauxe da hain zuzen ere ideia honen inguruko eztabaidarik nagusia eta hasierako momentutik honen mugak ez badi-ra ondo zehazten eman daitekeen eztabaida antzua eta ahulduta jai daiteke.

Zentzu honetan, nolabaiteko banantzea antzematen da proposamenaren alde diskurtsibo eta normatiboaren artean, alde batetik; eta praktika eta benetazko aplikazioaren artean, bestetik. Bi hauen arteko batu-keta egokia ematea ezinbestekoa da malgusegurtasunaren inguruko eztabaidan, honen bidez argi uzteko *edukin-ontzi* polit baten barruan edukin interesgarria dagoen ala bakarrik malgutasuna eta lan-ezegonkortasuna areagotzeko *marketing* estrategia bat. Azken finean, eztabaida *malgu* eta *segurtasun* kopuruak zehaztean datza. Beste era batera esanda, eta koktelaren irudia erabiliz, koktela egiten duena eta erabiltzen dituen osagaien arabera –azken hauek Europar Batzordeak ematen dituela ematen du– zaporea ezberdina izango da, eta noski, alkohol eta zuku kopuruak ere ezberdinak izango dira. Zentzu honetan, ezin dugu ahaztu, batzuei koktela *kargatua* gustatzen zaien bitartean, besteei *sua-bea* gustatzen zaiela, hauxe da, eta ez beste bat, gaur egun malgusegurtasun ereduak erantzun behar duen galdera nagusia.

Eredu daniarra arrakastatsua baldin bada, malgutasunaz gain inbertsio altua eta gizarte-babeserako gastu handia egiten delako da. Honen harira, ezinezkoa da malgusegurtasunean oinarritutako neurriak martxan jartzea inongo kosturik gabe eta gizarte-politikak alde batera utzita. Gai honetan, beraz, *zero kostua* ezinezkoa da. Baieztapen hau ez bada kontuan hartzen, eredia ezegonkortasunean oinarritutako flexiplotazioa (Zubero, 2007) baino ez da izango. Ideia honetan zentratzen dira Europako Sindikatuetaiko Konfederazioan bilduta dauden sindikatu europar gehienak. 2007. urteko urrian Europar Batzordeak egindako proposamenekin oso kritikoa zen txostena argitaratu zuten. Estatu mailan ere, sindikatu handienek –UGT eta CCOO– azterketa honekin bat egiten dute, eta malgusegurtasunaren diskurtsoaren azpian lan-merkatua desregulatu nahi dituzten interes ideologikoak egon daitezkeela azpimarratzen dute hainbat gogoeta eta lanetan. Horrela bada, oso nabaria da lan arloko munduan zein sindikatuen artean malgusegurtasuna lan merkatua are eta prekarioagoa lortzeko *Troyako Zalditzat* jotzen dela.

Aurreko lerroetan aipatu denez, erakunde zein aditu asko dira malgusegurtasunari buruz hizketan ari garenean zeri buruz ari garen ondo zehaztea eta eztabaidaren esparrua ondo mugatzea defendatzen dutenak. Beste hitz batzuk erabiliz, eta Keunek aipatutakoa jarraituz, eztabaidaren muga hauek ez badira argitzen, malgusegurtasunaren eremua berrikuntza eta anbiguotasunaren baitan kokatuko da (Keune, 2008).

Azken finean, hainbestetan irmotasuna eta irudimen falta erakusten duen lanaren munduaren inguruko eztabaidan malgusegurtasunak *aire freskoa* ekar dezake. Honen harira, askotan hainbat erantzun sindikal zein politikok iraganera begiratzen dute eta gaur egungo errealitateari askotan nahiko minoritarioak eta orokortzeko zailtasunak erakusten

dituzten proposamenekin erantzuten diote. Esaterako, enplegu bat bizitza osorako izan daitekeela eta lan-ezegonkortasunari aurre egiteko haxe izan behar dela erantzuna pentsatzea nahiko irtenbide mugatua eta antzua izan daiteke, lehen ematen zen enplegu eredia –fordistajada gaur egun desagertzear dagoen eredia baita. Guzti honengatik, eta inoiz baino gehiago, lan harremanen kudeaketa neoliberalari aurre egin ahal diezaioketen alternatibak beharrezkoak dira.

Akaso lanpostua ez da izango bizitza osorako, baina honek ez du halabeharrez lan edota gizarte ezegonkortasun gehiagorik sortu behar langileentzako. Guiddens-ek elkarrizketa batean esaten zuen bezala “lanpostua baino, langilea da babestu behar dena” (Guiddens, 2006: 17). Zentzu honetan, garai berrietara eta gaur egun globalizazio ekonomikoak plazaratzen dituen erronketara egokitzea ezinbestean gauzatu behar da. Baina era berean, gizarte segurantza –zentzu zabal batean ulerturik– ezin da ahaztu eta berebiziko garrantzia du edozein gizarte garatu batean, gizarte-kohesioa bermatu nahi bada behintzat. Maila honetan malgusegurtasunaren inguruko eztabaidak elementu interesgarriak eskaini dezakeela ematen du, baina beti ere argi edukita polita izan daitekeen diskurtso baten atzean ezin direla ezkutatu alderdikeriak edota talde batzuen interes propioak. Beraz, eta atal honekin bukatzeko, oraindik heldutasun garai batera ailegatu ez den kontzeptu bati buruz ari gara eta hurrengo urteetan malgusegurtasunaren inguruan sakontzea lan merkatuaren eta gizarte-eskubideen eztabaidaren ardatzetako bat izango dela pentsa dezakegu.

3.5. EPA-en emaitzak eta kritika nagusiak

EPA-en inguruko emaitzei dagokienez orain arte egindako ikerketa eta ebaluazio ezberdinek ez dute ondorio argi edota zalantzaezinik azaldu (Hanesch, 2001; Kluve, 2006). Askotan ebaluazio hauek euren artean kontraesanak erakusten dituzte. Hortaz, batzutan hauen ondorio baikorrak azpimarratzen diren bitartean, beste batzutan ondorio hauek oso txikiak dira eta zenbaitetan ondorio onik ez dela ematen ere aipatzen da (Martin, 1998). Oro har ebaluazio ezberdinak hartzen baditugu EPA-en emaitzak nahiko mugatuak direla esan dezakegu (De Graaf, Frericks eta Maier, 2003; Meghir, 2008). Gainera EPA-en hainbat arlo gutxi aztertu direnez eta beste zenbaitetan lortutako ondorio itxigabeek, gehiago zailtzen dute honen inguruko baieztapen argiak eskaintzea. Honen harira, egile ezberdinen arabera, formakuntzak emaitza ahulak lortzen dituen bitartean, aholkularitzan zentratzen diren programek ondorio hobekoak lortzen dituzte eta hauetan egiten den gastua gainera baxuagoa da. Sektore pribatuari eskaintzen zaizkion diru-lagun-

tzak ere epe motzean onuragarriak izaten dira baina bukatzean gehienetan enpresariak ez du lanpostua mantentzen. Sektore publikoan egindako lanari dagokionez bere arrakasta oso txikia da eta gutxi dira enplegu mota hauetatik ohiko lan-merkatura pasatzen diren pertsonak (Martin, 1998). Kluve-ren ustez, zigorretan oinarritutako neurriek ondorio onak erakusten dituzte, sektore publikoan sortzen diren enplegu publikoek ondorio ezkorrak eta formakuntzan zentratzen diren politiken eragina nahiko ahula izaten da (Kluve, 2006). Beste ikerketen arabera, aldiz, emaitza hoberenak lortzen dituenak babestutako enplegua eta lan formakuntzaren konbinaketan oinarritzen diren neurriak dira (Daguerra eta Etherington, 2009). Babestutako enpleguaren dohaiak defendatzen dutenen artean Esteveo (2003) eta Meghir (2008) ere kokatzen dira. Laburbilduz, ikusi daitekeen bezala, egile eta hauen gerturapenaren arabera azpimarratzen diren ondorio eta emaitzak nahiko ezberdinak dira eta beraz zaila da baieztapen argiak ondorioztatzea.

Europar Batzordearen arabera, European gastu gehien suposatzen duen EPA, formakuntzarena alegia, nahiko emaitza urriak izan ditu orain arte. Are gehiago, zenbaitetan eragin ezkorrak izaten dituela esaten da ere. Dena den, formakuntzaren kasuan epe ertain eta luzea kontuan hartu behar dira honen ebaluaketa egokia egin ahal izateko (De Koning eta Mosley, 2002). Formakuntza okupazionalako programetan hauen arrakasta oso loturik dago parte-hartzaileen ikasketa mailara, formakuntza jarraiko programek ere mugak erakusten dituzte (CES, 2001). Aurreko pasartean aipatu denez, sektore pribatuari ematen zaizkion pizgarriak emaitzak lortzen dituztela ematen du. Era berean, eta Europar Batzordeak egindako ebaluaketarekin jarraituta, zigorrak ezartzea onurak izaten ditu langabetuen lan-merkaturatzean eta gainera eraginkortasuna eta kostuaren harreman egokia ematen da zigorretan oinarritzen diren programetan. Azkenik, gazteentzako programetan ondorio kontraesankorrak agertzen dira lurraldearen arabera eta emaitza orokorrak lortzea zaila suertatzen da. Espainiari dagokionez ez dira ezberdintasun nabaririk somatzen Europako beste lurraldeekin konparatuz (European Commission, 2005).

Beraz, eta laburbilduz, EPA-en emaitzak neurtzeko lan-merkaturatzea irizpide nagusitzat hartzen badugu oro har arazo handiak erakusten dutela esan dezakegu (OECD, 1993; Forslund eta Kruegeer, 1995; Martin, 1998; Fina, 2001; De Graaf, Frerics eta Maier, 2003; Barbier, 2006). Are gehiago, kontuan hartzen badugu atal honetan egiten den gastua oso handia dela. Era berean, zenbaitetan lan-merkaturatzea ematen da, baina honek gehienetan ez du suposatzen enpleguaren kalitatea hobetu egiten denik ondoren (Alujas, 2003). Honen harira, eta Suedian egindako txosten baten arabera askotan programa hauetan

parte hartzen duten pertsonen epe txiki baterako behin-behineko enplegu eta desenplegurako diru-laguntzaren artean igarotzen dituzte urte asko (Kananen, Taylor- Gooby eta Larsen, 2004).

EPA barruan kokatzen diren programei dagokienez hauen arteko ezberdintasunak eta aniztasuna kontuan hartu beharko litzateke, hauen emaitzak eta arrakastak neurtzerako momentuan ere. Izan ere, babes-tutako enplegua, enplegua zuzenean sortzea edota zigorretan oinarritutako neurrien eragina epe motzean nabaritzen da. Formakuntzan zentratutakoetan, aldiz, eragina epe ertainean somatzen da, programa horretan parte hartu eta bi edo hiru urtetara alegia (OECD, 2005). Halaber, EPA-k ebaluatzeko garaian epe ezberdinak kontuan hartzea garrantzitsua izan daiteke, hauen emaitzak aztertzeko eta balorazioa egiteko interesgarria izan daitekeelarik epe motza, ertaina eta luzea kontuan hartzea eta hauek ondo bereiztea (Card, Kluge eta Weber, 2009).

Ezin da ahaztu ere EPA-en arrakasta asko jaitsi egiten dela arazo gehien duten kolektiboetan (De Koning eta Mosley, 2002; Pérez, 2008). Halaber, lan merkatuarekin harreman handiena eta oztopo gutxien dituztenak dira EPA-k gehien aprobetxatzen dituztenak (Barbier, 2006). Honi lotuta ere, testuinguru geografikoak edota momentu bateko egoerak programa hauen arrakasta baldintzatu dezake era nabarmen batean (Garrell, Salvado eta Vives, 2000). Pertsona, leku edo momentu batean egokia izan daitekeen neurri bat ez da izango beste pertsona batenzat eta elementu hau ere kontuan hartu behar da programak orokortzeko nahia baldin badago.

Dena den, lan-merkatutzeko politika hauek neurtzeko irizpidea baztertzen bada eta parte-hartzaileen autoestiman edota gizarteratzea bezalako elementuak kontuan hartzen badira, programa hauen balorazioa nahiko handia izaten da (Van Berkel eta Honermann, 2004). Iritzi hau zuzenean kapitulu honen hasierako eztabaidara garamatza, alegia aktibazioa kontzeptuaren definizioaren ingurukoa eta honen esanahira: aktibazioa soilik lan-merkatutzera zuzentzen da ala beste elementuak izan behar ditu? Honen harira, EPA-k lan-merkatutzean baino onuragarriagoak direla gizarte aktibazio kontzeptuaren baitan ematen du.

EPA-ei egiten zaizkien kritikei dagokienez, maila ezberdinetan kokatzen diren hainbat topa daitezke. Kudeaketa mailan aipatzen den lehenengo oztopoa europar mailan neurri berdinak edo antzekoak lurralde guztietan aplikatzearena da. Izan ere, Europar Batasuneko lurraldeen arteko ezberdinatsun sozio-ekonomikoak oso handiak dira eta akaso lurralde baterako onuragarria dena ez da beste batentzat. Are gehiago, agian kaltegarria izan daiteke. Adibideak aipatzearen Suedia, Norvegia edota Holandako errealitatea eta Espainia edota Erresuma Batukoak oso ezberdinak dira, euren abiapuntuak ere oso ezberdinak

eta lurralde hauetan EPA-en inguruan eman den garapena oso askotarikoa. Hortaz, EPA neurri jakin baten emaitza oso ezberdina izan daiteke lurralde batean zein bestean.

Aspektu normatiboei lotuta, EPA-k duten arazo nagusienetarikoa workfare ereduaren eragina jaso egiten dutela sarritan eta azken honen norabidea hartu dezaketela da. Geldof-ek adibidez, arrisku hau ikusten du eta bere ustez EPA-k karitatearen eredu berria eraiki dezakete (Geldof, 1999), eskubideen gerturapen teorikotik urrunduz. Zentzu honetan, zenbait ezaugarrik baldintzatu egingo dute bide bat hartzea edo bestea, hauen artean besteak beste testuinguru sozioekonomikoa, enpleguaren kalitatea edota lan-merkatuazte azkar bati ematen zaio garrantzia aipatu daitezke. Lurralde eskandinabiarren EPA ereduak aztertu direnean ikusi den bezala, hainbat programetan formakuntza edota hezkuntza bigarren maila batera pasatzen ari da eta hauen ordeze dozein enplegu onartzeko derrigorpena, diru-laguntzaren murrizketa edota baldintza gehiago ipintzea gailentzen ari dira. Beraz, hurrengo urteetan EPA ezberdinak arretaz jarraitu beharko dira eta ikusi beharko da enplegua sortu eta era berean kohesioa bermatzen duten ala gizarte-zaugarritasunean era ezkor batean eragiten duten. Aktibazioa esku-bidea ala betebeharra den ere argitu beharko da, izan ere honen arabera EPA-k era ezberdinean eragingo dute Europa mailan hiritartasuna edota gizarte-bazterkeria bezalako errealitateetan.

Baina honetaz gain badaude beste kritika batzuk. Orain arte egindako ebaluazioei erreparatuta nahiko nabaria da teoriarik defendatzen dena –norbanakoa lan bat lortzeko gaitasuna handitzen dela, langabezia eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko tresna eragingarria dela...– eta praktikan frogatzen denaren artean tarte handia dagoela. Beraz, etorkizunera begira lortu beharko da ebaluaketa egoki eta zehatzak egitea, honen bidez helburu eta ekintzen arteko erlazio egokia ematen den ala ez argi edukitzeko eta guzti hau erretorika ideologikoak alde batera utzita. Honi lotuta eta emaitzak kontuan harturik, nahiko eztabaidagarria da EPA-etan ematen den gastuaren zenbatekoa alde batetik eta lorpenak bestetik gastu hau justifikatzen duten ala ez. Izan ere, politika hauetan erabiltzen den dirutza handia da baina gero emaitzak nahiko mugatuak. Argudiaketa muturreraino eramanda, zenbait kasutan merkeago aterako litzateke zuzenean langabezia dagoen pertsonari diru-laguntza ematea inongo baldintzarik gabe eta EPA-k aurrera eramane gabe, enplegurako politika pasiboetara bueltatzea alegia.

Guzti hau esan ondoren EPA guztiak txarrak eta okerrak direla eman dezake. Ez da hala, dena den kritika guzti hauek kontuan hartu beharko lirateke hauen hobekuntza bideratzeko eta gaur egun aurrera eramane diren hainbat programa berplanteatzeko. Zentzu honetan, agian

EPA-engan jarritako espektatibak gehiegizkoak dira eta hauek langabeziarekin eta gizarte-bazterkeriarekin bukatuko dutelaren ideia kaltegarria izan da lehenengo momentutik. Beraz, helburuak eta emaitzen arteko oreka berria bilatu beharko litzateke. Bestetik, aktibazioa eta lan-merkaturatzea bateratzea agian akats bat izan da eta helburu eta bitartekoen arteko nahasmenera eraman gaitu. Helburua integrazioa izango litzateke eta bitartekoa enplegua baina ez alderantziz. Gainera EPA-en mugak denbora oro kontuan hartu behar dira eta jada behin baino gehiagotan aipatu den bezala arazo handiak edota gizarte-bazterkeria larrian kokatzen direnentzako programa hauek eskaintzen dituzten aukerak nahiko urriak dira (Madsen, 2002). Argi izan behar dugu hainbat kolektiboen enplegarritasun maila nahiko txikia izango dela testuinguru eta programa ezberdinetan eta horregatik abiapuntu-tzat bezala argi eduki beharko genuke EPA eta lanaren bidezko aktibazioaren mugak, zenbait kolektiboekin bederen. Kasu hauetan, halabeharrez, aktibazioaren kontzeptu askoz ere zabalagoa kontuan hartzea beharrezkoa izango da eta argi eduki beharko dugu ere emaitzak epe ertain eta luzera begira soilik lortu ahal izango direla. Gainontzeko estrategiak hankamotz geldituko dira gehienetan eta integrazioaren helburua zokoratuta uzteko arriskua egongo da.

4. Kapituluua: gizarteratzeko gutxieneko errentak

4.1. **Gutxieneko errenten definizio eta ezaugarriak**

Gutxieneko errentek –GE hemendik aurrera– gizarte-bazterkeria abiapuntua duen gerturapen teoriko europarrean dute jatorria, bertan gizarte barruko elkartasunak eta gizarteratzearen ideiek garrantzi handia dutelarik. Gizarteratzearen ideiaaren arabera, gero eta jende gehiago da gizarte eta integraziotik at gelditzen dena. Egoera horren aurrean gizarteak ardurara bat dauka eta elkartasunaren bidez gauzatzen da (Beland eta Hansen, 2000). Ikuspegi honentzat gizarte-bazterkeria egiturazko izaera duen arazoa da eta hortaz komunitate politikoak elkartasunez erantzun beharko luke. Horrela bada, pertsona hauen gizarteratze egokia emateko gizarteak bitarteko ezberdinak martxan jarri behar ditu eta testuinguru horretan, hain zuzen ere kokatzen dira GE. Ditch-en arabera GE bi helburuei aurre egiten saiatzen dira: baliabiderik ez duten pertsonen beharrak asetu eta prebenitzea alde batetik; eta gizar-te-bazterkeriari aurre egitea, bestetik (Ditch, 1999: 60). Politika hauen eredurik nagusia aipatu beharko bagenu, Frantzia da gaur egun adibiderik nagusia eta bertan langabezia eta gizarte-bazterkeria egiturazko arazotzat jotzen dira eta hauei erantzuteko gizarteratzea sustatzen diren neurriak hedatu dira (Gallie, 2000). Kapitulu honetan zehar ikusiko den bezala, azken garai hauetan Frantziako GE-etan aldaketa nagusiak eman diren arren orain arte hauxe izan da eredurik aipagarriena.

Jatorri teorikoaz gain, neurri hau jaiotzen den testuingurua kontuan hartzea interesgarria da ere. GE-en hastapenak 1973. urtean emandako petroleoaren krisiarekin lotu dezakegu. Data hau eta gero langabezia azkar eta asko haziko da, ondoren enpleguaren ezegonkortasuna edota familia egituren aldaketak ere emango direlarik (Euzéby, 1991; Paugam, 1999). Elementu guzti hauek Ongizate Estatua krisira eramaten

dute eta lehen enpleguaren bidez babestuta gelditzen ziren hainbat kolektibo momentu honetatik aurrera arazoak izango dituzte euren beharrianak asetu ahal izateko.

Testuinguru eta errealtate honetan Ongizate Estatuak dituen gabezia hauei aurre egiteko bi aukera dira nagusitzen direnak. Alde batetik, babesgabezia egoeran dauden kolektibo hauentzat gizarte-laguntzak desagertzea eta karitate pribatuaren esku gelditzea. Bestetik, gizarte-babeseko sistemetan erreformak egitea, gehienbat lan munduan eman diren aldaketei aurre egiteko. Kasu gehienetan bigarren aukeraren alde egin da, GE-en aldeko apostua egin da eta. GE gizarte babes publikoaren azken baliabidea dira eta lurralde askotan Ongizate Estatuaren berregokitze lanetan oinarrizko neurria (Ayala, 2000), hauen garrantzia asko hazi delarik azkeneko urteetan. Castel-en hitzetan “berrikuntza nabaria suposatzen dute aurreko gizarte-politiken aldean” (Castel, 1997: 434).

Programa hauen izenari dagokionez asko dira –eta ez beti sinonimoak– erabiltzen diren hitzak, hauetako batzuk honako hauek direlarik: “gizarte soldata, hiritar soldata, diru-sarrerak bermatzeko subsidioa, gutxieneko errenta, bermaturiko errenta, gizarteratzeko errenta, gizarte diru-sarrera, gutxieneko diru-sarrera, familiarako gutxieneko diru-sarrera, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera, pobreen soldata, etab.” (Susín, 2000: 278). Beste zenbaitetan kontrakoa gertatzen da, alegia, ezberdinak diren bi kontzeptu izen bera hartzen dutela. Hauxe da hain zuzen ere GE eta Hiritartasun Oinarrizko Errentaren artean gertatzen dena, lehenengoa baldintzaturik dagoen diru-sarrera izanik eta bigarrena izaera unibertsala eta baldintzarik gabeko prestazioa delarik. Liburu honetan zehar gutxieneko errenta terminoa erabiltzea hobetsi da, oro har gehien erabiltzen dena delako eta Europar Batzordeak erabiltzen duen *minimum income* itzultzeko hitz egokia iruditzen zaigulako.

GE-en definizioei dagokienez, asko dira arlo honetako literaturan topa daitezkeenak, gehienetan elementu komunak agertzen direlarik. Aguilar, Laparra eta Gaviriarentzat, gai honetan Estatu mailan dauden aditu nagusienetariakoak, GE “onargarria den gutxienekoaren azpitik inor ez egoteko prestazio ekonomikoa izango litzateke. Gehienetan diru-laguntza hau hilerokoa da eta jada ematen diren diru-sarreraren osagarria izango zen, beti ere ezarri den gutxienekora ailegatu ahal izateko” (Aguilar, Laparra eta Gaviria, 1996: 164). Maila akademikoan kokatzen diren definizio hauekin jarraituz, Ditch eta Roberts-entzat “gutxieneko diru-sarrerak beste diru-sarrerarik ez dagoenean pertsona eta bere kargu dauden besteei laguntzen diete. Izaera ez kontributiboa dute eta gehienetan ez dute denbora mugarik. Eskatzaileak jasotzen duen diru kopurua bere egoera, bere karguan dituen kideen, etxebizi-

tzaren gastuen eta beste baldintzen arabera dago” (Ditch eta Roberts, 2002: 5). Gobernu Kanpoko Erakundeen Solidar Federazioarentzat, aldiz, “gutxieneko errenta bermaturik eta izaera ez kontributiboa duen diru-sarrera da. Gizarte-babesaren azken segurtasun sarea da eta bere helburua pobrezia eta bazterkeria ekiditea izango litzateke (Solidar, 2006: 5). Hain luzea ez den definizioarekn jarraituz, Moreno-ren arabera GE “bizirauteko eta gizarteratzeko baliabide propioak ez dituzten hiritarrei eskaintzen zaizkien gutxieneko ekonomikoaren bermaketa da” (Moreno, 2000: 62). Azkenik, Luis Sanzorentzat, GE “diru-sarrerarik ez duten edo baliabide nahikorik ez duten pertsonentzat ezartzen den azkeneko segurtasun maila izango litzateke, administrazioak ezartzen duen diru-sarreraren gutxieneko kopurura ailegatzen ez direnentzako alegia” (Sanzo, 1991: 157).

Aipatutako definizio hauek hainbat elementu komunean dituzte. Hala nola, GE babes asistentzial mailan kokatzen direla eta oro har lan adinean dauden pertsonen gizarteratzea eta gutxieneko ekonomiko batzuk helburutzat dutela. Horrela bada, Ongizate Estatuaren azkeneko laguntza edo segurtasun sarea dira. Era berean, Europar mailan bederen, paper garrantzitsua jokatzen dute pobrezia eta gizarte-bazterkeriari aurre egiten (Peña-Casas, 2005) eta babeserako sistema tradizionalak ezartzen dituzten gabeziei erantzun bat ematen diote.

Definizio hauek kontuan harturik ere hainbat ezaugarri azpimarratu daitezke GE-ei dagokienez. Kasu honetan, Chantal Euzébyk egindako ekarpena da aurkeztuko dena, lau ezaugarri ezberdin aipatzen dituelarik (Euzéby, 1991: 95-96):

1. Gizarte segurantzaren osagarri gisa jokatzen dute, baliabide nahikorik ez duten pertsonentzako azken babes neurria direlarik.
2. Baldintzak dituzten diru-laguntzak dira. Hortaz, adina, egoitza, nazionalitatea edota gizarteratzeko programetan parte hartzeko betebeharra bezalako baldintzak bete behar dira diru-laguntza jaso ahal izateko.
3. Eskubidea baino *sasi eskubidea* dira. Izan ere, testuinguru ekonomikoaren arabera hainbat lurraldeetan oztopo gehiago edo gutxiago jartzen dira programa hauen kudeaketan, zenbait lekuetan eskubide subjektiboa diren arren, besteetan aurrekontu edo borondate politikoaren esku gelditzen dira.
4. Denbora erperik ez da izaten.

Estatu mailari dagokionez, Sarasa, Almeda eta Obiols-ek hainbat ezaugarri ere aipatzen dituzte, hein handi batean Euzéby-k egindako ekarpenarekin bat egiten dutenak hain zuzen ere. Kasu honetan erkide-

goen artean ematen diren elementu komunak diru-sarrera bat jasotzea, programa hauek eskubidea edo sasi-eskubidea izatea, aurretik erkidego horretan denbora jakin batez bizi izatea, baliabideen gabezia frogatzea, diru-laguntzaren denbora muga edota gizarteratze programetan parte hartzeko beharra izango lirateke (Sarasa, Almeda eta Obiols, 2000).

Kapitulu honetako lehehengo atal honekin bukatzeko ezin aipatu gabe utzi zeintzuk diren GE programen onuradun nagusiak. Hasiera batean, Gizarte Segurantzaren kotizatu ez edota gutxi kotizatu dutenentzako neurria da GE. Hortaz, Ongizate Estatu eredu kontributiboak uzten dituen zuloak betetzeko jaiotzen dira programa hauek. Dena den, urteen poderioz, GE pobrezia eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko tresna garrantzitsu bilakatu dira. Zentzu honetan, pobre berrien betebeharrak asetzeko baliabide nagusienetakoa da gaur egun GE eta aldaketa demografiko, enpleguaren desagertzea, lan harremanen ezegonkortasuna edota familia egituretan eman diren aldaketan aurrean tresna garrantzitsua dira gaur egun.

Kolektibo zehatzei dagokienez, aniztasuna da nagusi, egoera ekonomiko zein sozial asko topa ditezkelarik GE jasotzen dituzten pertsonen artean. Dena den, hainbat kolektibo jakin azpimarratu daitezke erabiltzaileen artean: bakarrik bizi diren pertsonak, etorkinak, seme-alabak bere kargu dituzten emakumeak, desenplegu arazoa duten familiak edota gutxieneko etniko jakin batzuk, ijituena esaterako. Deigarria da oso, adibidez, azken urte hauetan garatu den working poors edo langile pobreen kopurua gero eta handiagoa dela GE-en programetan (Guinea, 2004). Lehen hau salbuespena izaten baldin bazen ere, lehen GE soilik langabezia egoeran zeudenak jasotzen baitzuten, gaur egun arrunt bilakatu da. Euskal Autonomi Erkidegoan, adibidez, 2005. urtean GE jasotzen zutenen artean %19 diru-laguntzaz gain ordainduriko lanen bat bazuen (Azkarraga, 2005: 8). Are gehiago, 2008. urtean argitaratu zen inkesta baten arabera, EAEn GE eta ordainduriko lanen bat zutenen kopurua %33koa zen (Eusko Jaurlaritzak, 2008: 5).

GE-en programa frantsesean onuradunen erdiak baino gehiago bakarrik bizi dira eta beste kolektibo aipagarri bat familia monoparentalena da, bertan emakumeak buru diren familiak nagusi direlarik eta GE jasotzen duten guztien %25 suposatzen dutelarik. Frantziar ereduaren inguruan azpimarratu daitezkeen beste elementu bat onuradunen adina gero eta gazteagoa eta gero eta emakume gehiago jasotzen dutela da. Horrela, GE jasotzen dutenen lauetatik bat 30 urte baino gutxiago du (Mandin eta Palier, 2003: 42).

Datu hauek argi erakusten dute azken urte hauetan gizarte-bazterkeria pairatzen duten kolektiboetan emandako aldaketak eta zeintzuk diren ere kolektibo berriak –langile pobreak, emakumeak, etorkinak,

gazteak...-. Honen harira, GE-en programa askotan emakumeak dira nagusi. 2001. urtean EAEn, onuradunen %69,7 emakumeak ziren (CES, 2002) eta 2008. urtean ehuneko hau %68,3koa zen (Eusko Jaurilaritza, 2008: 8). Hauen barruan ere, indarkeria pairatu dutenen kopurua gero eta handiagoa da, Kataluñako kasuan, adibidez, erabiltzaile guztien %7 indarkeria pairatutako emakumeak ziren (Coll, 2004).

Hala ere, eta jada aipatu den bezala, aniztasuna da kolektibo hauen ezaugarri komun nagusia, kolektibo ezberdin hauen beharrak eta beraz gizarteratzeko ibilbideak oso ezberdinak izaten direlarik. Epe jakin eta txiki batez GE jasotzen dutenentzat eta enplegarritasun-maila nahiko handia dutenentzat programaren alderik garrantzitsuena diru-sarrerren bermaketa izaten da, gizarteratzeko programak askotan bigarren maila batean gelditzen direlarik. Enplegarritasun arazo larriak dituztenentzako, aldiz, gizarteratzeko planak garrantzitsuagoak izaten dira eta askotan arlo sozialean zentratu behar dira hasierako momentu batean eta ez hainbeste lan-merkataturatzean (Ayala eta Rodríguez Coma, 2003). Era berean, GE jasotzen dutenen artean, programa oso azkar uzten duten pertsonak, programa utzi eta azkar berriz bueltatzen dena edota epe luzeetan zehar jasotzen dutenak topa daitezke. Azken kolektibo honetan, adibidez, ijituen taldea edota gaixotasun mentalak dituzten pertsonen kolektiboak aipagarriak dira. Kronifikatuta dauden talde hauek askotan gizarteratze programa berezi eta intentsiboak behar izaten dituzte eta hauen enplegarritasun maila oso urria izaten da.

4.2. **Gutxieneko errenten sorrera eta garapena: frantziako RMI**

Gaur egungo GE programa gehienak 90. hamarkadan zehar jarri ziren martxan. Dena den, Europako hainbat lurraldeetan XX. mende erdialderako jada gaur egungo programekin antzekotasun handiak azaltzen dituzten neurriak bazeuden, gehienetan gutxieneko diru-sarrerak bermatzearen helburua zuten diru-laguntza asistentzialak izaten zirelarik. Danimarkan, esaterako, 1933. urtean jadanik GE programa bat bazegoen. Beranduago, eta Ongizate Estatuaren sorrerarekin batera Erresuma Batuan 1948. urtean diru-sarrerak bermatzeko plana martxan jarri zen, gaur egun *Income Support* izenarekin ezagutzen dena.

60. eta 70. hamarkadetan zehar Holanda edota Alemania bezalako lurraldeek ere programa ezberdinak gauzatuko zituzte. Lehenengo belaunaldiko (García Romero, 1999) programa hauen ezaugarri komuna, guztiak 70. hamarkadako krisia baino lehen martxan jarri zirela eta beraz kolektibo zehatz eta minoritarioentzat jaio zirela da. Era berean, eta salbuespenen bat alde batera utzita, lurralde gehienetan izaera unibertsala duen Ongizate Estatu *beveridgianoa* da nagusi. Baina progra-

ma hauen benetazko beharra krisia jazo ostean emango da, izaera ez kontributiboa duten gizarte-prestazioen beharra ikusten denean alegia. Momentu honetan, GE-en programak sortuko dira Belgika, Irlanda edota Luxemburgo bezalako lurraldeetan. Hauek dira GE programen bigarren belaunaldiari hasiera emango diotenak eta hauen jomuga eta krisi garaian garatzen diren programen eredurik azpimarragarriena 1988. urtean Frantzian martxan jartzen dena izango da.

Honen harira, Luis Ayalak hiru GE mota ezberdin bereizten ditu garaiazen arabera. Lehenengoak Ongizate Estatuaren sorrerarekin bat egingo luke, izaera unibertsaleko diru-laguntza izango zelarik. Lehenengo mota honetan Erresuma Batua, Holanda edota Alemania kokatuko lirateke. Bigarrenik, 70. hamarkadan eta krisi ekonomikoarekin batera hedatzen direnak kokatzen dira, Belgika edota Irlandakoak. Azkenik, eta GE hirugarren uhinaldiaren adierazgarritzat, 80. hamarkada bukaeran gauzatzen direnak daude. Kasu honetan Frantziako Revenu Minimum d'Insertion –RMI– da ezagunena (Ayala, 2000: 95-98).

Ayalaren sailkapen hau interesgarria den arren, liburu honetan zehar azken belaunaldiko GE-etan zentratuko gara. Izan ere RMI sortu arte programa gehienak diru-sarreretan oinarritzen baziren ere, Frantziako ereduak berriztapen nagusi bat ekarriko du. Diru-sarrerak emateaz gain, gizarteratzea programaren bigarren hanka izango da eta azken elementu honi garrantzi handia emango zaio honen ondoren sortutako programa guztietan. Estatu mailan ematen diren erkidego programetan, esaterako, nabaria da Frantziako ereduaren eragina eta baita ere Europa Hegoaldeko lurraldeetako programetan –Portugal eta bere garaian Italia– edota Belgikako kasuan (Geldof, 1999). Horrela izanik, 80. hamarkada bukaera baino lehen gauzatutako programa eta azken urteetan emandakoen arteko ezberdintasun nabariena gizarteratzeari ematen zaion garrantzian datza (Susín, 2003).

Horrela bada, RMI izaera bikoitza duten programen abiapuntua izango da eta diru-sarrerak eta gizarteatzearen arteko harremana zehaztuko du. Hortaz, GE-en programen onuradunak oro har diru-sarrera jaso ahal izateko gizateratze programak onartu eta hauetan parte hartu behar du, gehienetan azken helburua lan-merkaturatzea delarik. Frantzian, gizarteratzeko hitzarmena ezarri zen, onuradunak hitzarmen hau sinatu eta jarraitu behar duelarik diru-sarrera jaso ahal izateko. Edo guxtienez hau da legean esaten zena. Gizarteratzeari ematen zaion nagusitasuna hain da handia, ezen Estatuaren beharra bezala ulertzen dela eta onuradunak eta gizarteak sinatutako akordioaren arabera arautzen den (Milano, 1990; Mandin eta Palier, 2003).

Gizarteratzea eta honen betebeharrari buruzko eztabaida RMI-aren legea egin baino lehen agertu egin zen. Horrela, batzuentzat onuradu-

na ekimen edo lanen bat egitera behartuta egon behar bazen ere, beste batzuentzat gizarteratzea ez zen betebeharr bezala ulertu behar, baik eta norbanakoaren eskubide bezala. Azkenean, legean gizarteratze hitzarmenen alde egin zen, aipatutako bi ikuspegiaren artean kokatzen zena hain zuzen ere. Izan ere, hitzarmen hauek sinatu eta bete behar dira, bestela zigorrak eta programatik botatzeko mehatxua dago. Baina gero errealiatzen zigorren bide hau ez da asko garatu eta askotan hitzarmen hauek ez dira sinatu egin ere.

GE-en sortzearen ideia 80. hamarkadan zehar garatu bazen Frantzia pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren eztabaida zabalaren parte bezala, benetan 1988. urteko hauteskunde kanpainan hartuko du indarra, hainbat erlijio erakunde bultzadari esker. Horrela bada, Miterrand-ek bere hauteskunde-programan GE martxan jartzea defendatu du "ezer ez duten eta ezer egin ezin duten pertsonen bizi-maila bermatzeko" (Mandin eta Palier, 2003: 41). Era honetan, 1988. urteko abenduak 3an Frantziako Parlamentuak RMI onartu du.

Hasiera batean hainbat baldintza ezarri ziren diru-laguntza hau jasotzeko: Frantzia bizi izatea, 25 urte baino gehiago edukitzea edota seme-alabak kargu izatea, diru-sarrera nahikorik ez izatea eta gizarteratze programetan parte hartzeko konpromesua (Estivill eta De la Hoz, 1989). Zenbatekoari dagokionez, hasiera batean 2.000 frankotakoa zen pertsona batentzat, 3.000 bi pertsonentzako eta 600 franko gehiago karguan zegoen pertsona bakoitzeko. Horrela bada, bi seme-alaba zituen bikote batek 4.200 franko jasotzen zituen. 2004. urtean RMI-aren kopurua pertsona batentzat 417 eurokoa zen, 625 bi pertsonentzako eta seme edo alaba bakoitzeko 166 euro gehiago jasotzen ziren (Euzéby, 2004: 6). RMI-an diru-sarrera eta gizarteratze programaz gain beste neurri batzuk eskaintzen dira ere. Hala nola, etxebizitzarako laguntzak edota osasun arreta bermatzen duen estaldura. Onuradun kopuruei dagokionez, gorako norabide izan du etengabe. Horrela, hasiera batean 400.000 pertsona jasotzen bazuten ere (De la Hoz, 1991: 176), 2001. ean milioi bat inguru ziren (Roberts, 2001: 7). Urte honetan emandako hazkundera aurrekoarekin konparatuta %8,5koa izan zen, gehienbat Frantzia emandako lan erreformaren ondorioz (European Commission, 2006b). 2006. urtean, 1.200.000 familia -hogeitik bat- jasotzen zuten RMI (Seillier, 2006). Hortaz 2 milioi pertsona baino gehiagok RMI-ri esker lortzen zituzten bere diru-sarreraren kopuru bat (Euzéby, 2004: 6; L'Horty, 2006: 8), guztira populazio frantziarraren %3 inguru. Hurrengo atal batean ikusiko dugun bezala etengabeko hazkundera hau izan da, beste faktore batzuei lotuta, RMI-aren erreforma bultzatu egin duena, 2009. urteko ekainetik aurrera RSA ematen delarik –Revenu de Solidarité Active–.

4.3. Estatu mailako gutxieneko errentak: 17 eredu

4.3.1. *Gutxieneko errenten sorrera*

Estatu mailako GE-en programen azalpenarekin hasi baino lehen interesgarria izan daiteke hauen jatorriari buruz eta hasierako fasean parte hartu zuten eragileei buruz hitz egitea, bertan eman ziren eztabaidak hobeto ulertu eta aztertu ahal izateko. GE-en eztabaidaren hasieran -80. hamarkada bukaera eta 90.aren hasiera- garrantzitsua izan zen sindikatuek jokatu zuten papera (Arriba, 1999). 1988. urteko abenduak 14ko greba orokorraren aldarrikapenen artean, esaterako, gutxieneko errenten sistema nazional bat eratzea zegoen eta honi esker iritzi publikoan eztabaidatu egin zen gaia izan zen. Sindikatuez gain, arlo sozial zein erlijiosoan kokatzen diren erakunde eta elkarte ezberdinak GE-en alde agertu ziren momentu honetan ere.

Dena den, eztabaidarik interesgarriena arlo politikoan eman zen. Gobernu zentrala GE-en kontra azalduko da, helburua enplegua sortzea izan behar dela eta ez diru-sarrera bat eskaintzea aldarrikatuz. Garai honetako gobernu sozialistarentzat izaera ez kontributiboa zuen diru-laguntza bat martxan jartzea oso arriskutsua izan zitekeen. Zentzu honetan, oso entzutetsuak izan ziren garai hartako Gizarte Gaietarako Ministrak, Matilde Fernández-ek esandakoak. Bere ustez lanik egin gabe diru-sarrera bat ematea arrainak ematea bezala izango zen, eta benetan langabezia egoeran daudenak kanabera da behar dutena –enplegua– eta ez arrainak –gutxieneko errentak–. Bitxikeri moduan, hitz hauek izenburua eman zioten arlo honetan Estatu mailan erreferentia den liburu bati: *La caña y el pez. Estudio sobre los salarios sociales en las Comunidades Autónomas* (Aguilar, Gaviria eta Laparra, 1995). Eztabaida honetan eskumenen inguruko lehiak ere eragina izan zuen. Azkenik, gobernu zentralak ez zuen izaera nazionaleko programarik martxan jarri eta erkidego bakoitzak bere programa berezia aurrera eraman zuen. Atal honetan ikusiko den bezala, erkidego mailako programa bereziak egotea eta Estatu mailan 17 ezberdin egoteak eragin zuzena izango du GE-en bilakaera zein ezaugarrietan.

GE-en lehenengo programa Euskal Autonomi Erkidegoan jarri zen martxan 1989. urtean, Familiarako Gutxieneko Diru-Sarrera izenarekin eta urte bat lehenago Frantzia irekitako bideari jarraituz. Kasu honetan esanguratsua da ere, EAEn, beste lekuetan ez bezala, pobrezia eta gizarte-bazterkeriari buruzko eztabaidaren Ondorica izan zela GE-en garapena, gehienbat Pobrezia eta gizarte ezberdintasunei buruzko inkestak eskainitako datuen ondorioz. Hurrengo urteetan, EAEn bultzadaren magalean baina eztabaida sakon gutxiagorekin (García Romero, 1999) gainontzeko erkidegoetako GE-en programak edo antzekoak eratuko

dira. Horrela, 1990. urtean Nafarroak, EAEk, Madrilak, Kataluña eta Kantabriak jada bazuten programaren bat (Cabases eta Montserrat, 1991) eta 1995. urterako erkidego guztiek bazuten GE-en programen bat.

5. Taula. GE-en eraketa urtea eta hasierako izena

EUSKADI	Familiarako Gutxieneko Diru-Sarrera (1989)
GAZTELA ETA LEOI	Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-Sarrera (1989)
KANTABRIA	Familia Beharretarako Laguntza (1989)
KATALUÑA	Gizarteratzeko Gutxieneko Errenta (1990)
ERRIOXA	Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-Sarrera (1990)
NAFARROA	Oinarrizko Errenta (1990)
MADRIL	Integraziorako Diru-Sarrera Madrildarra (1990)
BALENTZIA	Arauturiko Prestazio Ekonomikoak (1990)
EXTREMADURA	Gizarte Larrialdi egoeretan integrazteko Laguntzak (1990)
ANDALUZIA	Elkartasun Gutxieneko Diru Sarrea (1990)
MURTZIA	Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrea (1991)
ASTURIAS	Muturreko behar egoerentzat Laguntzak (1991)
KANARIAR IRLAK	Arauturiko Prestazio Ekonomikoak (1991)
GALIZIA	Galiziako Gizarte Integraziorako Errenta (1991)
GAZTELA LA MANCHA	Gizarteratzeko Laguntzak (1991)
ARAGOI	Gizarteratzeko eta Gizarte Normalizaziorako Oinarrizko Neurriak (1993)
BALEAR IRLAK	Epe Baterako Euskarri Komunitarioa (1995)

Iturria: (GARCÍA-ROMERO, 1999: 179-180).

4.3.2. *Ezaugarri nagusiak: aniztasuna, zatiketa eta desberdintasunak*

Estatu mailako GE ereduari buruz hitz egitean azpimarratu behar den lehenengo gauza eredu bakar bati buruz ezin dugula hitz egin da, *ereduei* –pluralean– hitz egin behar dugu. Izan ere erkidego bakoitzak bere eredu du eta hauen arteko ezberdintasunak oso handiak dira. Hortaz, eredu anitz eta zatikatu baten aurrean aurkitzen gara (Roberts, 2001; Gavira y González, 2002).

Dena den, elementu komun batzuk aipatu daitezke erkidego mailako programen artean (Aguilar, Gaviria eta Laparra, 1995):

1. Familiari zuzendutako prestazioak dira eta ez pertsonari zuzenduak.
2. Ezarritako diru kopurua baino gutxiago izatea da baldintzarik nagusia.
3. Erkidegoen arteko mugikortasuna eragozteko trabak jartzen dira, gehienbat erkidego bakoitzean ezarritako gutxieneko egoitza epeen bidez. Honen helburua erkidegoetako programetan ematen diren ezberdintasunek *deia efektua* sortu ez daitezen da.
4. Programa guztietan diru-sarrera eta gizarteratzeko neurriak batera agertzen dira eta gehienetan gizarteratzeko neurriak baldintza bat dira diru-sarrerak jaso ahal izateko.

Azpimarratu daitekeen beste ezaugarri bat programa gehienetan ematen den *azpigarapena* da. Hala izanik, eta aurrerago ikusiko ditugun eredu batzuk alde batera utzita, zaila da estatu mailan benetako GE programei buruz hitz egitea, gehienetan Europa mailakoek erakusten dituzten ezaugarriak betetzen ez dituztelako. Programa gehienak, adibidez, ez dira eskubide subjeliboa izaten, jasotako zenbatekoa pobrezia-mugaren azpitik egoten da eta hainbat kasutan ezartzen diren baldintzek oso zaila egiten dute diru-laguntza jaso ahal izatea, kanpoan gelditzen direlarik gizarte-zaingarritasun egoeran dauden hainbat kolektibo eta pertsona.

GE-en euskal ereduak, 2008. urteko abendutik aurrera eta Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Legearen ondorioz Oinarritzko Errenta izena izatetik Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta bezala ezagutzera pasa dena –DSBE hemendik aurrera–, europar programekin erkatu daitekeen bakarrenetarikoa da (Moreno, Matsaganis, Ferrera eta Capucha, 2003; Laparra, 2004). Honen atzetik Nafarroa, Madril edota Asturiaseko ereduak kokatuko lirateke, Estatu mailan garatuenak izanik (Laparra eta Ayala, 2009). Gainontzeko programetan hauen estaldura eta garapena baxuagoa eta askoz ere mugatuagoa da. Azken urteetan

garatuen zeuden ereduak izan dira garapen gehien jaso egin dutenak. Horrela, programa hauetan eman diren hobekuntzek ez dute eraginik sorrarazi programa ahulenengan. Honen ondorioz, eta Miguel Laparra-ren hitzak erabiliz, Estatuko populazioaren %80rentzat GE ez dira existitzen (Laparra, 2004).

Azken pasarte honetan aipatutako bilakaera honetan azpimarratu daitekeen salbuespen bakarra Asturiaseko adibidearena da. Hasiera batean programa hau ez zen garatuenen artean kokatzen, baina 2005. urtean onartu egin zen Oinarrizko Gizarte Soldataren bidez hobekuntza nabariak eman dira. Horrela GE eskubide subjetoa izatera pasa dira eta Gutxieneko Soldataren %71,15 da zenbatekoa pertsona bakar batentzat, soilik EAE -%88- eta Nafarroaren -100%- azpitik.

Ereduen arteko ezberdintasunak hobeto ikusteko datu batzuk eskaintzea argigarria izan daiteke. Hortaz, euskal DSBE estatu mailako batez bestekoaren baino sei aldiz estaldura gehiago eskaintzen die prestazio hau jasotzen dutenei (MTAS, 2005). 90. hamarkadaren hasieran programa hauen erabiltzaileen %63 lau programa garatuenetan biltzen ziren (Aguilar, Gaviria eta Laparra, 1995: 67). Era berean, estatu mailan kokatzen diren programek muturreko gizarte-bazterkeria pairatzen duten %17ra ailegatzen dira (Laparra eta Ayala, 2009: 32). Gaur egun GE-etan egiten den gastua 450 milioi eurokoa da eta muturreko pobrezia bakarrik aurre egiteko gutxienez 1.500 beharko lirarteke. Datu hauekin jarraituz eta orain dela gutxi Laparra eta Ayalak egindako estimazioa kontuan harturik, 2008. urtean 114.157 pertsona ziren estatuan GE jasotzen zituztenak, hauetarik heren bat EAEn kokatzen zelarik (Laparra eta Ayala, 2009: 32). Gastuari dagokionez ere EAEn egiten zen gastua Estatu mailan erabiltzen den erdia baino zertxobait gutxiago zen. Krisiaren hedapenarekin batera pentsatzekoa da EAEn oraindik gastuaren zenbatekoa handiagoa izango dela eta gaur egun Estatu mailan GE-etan gastatzen den erdia inguru EAEn kokatzea. Beste hitzetan esanda, Estatu mailan egiten den GE-en gastuaren %50 inguru EAEn egiten da, populazio osoaren %5 inguru suposatzen duen erkidegoan hain zuzen ere.

Egoera hau, noski, ez da ematen pobrezia inpaktoa EAEn Estatuan baino handiagoa edota krisia EAEn gehiago pairatzen ari duela, baizik eta gure erkidegoan GE eskubide subjetoa direlako eta beraz egoera ekonomikoa okertzen bada onuradun gehiago izaten direlako. Gainontzeko erkidegotan, nahiz eta beharrak handitu, eskubide subjetoa ez denez, onuradunen kopurua ez da oro har hazten eta nahiz eta beharrian handiak egon administrazioak ez ditu hauek asetzen.

4.4. Euskal eredia: Europari begira

Jada aipatu den bezala euskal eredia da garapen maila handiena duen GE programa Estatu mailan eta europar mailan topatu daitezkeen programa ezberdinekin antzekotasun gehien azaltzen dituen. GE programak *La pobreza en la Comunidad Autónoma del País Vasco* (1987) txostenak sortutako gizarte inpakto eta eztabaidaren ondorioz sortzen dira. Bertan EAEko pobrezia-tasa pentsatzen zena baino handiagoa dela azpimarratzen da, gehienbat erkidego honetan 80. hamarkadan zehar lan arloan emandako eraldaketen ondoren (Aguirre, 1991) eta bereziki emandako industria-bereragituraketaren ondorioz.

Testuinguru honetan Euskadiko Pobreziaren Aurkako Lehenengo Plan Integrala onartuko da 1988. urtean eta honen barruan Estatu mailako lehenengo GE programa martxan jartzea aipatzen da. Horrela bada, 1989. urtean Familiarako Gutxieneko Diru-Sarrera aurrera eramango da, hurrengo urtean Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-Sarrera bezala ezagutuko dena. Izen hau izango du 2000. urterarte, urte horretan Gizarte Eskubideen Gizarte Gutunaren Legea onartuko da eta GE Oinarritzko Errenta izena izatera pasako dira. Azkenik, 2009. urtetik aurrera euskal GE Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta –DSBE– bezala ezagutzen da.

Familiarako Gutxieneko Diru-Sarrera sortu zenean honako hauek izan ziren ezarri ziren baldintzak:

- Eskaera egin baino lehen familia independente bat osatuta egotea.
- EAEn gutxienez 3 urtez erroldatuta egotea, gaur egun baldintza hau urte betekoa da.
- 25 urte baino gehiago izatea, nahiz eta 2003. urtetik aurrera adin muga 23ra jaitsi.
- Diru-sarrera nahikorik ez izatea.
- Gizarteratze hitzarmena sinatzea.

Euskal programaren garapenean momentu garrantzitsua da 2000. urtean onartutako Gutun Soziala. GE-aren edukinak aldatu zirelako baina baita ere prozedura berezi baten ondorioz sortutako legea delako, Herri Ekimen Legegile –HEL– baten ondorioz hain zuzen ere. Horrela bada Gizarte Eskubideen Gutunaren hasiera 1996. urteko erdialdean kokatzen da, langabeziaren zenbatekoa momentu honetan %20 ingurukoa zelarik EAEn. HEL-a Gogoia taldeak bultzatu zuen, talde honen barruan ezkerreko alderdiak, gizarte-bazterkeriaren aurkako erakundeak, sindikatuak eta herri mailako talde kristauak biltzen zirelarik.

HEL-ak bi zutabe nagusi izango ditu: lanaren denboraren berbanaketa alde batetik eta Oinarrizko Errenta ezartzea bestetik. Hasierako eztabaiden ondoren erakunde guztiek agiri bat adostu zuten honen bidez sinadura bilketa hasiera emateko eta agiri hau lege bihurtzeko helburuarekin. Eusko Legebiltzarreko mahaiak HEL-a onartzen du eta sinadurak biltzeko epea hasten da. Azkenean 82.000 sinadura lortu ziren -30.000 behar ziren testua Legebiltzarrera bidali ahal izateko-. Era berean, sinadura bilketa prozesu honetan zehar mobilizazio asko egin ziren eta oihartzun handiko prozesu bat eman zen HEL honen lehenengo fase honetan. Honen ondoren, HEL-aren legebiltzar tramitazioa hasten da 1997. urtean eta 2000. urterarte luzatuko da. HEL-aren ekimenaren bultzatzaile eta legebiltzarkideen arteko eztabaida gogorak eman ondoren 2000. urtean Gizarte Eskubideen Gutunaren Legea onartu zen. Hasierako testuarekin konparatuz aldaketa garrantzitsuak eman go dira (Moreno, 2003) eta hasierako proposamen batzuk baldintzatu eta leundu egingo dira. Dena den, GE programari dagokionez hobekuntzak emango dira aurrekontuan zein estaldurari dagokionez.

Gaur egun eta 2008. urte bukaeran emandako lege aldaketarekin, DSBE-an bi prestazio mota aurreikusten dira. Alde batetik, gizarteratze-ko eta *gizart- babeserako oinarrizko errenta*, enplegutik datozen diru-sarrerarik ez dituzten pertsonentzat, hauen kasuan helburua gizarteratze hitzarmenaren bidez gizarteratze egokia ahalbidetzea da; eta bestetik, *laneko diru-sarrerak osatzeko errenta* egongo zen, jadanik enpleguaren bidezko diru-sarrerak dituztenentzako, hauen diru-sarrerak osatu ahal izateko, hauen kasuan helburua euren enplegu egoera hobetzea izango litzateke, honetaz gain, lanerako bultzagarriak ere aurreikusten dira. Bi kasutan prestazioa eskubide subjektiboa da, beraz administrazioa prestazio hau bermatzera behartuta dago, baldin eta eskatazaileak baldintzak betetzen baditu.

Ezarritako baldintzak atal honen hasieran aipatu ditugunak dira. DSBE erabiltzaileen kasuan, Frantziako kasuan bezala, etengabeko hazkundea eman da hartzaile kopuruan. 1989. urtean 4.000 familia inguru ziren GE jasotzen zutenak, 2000. ean 13.000 –populazio guztiaren %2– (SIIS, 2002: 16), 2004. ean 28.889 eta 2009. urte bukaeran, aldiz 48.449 pertsonak jasotzen zuten prestazio hau. Erabiltzaileen kasuan bezala, gastua ere urte guztietan hazi egin da. Horrela bada, 1989. urtean 4,2 milioi euro gastatzen baziren ere, 2004. urtean 114 erabili ziren (SIIS, 2005: 9), 2008. urtean 197,3 gastatu ziren eta 2010. urterako 281 gatzatzea espero zen.

Bilakaera honetan eta gehienbat erabiltzaile eta gastuaren hazkundeari dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzea eragin zuzena izan zuela Gizarte eskubideen Gutunaren Legearen onarpenak. Halaber,

2001. urtetik 2005. urterarte aurrekontua 64 milioi euroetan igo zen eta jasotzekoa ere gutxienera soldataren %75 izatetik %88ra izatera pasa da. Hortaz gaur egun pertsona bakar batek jasotzen duen DSBE kopurua 650 eurokoa da hilean -12 ordainsaritan-.

Erabiltzaileen profilari dagokionez, eta Eusko Jaurlaritzak egindako inkesta baten datuak erabiliz (Eusko Jaurlaritza, 2008), GE eskuratzen dutenen %68,3 emakumeak dira. %16, 16 eta 29 urte bitartean kokatzen da, %51 30 eta 49 bitartean, %20 50 eta 64 bitartean eta %13k 65 urte baino gehiago ditu. Dena den, adinaren arabera erabiltzaileen tasei erreparatzen badiegu, tasarik handiena 65 urte baino gehiago dutenen artean ematen da, izan ere adin tarte honetan dauden ehun pertsonetatik ia %5,91 DSBE jasotzen dute. Jatorriari dagokionez %30 atzerriarra da eta %70 bertakoa. Azkenik, heren batek enplegua du, beste heren bat langabezia dago eta azkeneko herena jubilatuta dago.

Datu hauek gizarte-zaugarritasun egoeran dauden kolektiboen inguruko hainbat pista ematen dizkigu. Horrela, emakumeak gehiengo dira, eta diru-sarrera nahiko ez dutenen artean asko dira ere 65 urte baino gehiago dutenak edota pertsona atzerriarrak. Era berean, gizarte-zaugarritasun egoeran aniztasuna da nagusi eta enplegatuta, desenplegatuta edo jubilatuta dauden pertsonak topa daitezke DSBE jasotzen dutenen artean, hauen arteko ezberdintasunak eta beharrak oso nabariak izanik.

Lege berriaren onarpenarekin gizarteratzeari eta hartzaileen aktibazioari lehentasuna eman nahi zaiola ematen du. Horrela izanik, euskal programak Europa mailan egiten ari diren eredu gehien bidea jarraitzen duela ematen du, hauetan gizarteratzea –gehienbat lan arloan– eta prestazio ekonomikoaren arteko lotura estutzen eta azpimarratzen ari delarik.

4.5. **GE-en Programen oraina eta etorkizuna Europan: aktibazioaren bidea**

Jada aipatu den bezala, eta gehienbat 90. hamarkadatik aurrera GE-ek garrantzi handia hartu dute Europar Batasuneko politika publikoetan, pobrezia eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko tresna nagusienetako bat izanik (European Commission, 2006). 1992. urtean esaterako, Europar Batasuneko Iradokizun batek Estatu guztietan GE-en programak ezartzea aldarrikatzen zuen, honen bidez europar biztanleri guztia- ren oinarritzko baliabide eta zerbitzuak bermatu ahal izateko (Europar Batasuna, 1992). Ondoren, Europar gizarte-politikari buruzko Liburu Berdean (Europar Batzordea, 1993) zein beste idazkietan ere GE-en aldeko aipua egin da.

Europar Batasunaren eraginpearen ondorioz honen lurralde gehienetan GE programak garatu dira, gehienetan prestazio ekonomikoa eta gizarteratzearen arteko lotura ematen delarik. *Aurreko 15en Europar Batasunean*, esaterako, Grezia salbu, gainontzeko lurraldeetan GE-en programak zeuden (Nicaise, Groenez, Adelman, Roberts eta Middleton, 2004; Da Roit eta Crepaldi, 2007). Lehenago, Europa hegoaldeko lurraldeak kenduta, Europar Batasuneko gainontzekoek bazuten jada programen bat. Espainian, ikusi dugun bezala, martxan jartzen dira 90. hamarkada hasieran eta ezaugarriak nagusiak programa hauen ahultasuna eta zatiketa dira. Portugalen, 1997. urtean ezarri zen *Rendimento Mínimo Garantido* izenekoa (Capucha, 1998). Urte bat beranduago programa pilotu bat ezarri zen Italian, udalerrri batzutan aurrera eraman zelarik baina azkenean ez du izaera nazionalik bereganatu eta bertan behera gelditu da. Oro har, Europa Hegoaldeko programen ezaugarri komuna hauen mugapenak eta kalitate txarra dira. Gainbegiraketa honekin bukatzeko, eta laburbilduz, Europar Batasunean gaur egun GE lurralde guztietan ematen dira, aipatutako Grezia eta Hungaria alde batera utzita.

Europar Batasuneko gizarte-politika guztiekin gertatzen den bezala, GE-en artean ere lurraldeen arteko aniztasuna oso handia da. Horrela bada, Erresuma Batuko Income Support-en hartzaileen ehuneko handi bat pobrezia-eremuaren mugaren azpitik gelditzen den bitartean, Suedian muga hau soberan gaingaitzen da (Behrendt, 2003). Era berean, GE-en diru kopuruan ere ezberdintasun nabariak topa daitezke, horrela Letonian 28 euro ingurukoa zenean pertsona bakar batentzat Danimarkan kopurua 1.130ekoa zen 2005. urtean (Peña-Casas, 2005), azken kopuru hau Portugalgoa baino bederatzi aldiz handiagoa zelarik (Euzéby, 2004: 11). Datu berriago batzuk aipatzearen, 2008. urtean, Bulgarian pertsona batentzat GE 19 eurokoa zen, Letonian 39koa eta Danimarkan, aldiz, 1.200ekoa (Busilacchi, 2008: 15).

Guzti hau dela eta, erakunde ezberdinek programen arteko armonizazioa aldarrikatzen dute europar mailan gutxieneko ezaugarri komunak eman daitezkeen lurraldeen artean (EAPN, 2006; 2009). Testuinguru honetan ere kokatzen da adibidez, De Giorgi eta Pellizzariren proposamena. Bi egile hauen ustez Europar Batasunak 430 euroko pertsona bakar batentzako GE bultzatu beharko luke bere kideentzako (De Giorgi eta Pellizzari, 2006).

Europar Batzordearen asmoa, eta berak egindako azken Iradokizunak kontuan harturik (European Comission, 2006; 2008), GE-ei indarra ematea da, gehienbat hauen barruan aktibazioa bultzatzen duten programak sustatuz eta lan-merkatuzeko neurriak martxan jarritz, horrela gizarteratzea ahalbidetzeko (Hanesch eta Balzter, 2001; Pérez,

2004; EAPN, 2005; EAPN, 2006; Pérez, 2008). Izan ere, eta jada aipatu dugun bezala, arlo honetan orain arte lortutako emaitzak nahiko urriak izan dira (Aust eta Arriba, 2004). Beraz, instituzio europar zein erakunde ezberdinetatik aktibazioari garrantzia ematen ari zaio. Dena den honen esanahia aldatu egiten da aukeratutako eragilearen arabera. Europar instituzioen arabera, aktibazioa GE-en barruan barneratu behar da eta gizarteratzea lan-merkaturatzearen sinonimoa izango litzateke.

Testuinguru honetan, hain zuzen ere, kokatzen dira gaur egun GE-en zerbait programetan ematen ari diren eztabaidak eta erreformak. Hauen artean, jada nahiko aurreratuta dagoelako, Frantziako adibidea aipatu daiteke. Baina beste lekuetan ere ildo bereko erreformak ematen ari dira, Belgikan, esaterako, eta 2002. urteko aldaketaren ondoren aktibazioa sustatzeko neurriak aurrera eraman dira eta *Minimex* izeneko GE programaren barruan kokatzen dira gaur egun (Kazepov eta Sabatinielli, 2005). Estatu mailan ere aktibazioari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio (Arriba, Parrilla eta Pérez, 2009). Nafarroan adibidez, babestutako enpleguan oinarritzen diren programak martxan jartzen ari dira azken urte hauetan (Pérez, 2004; Pérez, 2008). Euskal kasua ere ez da salbuespena eta azken urte hauetan elementu hauen inguruko hausnarketa garatzen ari da topaketa eta mintegi ezberdinen bidez. Era berean, babestutako enplegua suspertzeko neurriak hartzen ari dira, Auzolan programa da akaso hauen artean ezagunena, bertan DSBE-en onuradunentzako babestutako enpleguaren bidezko lan-merkaturatzea ahalbidetzen delarik.

Frantziako kasuan, 2003. urteko abenduak 18an onartutako legeak RMI-aren deszentralizazio gehiago aldarrikatzeaz gain, RMI jasotzen zutenentzako dispositibo berri bat ezarri zuen, Revenu Minimum d'Activité –RMA– izenekoa. RMA-aren helburua lan-merkaturatzeko arazo gehien dutenei eta RMI kobratzen sei hilabete baino gehiago daramatenei lagutzea da. RMA-aren barruan gutxienez 20 orduko edota lanaldi osoko enplegu bat dutenak kokatzen dira, bertan onuradunek lan bat egiteaz gain formakuntza jasotzen dutelarik. Programa hau erabiltzen duten enplegatzaileek pizgarri fiskalak jasotzen dituzte eta hilero 433 euro jaso dezakete. Kontratua gutxienez sei hilabetetako eta gehienez 18koa izan daiteke. RMA-ren barruan kokatzen den pertsonak jasotzen duen diru kopuruari dagokionez, gutxienerako soldataren arabera da. RMA defendatzeko argudiorik nagusia RMI jasotzen dutenek enplegu bat bilatzeko beharrik ez dutela eta horrek ondorio ezkorrak sortzen dituela da (Mandin eta Palier, 2003). Horregatik, hau ekidin ahal izateko, Frantziako gobernuak babestutako enplegu- kontratu bat bultzatu egin zuen garai hauetan.

RMA-ari buruzko eraginkortasunari buruz hitz egin behar badugu, hasieratik argi gelditu da ez dituela bete espero ziren emaitzak eta oso gutxi izan dira honen barruan sinatutako lan-kontratuak (L'Horty, 2006). Zehazki, aurreikusten ziren %10 sinatu dira soilik (Euzéby, 2006: 10) eta azken urteetan egin diren ebaluaketak (Avenel, 2005) eta programak erakutsi dituen mugapenak 2006. urtean hasitako eztabaida ahalbidetu dute (Seillier, 2006). Horrela izanik, 2009. urteko ekainak 1ean RMA eta RMI desagertu egin dira, erabat erreformatu dira GE Frantzian eta Revenu de Solidarité Active –RSA– izeneko programa martxan jarri da.

Erreforma hau onartu baino lehenago eman ziren eztabaiden ardatzak GE jasotzeko balditzen gogortzea (Euzéby, 2006) eta lan-merkatu-ratze azkarra errazteko neurrien inguruan kokatu dira. Beraz, ikusten den bezala, eztabaida honetan workfare ereduaren eragina somatu daiteke (Moreno, 2008). Ikuspegi honen defendatzaileek RMI lan-merkatu-ratzea ez zuela bultzatzen eta honen aurrean zeozer egin behar zela aldarrikatu dute. Hauen artean Martin Hirsch-en ekarpenak aipagarriak dira (Hirsch, 2006), bere momentuan Emaus-eko presidentea izan zena eta 2006. urtean Pobreziaren Aurkako Elkartasun Aktiboetarako Goi Komisionatua izatera pasa zena (Urteaga, 2009). Bera izan baita, erreforma honen *aitetako* bat. RSA-k pobreziatik ateratzeko enpleguaren beharra eta garrantzia azpimarratzen du. Honetaz gain, beste ezaugarri berria, RMI jasotzen zutenez gain jada enplegu bat dutenak baina honen soldata oso baxuak direnak –working poors– ere kobratzen dutela da. Horrela bada, 3,5 milioi pertsona RSA jasoko dutela espero da (Bernat, 2009: 27). Laburbilduz, RSA-aren asmoa RMI-aren erabiltzaile ohiak lehen bai lehen merkaturatzea eta soldata baxuak dituzten langileen soldatak osatzea da.

Aktibazioan eta Enplegurako Politika Aktiboetan oinarritzen diren neurriak martxan jartzeaz gain, lan-merkaturatzea errazteko ere enplegurako hainbat pizgarri ezarri dira zenbait programetan, gehienbat arlo fiskalean kokatzen diren dedukzio eta ordainsarien bidez. Izan ere GE-en programa baten barruan egondako pertsona gehienek lan bat topatzen dutenean nahiko prekarioa eta soldata baxukoa izaten da, *pobreziaren tranparen* arriskua handia izaten delarik. Alegia, pertsonarentzat maila guztietan errentagarriagoa izatea prestazioa jasotzen jarraitzea enplegu bat bilatzea baino. Fenomeno honi aurre egiteko, *enplegurako pizgarriak* gero eta ohikoagoak dira, hauen artean Frantziako enplegurako prima –jada existitzen ez dena– edota EAEn ematen diren enplegurako pizgarriak azpimarratu daitezke. Kasu hauetan, zigorraren bidea jarraitu beharrean, workfare eredu bezala, pizgarrien alde egin da.

Kasu gehienetan pizgarri hauek soldata baxua dutenen langileen-tzako laguntza ekonomikoa izaten da eta Erresuma Batuko WTC edota

Estatubatuetako EITC-aren eragina dutela ere, edo gutxienez antza, esan dezakegu. Frantziako kasuan adibidez, 2006. urtean 8,5 milioi pertsonak jasotzen zuten *enplegurako prima*, dena den bakoitzak jasotzen zuen kopurua eskasa izaten zen, hilerio 60 euro ingurukoa hain zuzen ere (L'Horty, 2006). Aipatutako beste bi programekin konparatuta askoz ere kopuru txikiagoa eta noski honek frantziar programaren emaitzen mugapena suposatu zuen.

EAEn enplegurako pizgarriak 2001. urtetik aurrera ematen dira eta DSBE zein Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen duten pertsonetara zuzentzen dira, lanaren bilaketan prestazio hauek sorrarazi dezaketen ondorio ezkorrek saihesteko asmoz. Neurri honen arabera, soldataren bidez jasotzen den diru kopuru zehatz bat ez da kontuan hartzen DSBE-aren bidez jaso behar den zenbatekoa zehazteko. Horrela, azkenean enplegu bat eta DSBE jasotzen duen pertsona batek hilerio DSBE soilik jasoko lukeen dirua baino kopuru handiagoa jasotzen du. Lau kidez osatutako familia batek, adibidez, tokatzen zaion DSBE kopurua baino 100-150 euro gehiago jaso dezake pizgarri hauen bidez. 2003. urtean DSBE-aren onuradun guztien %20 inguruk enplegurako pizgarriak jasotzen zituen.

Neurri guzti hauek, berriz ere, gizarte-politika guztietan lan-merkatutzeak hartu duen garrantzia azaltzen dute eta ongizate-eredu guztietan nabaria da honen eragina. Era berean, eredu ezberdinen artean nolabaiteko gerturaketa bat ematen ari dela ere esan dezakegu. GE-en kasuan, esaterako, nahasturik agertzen dira bai workfare ereduan oinarritzen diren neurriak zein aktibazioan oinarritutakoak.

4.6. GE-en balorazioa eta kritikak

Oro har, GE-en programen inguruan egiten den balorazioa baikorra da eta erabilgarri dauden datuen arabera pobrezia eta gizarte-bazterkeriari erantzuteko tresna egokia direla ondorioztatzen dute egile eta aditu gehienek (Aguilar, Gaviria eta Laparra, 1995; Laparra, 2003; 2004; Sanzo, 2003; 2005; L'Horty, 2005; Euzéby, 2006). Era honetan, integraziotik at zeuden hainbat pertsona detektatu eta hauekin harremana izateko zubi gisa funtzionatu dute GE-ek. Pobreziaren ondorioak leuntzeko ere baliogarriak izan dira eta errealtate hau pairatzen duten pertsonen bizi baldintzak hobetzeko mekanismo interesgarria direla esan daiteke ere. Azkenik, esan beharra dago ere GE-en bidez gizarteratzeko prozesuak martxan jarri direla eta zenbait kasutan bilakaera hauek onak eta goranzkorak izan direla. Horrela bada, programa hauetan ematen diren itzulerarik gabeko irteerak gero eta sarriago ematen dira (Laparra, 2004) eta Estatu mailan dauden datuen arabera erabiltzaileen bi here-

nak bi urte baino gutxiago egoten dira GE jasotzen (Ayala, 2003). Hor-taz, GE-en barruan ematen den kronizitatea nahiko baxua da eta zen-bait kolektibo jakin batzutan ematen da gehienbat (Saraceno, 2002; Serrano eta Arriba, 2002). Estatuaren kasuan, esaterako, ijituak dira kro-nizitate-maila altua erakusten duten kolektiboetako bat. Honen harira, erabiltzaileen iritziak ere aipatutako alde on hauek berresten ditu, pro-grama hauen inguruko balorazioa ona izaten delarik oro har.

Dena den, azpimarratu behar den balorazio baikor honek ezin ditu ezkutatu GE-ei egiten zaizkion hainbat kritika eta hauen inguruan aipatzen diren hainbat arazo. Lehenik eta behin, egile eta erakunde askorentzat GE-en zenbatekoa eta hauen estaldurek dituzten mugak direla eta, ez da gizarteratze duin bat bermatzen. Honen iritzikoa da, adibidez, Solidar izeneko Europa mailako Gobernuaz Kanpoko Erakundearen federa-kundea GE-ek kasurik hoberenean *gutxieneko gizarteratzea* lortzen dutela baina ez benetako eta osoa den integrazio bat aipatzen dutenean (Solidar, 2006). Oso nabarmena da Estatu mailan arlo honetan ematen diren mugak. Izan ere oso kasu gutxitan gairatzen da pobrezia-eremu erkidegoetako GE-en programetan (Noguera eta Ubasart, 2003).

Arrazoi hauek direla eta, besteak beste, hainbat kritika egiten zaizkie GE-ei. Horretarako, kritika hauek hiru multzotan sailkatu ditugu. Lehenengoak, programa hauen baldintzak aztertzen ditu nagusiki. Bigarrenak, GE-ek azaltzen dituzten muga propioak azpimarratzen ditu. Eta azkenik, hirugarren atalean, GE eta gizarteratzearen arteko harremana landuko da, bi hauen artean ematen diren argilunei arreta berezia jarritz.

4.6.1. *Baldintzen eta asistentzialismoaren arazoak*

GE-ek, definizioari buruz hitz egin dugunean ikusi den bezala, hainbat baldintza izaten dituzte jaso ahal izateko eta honek batzutan oztopo handiak jartzen ditu beharrak dituzten pertsonen prestazio hau jaso dezaten. Baldintzek jartzen dituzten trabek, dena den, selektiboak eta asistentzialak diren politika publikoetan ohikoak dira. Horrela izanik, GE-en kasuan, politika asistentziala izanik eta arazoak dituzten kolekti-boetara zuzentzen denez, askotan programa hauek jasaten duten presio mediatikoa handia izaten da, gehienbat klase ertainetatik egiten den presioa. Ikuspegi honetatik kontrol gehiago ezarri behar dela defendatzen da sarritan, teorian ematen den iruzurrari aurre egiteko eta bertan ematen den gastua ere kontrolatzeko. Honen harira, pobrezia-eremu trapa aipatzen da gehienetan, GE-en onuradunek lan egitea baino nahia-go dutela prestazioa jasotzea aldarrikatuz.

Iruzurrari dagokionez, ikerketa ezberdinek aipatzen dutenaren araberako programa hauetan ematen dena ez da oso handia eta ez inondik

inora Errenta-Aitorpenean edota Balio Ezarriaren Zergan ematen direnak baino handiagoak. Are gehiago, azken bi hauetan ematen den iruzurra handiagoa da bai pertsonen kopuruari erreparatzen badiogu zein diru kopuruak kontuan harturik. Beraz, arriskutsua izan daiteke –eta maltzurra ere– iruzur kopuru txiki batengatik programa guztia zalantzan jartzea. Are gehiago, kontuan harturik gizarte arloan ematen diren onurak kalte hauek baino askoz ere handiagoak direla. Frantziako Alderdi Sozialistak Senatuan aurkeztu zituen datuen arabera, lehengo RMI-aren barruan ematen zen iruzurra %0,004koa zen. Era berean, Paris hirirako zuzentzen zen RMI guztiaren aurrekontua 2004. urtean 240 milioi eurokoa bazen, era desegokian eta iruzurraren bidez kudeatzen zen kopurua 50.000 eurokoa zen (De Brunhoff, 2004). Beste era batera esanda, diru guztiaren %0,0002. Bitxia da oso datu hauek ikusirik, Frantziako RMI bertan behera uzteko eta sistema berria martxan jartzeko erabili den argudioetako bat iruzurrarena izanda.

EAEn azken urte hauetan garrantzi handia hartu du ere iruzurraren atalak, gehienbat komunikabide zein iritzi publikoaren eskutik. Testuiguru honetan ez da harritzekoa Bilboko Udalak 2008. urtetik aurrera DSBE-en onuradunentzako ikuskapen zerbitzua ezartzea. Udalak berak emandako datuen arabera Bilbon hilero gastatzen diren 8,6 milioi eurotatik 4.00.000 era desegokian kobratu zuten hainbat erabiltzaileek, %4,6 (El Correo, 2010/4/14). Kasu honetan interesgarria izango litzateke jakitea Ikuskapen Zerbitzuaren gastua zenbatekoa den bi kopuru hauen arteko harremana –ikuskapen zerbitzuaren kostua eta iruzurrarena– ikusi ahal izateko.

Programa ezberdinen garapenari dagokionez, eta bertan ematen diren baldintzetan zentratuz, hauetan onuradunen gainean egiten den kontrola eta jarraipena askotan eraso bat bezala sentitzen da eta onuradun honen arlo pribatua sarritan ere erasotua izan daiteke. Europa mailan, kontrol hauek muturrera ez badira eraman gizarte-politketan; AEBetan, hainbat prestazio galtzeko edo ukatzeko arrazoa izan daitezke droga kontsumoa, seme-alabak ezkontzatik at izatea edota aurrekari penalak edukitzea. Pentsatu daitekeenez, maila honetan ematen den gizarte kontrola nahiz eta baldintzak bete prestazioa ez eskatzera eraman dezake, Robert Castel-ek esaten duen bezala, “beste ezerekin ordaindu ezin duenak beti bere pertsonarekin ordaindu behar du eta hau oso nekagarria izaten da” (Castel, 1997: 477).

Jarraipen honen ondorioetako bat da kontrol honen gastua nahiko handia izaten dela eta zenbaitetan bertan ematen den gastua iruzurraren bidez ematen dena baino askoz ere gehiago izaten dela. Gainera, gizarte langileen lanaldiaren zati garrantzitsu bat kontrol lan honetan joaten da eta ez gizarte langintzan. Horrela askotan, gizarte langileare-

na baino lana administratiba batena izaten da, askotan etsipena eta estresa sortzen delarik hauen artean (Morcillo, 2002).

Bestetik, eta aurrekoari zuzenki lotuta, GE programa asko ez dira ailegatzen onuradun potentzial guztietara, informazio falta dela eta, gizarte zerbitzu eta hiritarren arteko harremana txikia dela eta edota eskatzeak suposatuz dezakeen estigmatizazioa dela eta (Nicaise, Groenez, Adelman, Roberts eta Middleton, 2004). Azken ideia hau argi ikusi daiteke GE jasotzen duten pertsonen eta ikerketa baterako egin ziren hainbat elkarrizketetan (Moreno, 2010: 181):

Emiliok ez zuen laguntza eskatzera joan nahi (bere emazteak hitz egiten du), asko kostatu zitzaion ez zuelako nahi. Nik ikusten nuen bakarrik arropa eta arropa jaten genuela. Niri ez dit penarik ematen, hegoamerikarrok ez dugu hainbesteko penarik. Berak esaten zuen "egingo dugun azkenekoa izango da hori", baina nik esaten nion "nik zer egingo dut, nik ezin dut horrela jarraitu". Eta egun batean umearekin, joatea (Cáritas-era) erabaki nuen (negarrez hasten da)".

OECD-k egindako ikerketa baten arabera prestazio bat jasotzeko eskubidea dutenen %40 eta 80% artean ez dute egiten. RMI frantziarraren kasuan, esaterako, eskubidea baldintzak betetzen zizutzelakozutenen %60 soilik jasotzen zuela estimatzen zen (Hernanz, Malherbert eta Pellizzari, 2004). Gainera egoera okerrean daudenak dira arazo gehien izaten dituztenak prestazio mota hauek eskatzeko, helbide finkorik ez dutelako edota oinarritzko gizarte zerbitzuekin harremanik ez dutelako. Horrela bada, nahiko bitxia den errealtatea ematen da: egoera txarraren barruan baldintza hobereenak dituztenak dira diru-laguntzak jasotzen dituztenak eta egoera txar honen azken postuetan daudenak dira prestazio hauek jasotzen ez dituztenak, nolabaiteko dinamika maltzurra emanez. Kasu honetan *mateo efektu* bati buruz hitz egin dezakegu, izan ere apostulu hau honako hitz hauek esan zituen: "daukanari emango zaio eta ez daukanari daukan apurra kenduko zaio" eta GE-en kudeaketan baieztapen honekin antzekotasun handiak erakusten dituen fenomeno ematen da.

4.6.2. GE-en programen muga propioak

GE-en programetan ezartzen diren muga eta baldintza bereziak ere oztopo asko jartzen dituzte eta askotan gutxieneko baliabideak ez dituzten pertsonentzako traba hauek gairik ezin izaten dira. Horrela, zenbaitetan baldintza ekonomiko latzetan dauden hainbat pertsona eta

kolektibo ez dute GE jasotzen, bertan ezarritako mugak direla eta. Muga hauetako batzuk dira, adibidez, adina, nazionalitatea, leku batean epe jakin batez bizitzeko beharra, denbora batez bizikidetzaren unitate propio eratuta izatea edota GE beste prestazio batzuk jasotzen badira ezin jaso izatea. Programa guztietan, eta Estatua ez da salbuespena, maila handiago edo txikiagoan topa daitezke mota honetako baldintzak.

Leku batean denbora jakin batez bizitzeko beharra, adibidez, oztopo larria izaten da etorkinentzat, gehienbat ailegatze momentuan, bereziki behar gehien duten momentuan alegia (Moreno eta Aierdi, 2008). Euskal kasuan 2005. urtean EAEn bizi ziren 70.000 etorkinetatik erdia erroldaturik ez zegoela estimatzen zen (SIIS, 2005: 16). Erroldaturik ez dagoen pertsonak ezin duela DSBE jaso, izan ere baldintzetako bat da gutxienez EAEn urte betez erroldatuta izatea. Gaur egun erroldaturik ez dauden etorkinak ez dira 2005. urte bezainbeste, baina egia da erroldatuta ez daudenak eta urte bete baino gutxiago daramaten etorkinek kopuru garrantzitsua osatu dezaketela oraindik.

Etorkinen errealitatearekin erlazionatuta ere, zenbait GE-en programetan lurraldearen nazionalitatea edukitzea baldintza da eta beste zenbaitetan egoitza-baimena izatea. Azken baldintza hau Madril edota Kataluñako programetan ematen da. Euskal edo nafar programetan, aldiz, erroldatuta gutxienez urtebetez daraman edozein pertsonak jaso ahal dezake, kontuan hartu gabe atzeritarren kasuan egoitza baimena duten ala ez.

Beste zenbait kasutan bizikidetzaren unitate independente bat eskaera egin baino denbora jakin bat lehenago izatea –EAEn urtebete– zenbait kolektiboentzako traba bat izaten da. Banandu nahi diren emakumeentzat, esaterako, emakume batek baliabide nahikorik ez badu urtebete eman beharko du prestazioa jaso ahal izateko. Egia da, adibidez indarkeria jasotzen duten emakumeentzako salbuespenak daudela baldintza hauetan. Dena den ohiko kasu gehienetan oztopo bat izan daiteke. Are gehiago, banantzean eragina izan dezakeen faktorea izan daiteke, gutxienez baliabide gutxi edota langabezian dauden emakumeentzako bederen. Bizikidetzaren unitatea eratuta izatea ere arazoa izaten da gazteentzat. Izan ere emanzipazioa eman bezain laster ezin dute GE jaso eta urtebete itxoin behar dute jaso ahal izateko.

Gazteei eragiten dien beste baldintzetako bat adinarena da, programa gehienetan gutxieneko adin bat ezartzen delarik, Estatu mailan gehienetan 23-25 urte bitartean kokatzen da. EAEko kasuan 23an dago muga. Beraz, nahiz eta gizarte-zaugarritasun edo bazterkeria egoera pairatu, gazteek ezin dute DSBE jaso 23 urte bete arte. Enplegu ezegonkorra edota enplegarritasun arazoak dituzten gazteak askotan honen

ondorioz gurasoen etxean bizitzera behartuta egoten dira epe mugagabe batez, horrela familiaren estalpean ezkuturik gelditzen direlarik pobrezia potentzialaren barruan kokatzen diren hainbat kasu. Gehieneko adinari dagokionez, zenbait kasutan 65 urte da muga, hainbat GE bakarrik lan-adinean dauden pertsoneri zuzentzen direlako. Suposatu daitekeen moduan, pentsio baxuak dituztenentzako GE kobratu ezin izatea pobrezia-aren mugaren azpitik egotera kondenatzen ditu. EAren kasuan ez dago gehieneko adin mugarik eta beraz 65 urte eta GE-aren kopurua baino gutxiagoko pentsioa edota diru-sarrera duten adinekoek ere jasotzen dute DSBE.

Laburbilduz, muga guzti hauek, hainbat *zulo* uzten dute *segurtasunerako azken sare* bezala jaio zen GE-etan. Horrela bada, zulo hauetatik kolektibo eta pertsona batzuk *erori* egiten dira eta bere egoera zaila hobetzerik ez dute izaten. Zehazki, askotan arazo eta behar gehien dituzten pertsonak dira programa hauetatik at gelditzen direnak (Ayala, 2000b).

4.6.3. Lortzen ari al da gizarteratzea GE-en bidez?

Aurreko kapituluan ikusi denarekin lotuta, GE-aren kasuan ere gizarteratzearen helburuak kritika eta zalantza batzuk sortzen ditu hainbat adituen artean, gehienetan gizarteratzea lortzeko GE-ek bultzatzen dituzten programen mugak eta ahuleziak azpimarratzen direlarik. Are gehiago, kontuan harturik azken urte hauetan programa hauetan berebiziko garrantzia ematen ari zaiola gizarteratzeari, honen bidez gizarte-bazterkeria eta pobrezia aurre egiteko hain zuzen ere. Erantzun behar-ko genukeen galdera ea GE-ek gizarteratzearen helburua betetzen ari duten ala ez da. Hurrengo lerroetan galdera honi erantzun batzuk eskainiko ditugu, zeintzuk izan diren orain arte lortu diren emaitzak eta hauek eta espero zirenen arteko harremana nolakoa den kontuan harturik.

Azpimarratu daitekeen lehenengo elementu bat gizarteratzeak GE-en onuradunaren autoestiman emaitza onak lortzen dituen arren, muga eta zailtasun asko erakusten dituela da. Horrela, GE programen barruan kokatzen diren gizarteratze hitzarmen gehienetan benetako emaitzak nahiko urriak izaten dira oro har. Programa gehienetan hitzarmen hau derrigorrezkoa den arren, hauen garapena emateko baliabideen eskasia dela eta, askotan gizarteratze-ibilbide egokirik egitea ezinezkoa suertatzen da. Gabezia hau egile ezberdinek azpimarratzen dute (Bouchoux, 2004) eta azken urte hauetan agertu diren datuetan ere ikusi daitezke. 2001. urtean, esaterako, RMI jasotzen zutenen artean, soilik %40k sinatuta zuen gizarteratze hitzarmen bat, nahiz eta printzipio batean derri-

gorrezko baldintza izan. Gainera enplegarritasun-maila handiena zutenak ziren hitzarmen hauek sinatzen zituztenak (SIIS, 2001b). 2006. urtean datuak ez ziren askoz hobetoagoak eta gutxigorabehera onuradun guztien erdiak zuten gizarteratze hitzarmen bat sinatua (Euzéby, 2006; L'Horty, 2006). Euskal kasuan, 2003. urtean soilik onuradunen %22k bazuen bere gizarteratze hitzarmen propioa (Azkarraga, 2005: 9) eta Nafarroako GE-an 2001. urtean %15 ziren (Laparra, Corera, García, Macías, Orte eta García Serrano, 2003: 114). Gainera hitzarmen gutxi sinatzeaz gain, askotan sinatutakoen edukinak erretorika mailan gelditzen dira eta sinatu eta gero ez dute garapen egokirik edo batere garrantzi izaten.

Honen harira, askotan hitzarmenak gizarteratzea ahalbidetzeko edota errazteko baino kontrol tresna bezala erabiltzen dira administrazioaren aldetik. Frantzia adibidez, ikerketa baten arabera, hitzarmena sinatu zutenen %23k hitzarmen honen eraketan parte hartu ez zuela azpimarratzen zuten (Bouchoux, 2004), nahiz eta programa gehienetan aurreikusi hitzarmen hau administrazioa eta pertsonaren arteko negoziazioaren bidez eman behar dela. Gainera, ezin da ahaztu balizko negoziazio hau desoreka egoera batean ematen dela. Izan ere, prestazio ekonomikoa jaso ahal izateko hitzarmena sinatu behar da eta beraz ez da harriztekoa batzuk edozer gauza sinatzeko prest egotea eta hitzarmen hauen kontrol eta koertzio maila zenbaitetan nahiko handia izatea.

Hitzarmenek erakusten dituzten gabeziei lotuta, GE-en onuradunen aniztasuna dela eta hauen beharrak eta noski, gizarteratze ibilbideak oso ezberdinak dira eta kasu askotan ezberdintasun hauek ez dira osoki kontuan hartzen. Adibidez, langabezian eta baliabiderik ez duen pertsonak eta GE jasotzen duenak akaso soilik prestazio ekonomikoa behar du eta ez gizarteratze programa batean parte hartzea, bere enplegarritasuna altua delako eta GE epe labur eta jakin batean soilik jasoko duelako. Gizarteratze gabezi handiak dituzten pertsonak, aldiz, gizarteratze-ibilbide argi eta intentsiboak behar dituzte eta momentu oro gizarteratze langileek argi eduki beharko dute pertsona horrek zailtasun handiak izango dituela enplegu arrunt bat lortzeko. Bigarren kasu hauetan, eta aurreko kapituluan azaldu dugun ezaugarriak berekarriz, akaso lan-merkatuaren zentratzen diren neurriak ez dira nahiko izango eta osasuna, bizi kalitatea edota autoestima bezalako arloetan ere lan sakona egin beharko da.

Profilen arteko ezberdintasun eta aniztasun hauek gizarteratzea zentzu zabal eta malguan ulertzea eramatean gaitu, bakoitzaren behar ezberdinak kontuan hartu daitezkeen. Izan ere, programa bat ona izan daiteke kolektibo jakin batentzat baina ez beste batentzat eta askotan

programa hauen ebaluazioa egiterako momentuan zaila izango da emaitza argiak eta neurgarriak topatzea.

Guzti honek gizarteratzea konzeptuaren inguruan gogoeta egitea eskatzen digu etorkizunean bere esanahiaren inguruan argipen gehiago izan ditzagun. Horrela, argitu beharko litzatekeen lehenengo gauza gizarteratzea eskubidetzat edo betebehartzat joko den da. Askotan gizarteratzea eskubide bezala aurreikusten bada testu legaletan, errealitatean betebeharrak bezala funtzionatzen du prestazio ekonomikoa jasotzeko eta honek mugak ezartzen ditu gizarteratze prozesuan bertan. Gainera prozesu hau era egokian gauzatzeko gutxienezko baldintza material batzuk bermaturik edukitzea beharrezkoa izaten da, beraz lehenengo prestazio ekonomikoak kokatu beharko litzateke eta gero gizarteratzea eta ez alderantziz, gizarteratzearen beharra prestazioa jaso ahal izateko.

Zentzu honetan, eta Monereo eta Molinak aipatzen duten bezala, nahiko esanguratsua da eskubide bezala ikusten den gizarteratzea logika kontraktual baten bidez gauzatzea (Monereo eta Molina, 1999). Azken urte hauetan ematen ari den bilakaera kontuan harturik, betebeharraren ikuspuntua nagusitzen ari dela ematen du, workfare ereduaren eragina nabaritzen da (EAPN, 2006) eta gizarteratzea prestazio ekonomikoa jasotzeko kontraprestazio bezala ikusten delarik.

Aukeratzen den gizarteratzearen esanahiaren arabera espero daitezkeen emaitza batzuk edo besteak izango dira, horrela soilik lan-merkatuarekin parekatzen bada emaitzak helburu horretara mugatu beharko dira. Arlo soziala ere kontuan hartzen bada, aldiz, beste elementu batzuk ere kontuan hartu beharko dira ebaluazioa egiterakoan. Lehenengo esanahiari dagokionez, oraindik zalantza handiak daude eta jada aurreko kapituluan hauetako batzuk komentatu dira. Datu bat aipatzearen, lanaren bidezko gizarteratzean zentratzen diren programen %90 administrazioak edota hirugarren sektoreak egiten du eta soilik %10 kokatzen da arlo pribatuan (Euzéby, 2006: 9). Gainera, eta jada aipatu bezala, kolektibo batzuekin arrakastatsua izan daitekeen bitartean beste batzuekin lortzen dituen emaitzak oso urriak dira eta zenbaitetan ikusezinak ere.

Gizarteratze eta aktibazioari buruzko ebaluazioek ere ez dute emaitza argirik ematen alde batera zein bestera (Frazer eta Marlier, 2009) eta askotan lan-merkatuarekin lortzen dute baina ez gizarteratzearen eraginarekin. Beraz argi gelditu beharko zen lehenengo momentutik, aktibazioaren aldeko hautu honen bidez zer lortu behar eta nahi den eta ea soilik gastu publikoak murrizteko neurria den (Arriba y Pérez, 2007) ala benetan integrazioa bermatzeko bidea izan daitekeen.

Kapitulu honi bukaera emateko eta konklusio gisa, GE guztiz interresgarriak diren elementuak erakusten dituztela eta gaur egungo testuinguru sozioekonomikoan beharrezkoa den politika publikoa dela azpimarratu dezakegu. Hala ere, erakusten dituzten muga eta baldintzak direla eta, gizarte-zaugarritasun egoeran dauden pertsona guztiei ez dizkie estaldura egoki edo osorik ematen. Zentzu honetan, Estatu mailan ematen den errealitatea guztiz esanguratsua da. Gizarte-zaugarritasun egoeran kokatzen diren pertsona asko GE-en babesarik ez dutenez, krisi garai honetan gobernu zentralak neurri berezi bat jarri behar izan du erkidego guztietan. Horrela, langabezia prestazioa agortu zaien pertsonentzat 420 euroko hileroko diru-laguntza ezarri du denbora jakin batentzat. Neurri honek argi uzten du GE-en gabezia eta hutsunetak, izan ere GE-en programa ahulak dauden erkidegoetan eragin zuzena izango duen bitartean, GE garatuta dauden erkidegoetan neurri honek ez du aplikazio praktikorik izango GE-en zenbatekoa 420 euro hauek baino altuago delako eta bi prestazioak osagarriak ez direnez langabezia prestazioa agortzean langabetu guztiek GE-en programen alde egingo dutelako. Azken kasu honetan kokatzen dira, Nafarroa edota EAEko GE-en programak.

Ondorioak: aktibazioaren argilunak

Liburu honetan zehar ikusi dugun bezala landu diren Ongizate Estatu erreforma ezberdinetan gero eta garrantzitsuagoa da lan merkatua eta gizarte-politiken arteko lotura. Historikoki lotura hau beti eman da eta gehienetan lan merkatua zen, enpleguaren bidez, ematen zen kotizazioaren bidez hobe esanda, gizarte-eskubideen atea irekitzen zuena. Hala nola, langabezirako prestazioak edota erretiro eskubidea eskuratzeko gutxienez denbora jakin batean kotizatu behar zen. Beraz, enplegua zen gizarte-eskubideak bermatzen zituena. Gaur egun, aldiz, enplegua betebeharra da gizarte-prestazioak jaso ahal izateko, hortaz lanaren eskubide batetik lanaren betebeharrera pasa garela esan dezakegu ere. Gauzak horrela, gizarte-prestazioak jaso ahal izateko, nahiz eta asistentzialak izan eta ez kontributiboak, enplegua da baldintza nagusia eta hori oso argi ikusten da workfare ereduaren eta gero eta gehiago beste ereduaren duen eraginean, nahiz eta Europar gehienetan zigor eta pizgarrien bidea tartekatzen ari den. Hortaz, gizarte-babesa eta lan merkatuaren arteko harremanaren berdefinizioa ematen ari dela esatera ausartu gaitzke, bi hauen arteko mugak berridazten ari direlarik.

Hau esan ondoren eta honi estuki lotuta, aktibazioa da Ongizate Estatu guztien erreformetan agertzen den elementu komuna, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari duen kontzeptua izanik eta gero eta eragin gehiago duelarik gauzatzen ari diren programa eta neurri berri guztietan. Zentzu honetan, gizarte-politiken programa guztietan aktibazioa da ardatza eta prestazioa jasotzen dutenen lan-merkaturatzea ahalbidetzen duten neurriak sustatzen ari dira.

Gaur egungo Ongizate Estatuaren inguruko eztabaidan aktibazioa da gakoa eta hau maila akademikoan ikusi daiteke, baina baita ere eragile politiko zein sozialen diskurtsoetan, lan-merkaturatzearen bidezko gizarteratzea hobesten delarik eremu gehienetan. Euskal kasua ez da

salbuespena eta gaur egun Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailburua den Gema Zabaletak behin eta berriz apimarratu egin du aktibazioaren garrantzia azken garai hauetan. Azken hau ez da guztiz berria eta historian zehar nagusi izan den ikuspegia orain ere gailentzen ari da, enplegua dela integrazioarako bide egokiena –eta bakarra– argudiatuz.

Testuinguru honetan erantzun beharreko galdera aktibazioak ze norabidea hartuko duen da. Egile batzuen ustez, workfare ereduaren eragina gero eta nabarmenagoa da Europa mailan eta lan-merkatu-tzea bultzatzeko zigorretan eta koertzioan oinarritzen diren programen nagusitasuna ematen ari da azken urte hauetan (Serrano, 2004; Kok, 2003), Ongizate Estatu garatu eta tradizionalak dauden lurraldeetan eragina sortzeraino, 2005. urtean Alemanian martxan jarri zen *HARTZ IV* bezalako programan ikusi daitekeen bezala (Huber, Lechner, Wunsch eta Thomas, 2009). Beste egile batzuen ustez, Europa mailan garatzen ari den aktibazioa ezin da konparatu lurralde anglosaxoietan ematen ari den garapenarekin (Clasen eta Clegg, 2004). Bigarren lurralde hauetan prestazioen murrizketa, enplegu bat lortzearen betebeharra eta koertzioan oinarritzen diren bitartean, European, lan-merkatu-eratuaren aldeko apostua gizarte-prestazio eta pizgarrietan oinarritzen ari baita (Eichhorst eta Konle-Seidl, 2008). Honen harira, nabaria da gizarte-estaldura hobetuz gero lurraldeetan workfare-an oinarritutako neurrien ondorioak ez direla hain kaltegarriak eta gizarte-babes zabal baten bidez eragin horiei hobeto aurre egiten zaiela.

Eztabaida teoriko hauek eta aktibazioaren kontzeptua workfare-an edota Ongizate Estatu Tradizionalean jatorria duten alde batera utzita, aktibazioa bera eta honen emaitzak nahiko eztabaidagarriak direla ikusi egin da liburu honetan zehar. Izan ere, Ongizate Estatuaren krisiari aurre egiteko tresna nagusitzat jotzen da aktibazioa. Honen bidez gaur egun ematen diren arazo eta gabeziei aurre egin ahalko zaiolarik, lan-gabezian dauden pertsonen lan-merkatu-tzea eta hauen integrazioaren bidez alegia. Europar Batasunak ideia honen alde agertzen da argi eta garbi eta baita ere nazioarte mailan kokatzen diren instituzio eta erakunde nagusi eta ofizial gehienak. Dena den, emaitzak kontuan harturik, baieztapen hau gutxienez baldintzatu beharko genukeela ematen du.

Lehenik eta behin, aktibazioaren arrakasta oso mugatua da arazo handiak dituzten kolektiboekin edota egiturazko gabeziak dituzten zona geografikoetan. Emaitza hoberenak arazo gutxien duten pertsonekin ematen delarik. Honek guztiak aktibazioak integrazioa eta gizarte kohesioa bermatzeko dituen hutsuneak nabarmentzen ditu, gizartetik at uzten baititu kopuruan garrantzitsuak diren populazio sektoreak. Bigarrenik, enpleguaren bidezko integrazioa ematen denean, askotan

ez da epe luzerako izaten eta soldata eta prestazioa etengabeko bila-kaera batean tartekatu egiten dira, nolabaiteko *karrusel efektua* sortuz (Daguerre eta Etherington, 2009), baina benetan behar egoera ez da desagertzen eta lehen prestazio bat jasotzen zuenak gero soldata baxua jasotzen du, baina pobre izaten jarraitzen du. Honen harira galdera argi bat agertzen zaigu: Aktibazioaren bidez benetan integrazioa bultzatu nahi al da edota soilik gizarte gastua kontrolatu eta murrizteko estrategia bat? (Arriba eta Pérez, 2007).

Azkenik, ezin dugu alde batera utzi aktibazioa orain arte garapen ekonomiko handiko garai batean garatu egin dela eta hau dela eta lan merkatuaren lan eskaera handia izan dela eta honek lehen kanpoan zeuden kolektiboen lan-merkaturatzea posible egin duela. Baina momentu hauetan krisi ekonomikoa dela eta, kontrakoa ematen ari da eta gero eta gehiago dira lehen enplegu bat zutenak eta orain lan merkatutik kanporatuak izan direnak, hauetako askok gizarte-prestazio ezberdinak jasotzera behartuta egonik. Hau ikusirik zaila da esatea enpleguaren hazkundera azaltzeko aktibazioak parte handia ala txikia izan duen eta noraino eragin duen orain dela bizpairu urte arte eman den testuinguru sozio-ekonomiko ona.

Hau guztia, eta labor bada ere, aktibazioaren emaitzei dagokienez, baina arlo normatiboan arreta jarriz gaur egun enpleguak integrazioa bermatzeko dituen dohaiak ez daude batere garbi eta hainbat kolektiboentzako pobrezia gainditzea eta gizarteratzea ez ditu segurtatzen. Ematen den enpleguaren ezegonkortasuna edota langile pobreen –working poors– hazkundera zalantzan jartzen dute ideia hau eta OECD-ren datu bat honen erakusle argia da: OECD-ko lurraldeetan bizi diren pertsonen %7 gutxienez familiako kideetako bat langile pobrea den etxe batean bizi da (OECD, 2009).

Zentzu honetan, akaso aktibazioa beste ikuspegi batetik aztertzea interesgarriagoa izan daiteke, honen mugak kontuan harturik hain zuzen ere. Tresna egokia izan daiteke zenbait kolektibo eta errealitateetan, baina ez du ematen erabat orokortu daitekeen estrategia izan daitekeenik. Are gehiago, Ongizate Estatuaren erreforman zutabe nagusia izan behar bada, azken hamarkadetan lortu diren gizarte aurrerakuntzak zalantzan jarri daitezke.

Egoera honetan, aktibazioak berez integrazioa bermatu ahal deza-keela esatea gehiegi ematen du eta OECD bera da gizarte-prestazioen beharra azpimarratzen duena errealitate honi aurre egiteko. Azken finean, integrazioa sustatzeko aktibazioa eta lan merkatuaren ahalmenak dira zalantzan jartzen direnak eta hauxe da hain zuzen ere Ongizate Estatuaren etorkizunaren eztabaidan agertzen zaigun galdera nagusie-netako bat: Posible al da enplegua, aktibazioa eta lan-merkaturatzearen

bidez pertsonen integrazioa eta hauen hiritartasun eskubideak bermatzea ala orain arteko gizarte-politika eta Ongizate Estatuaren beharra dago oraindik?

Liburu honetan aipatzen dena ikusi eta gero zaila ematen du aktibazioaren bidez integrazioa eta gizarte-kohesioa bermatu daitezkeela defendatzea. Gizarte garatuen integrazioaren ardatza hiritartasun eskubideak baldin badira eta *gizarte duin* batean (Margalit, 1997) hiritarrek bizitza duin bat eramateko aukera izan behar dutela defendatzen bada zaila da aktibazioa –soilik– aldarrikatzea. Horregatik, Ongizate Estatuaren Erreformari buruz hitz egiten badugu, honetaz gain beste elementu batzuk ere kontuan hartu beharko dira, hauetan desmerkantilizazioaren (Esping-Andersen, 1993) papera ezinbestekoa izango delarik. Gizarte-eskubide eta hiritartasun kontzeptuak (Marshall, 1998) inoiz baino beharrezkoak dira gaur egun. Hauek bermatzeko bitartekoen inguruan eztabaida sortu daiteke, baina ez helburuen inguruan. Hortaz, aktibazioak gizarte-eskubide hauek betetzen baditu ideia interesgarria izan daiteke, baina gaur egun erakusten dituen gabeziak kontuan harturik, Ongizate Estatuaren etorkizunaren inguruko eztabaidan gehiago sakotzea beharrezkoa dela ematen du, inoiz baino gehiago gainera. Liburu hau testuinguru honetan kokatzen da hain zuzen ere.

Bibliografía

- ADELANTADO, José eta GOMA, Ricard (2000): "El contexto: La reestructuración de los regímenes de bienestar europeos" en ADELANTADO, José (Koord.): *Cambios en el Estado del Bienestar*, Icaria, Barcelona.
- AGUILAR, Manuel; GAVIRIA, Marui eta LAPARRA, Miguel (1995): *La caña y el pez. Estudio sobre los Salarios Sociales en las Comunidades Autónomas*, Foessa Fundazioa, Madrid.
- AGUILAR, Manuel; LAPARRA, Miguel eta GAVIRIA, Mario (1996): "Programas de renta mínima de inserción en España, 1989-1995" en EEEE: *Pobreza, necesidad y discriminación*, Argenteria Fundazioa, Madrid.
- AGUIRRE, Jose Antonio (1991): "Evaluación del primer año de implantación del ingreso mínimo familiar en el País Vasco" en EEEE: *IV. Jornadas de Economía de los Servicios Sociales*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- ALDERDI LABORISTA (1998): *Un nuevo contrato para el bienestar. La propuesta laborista*, NAU llibres, Valencia.
- ALGAN, Yann eta CAHUC, Pierre (2005): "Civic attitudes and the design of Labour Market Institutions: Which Countries can Implement the Danish flexicurity model?" en Centre pour la Recherche Economique et ses Applications-CEPREMAP, en www.columbia.edu/cu/alliance/documents/Homepage/Paper-Cahuc.pdf
- ALUJAS, Juan Antonio (2003): *Políticas Activas de Mercado de Trabajo en España*, Consejo Económico y Social (espainiarra), Madrid.
- ARRIBA, Ana (1999): "Procesos de implantación de políticas de rentas mínimas de inserción en España", Unidad de Políticas Comparadas (CSIC), Lan txostena 99-09, en www.iesam.csic.es/doctrab1/dt-99-09.pdf
- ARRIBA, Ana eta PÉREZ, Begoña (2007): "La última red de protección social en España: prestaciones asistenciales y su activación" en *Política y Sociedad*, bol. 44, 2. zenb., 115-133. orr.

- ARRIBA, Ana; PARRILLA, Jose Manuel eta PÉREZ, Begoña (2009): "Transformaciones de las políticas autonómicas de inclusión social" en I. Congreso de la Red Española de Política Social, Oviedo, Azaroak 5-7.
- AUER, Peter; BERG, Janine eta COULIBALY, Ibrahim (2005): "El trabajo estable mejora la productividad?" en *Revista Internacional del Trabajo*, 124. bol., 3. zenbakia, 345-372 orr.
- AUST, Andreas eta ARRIBA, Ana (2004): "Policy reforms and discourses in social assistance in the 1990s: Towards Activation, Paper presented at the ESPANet Annual Conference, Oxford, en www.iesam.csic.es/doctrab/dt-0411.pdf
- AUTES, Michel (2004): "Tres formas de desligadura" en KARSZ, Saúl (koord.): *La exclusión: bordeando sus fronteras*, Gedisa, Barcelona.
- AUTOR, David eta HOUSEMAN, Susan. (2002): "The role of Temporary employment agencies in welfare to work: Part of the problem or part of the solution" en *Focus*, Bol. 22, 1. zenb., 63-70 orr.
- AUTOR, David eta HOUSEMAN, Susan (2005): "Temporary Agency Employment as a Way out of Poverty?" en www.nber.org/papers/w11742
- AVENEL, Marie (2005): "Les modes d'organisation adoptés par les conseils généraux por la gestion du RMI suite à la décentralisation" en *Études et Resultats*, 432. zenb.
- AYALA, Luis (2000): *Las Rentas Mínimas en la Reestructuración de los Estados de Bienestar*, Consejo Económico y Social, Madrid.
- AYALA, Luis (2000b): "Las rentas mínimas en el Estado de Bienestar español" en MUÑOZ DE BUSTILLO, Rafael (Arg.): *El Estado de Bienestar en el cambio de siglo*, Alianza, Madrid.
- AYALA, Luis (2003): "El País Vasco es la principal referencia en el desarrollo de las rentas mínimas en España" (Elkarrizketa) en *Hilero Eguneratuz*, 32. zenb., apirilak, 8-10. orr.
- AYALA, Luis eta RODRÍGUEZ COMA, Magdalena (2003): *La duración en los programas de lucha contra la pobreza*, Instituto de estudios fiscales, Madrid.
- AZKARRAGA, Joseba (2005): "Avanzamos en el doble derecho: rentas básicas de calidad y políticas activas de empleo" (Elkarrizketa) en *Hilero Eguneratuz*, 51. zenb., otsailak, 8-10. orr.
- AZNAR, Guy (1994): *Trabajar menos para trabajar todos*, HOAC, Madrid.
- BANCROFT, Wendy (2004): "Sustaining: Making the transition from welfare to work", Social Research and Demonstration Corporation, en www.srdc.org/English/publications/Bancroft.pdf
- BARBIER, Jean-Claude (2000): "Activation Policies, Workfare and Insertion", the welfare State in the Age of Globalization. Lessons from the USA, France and the UK", paper presented to the French-South

- African Workshop en www.socsci.auc.dk/cost/unemployment/New-Papers/barbier-gautie.pdf
- BARBIER, Jean-Claude (2001): *Welfare to Work Policies in Europe. The Current Challenges of Activation Policies*, Centre D'Etudes de L'Emploi (Document de Travail CEE, 11. zenb.) en
- BARBIER, Jean-Claude (2004): "Activating social protection and the Employment insurance", Berlin meeting, WZB, May 24-25, en www.siswo.uva.nl/tlm/confbuda/papers/papers_files.pdf
- BARBIER, Jean-Claude (2006): "Analyse comparative de l'activation de la protection sociale en France, Grande Bretagne, Allemagne et Danemark, dans le cadre des lignes directrices de la Stratégie Européenne pour l'emploi", Centre d'Etudes de l'Emploi, en www.matisse.univ-paris1.fr/barbier/perso/CEE-RF2005.pdf
- BECK, Ulrich (2000): *Un nuevo mundo feliz. La precariedad del trabajo en la era de la globalización*, Paidós, Barcelona.
- BEEFERMAN, Larry B. (2001): "Asset development policy: The new opportunity", Asset Development Institute, Waltham, en www.centeron-hunger.org/pdf/NewOpportunity.pdf
- BEHRENDT, Christina (2003): "Programas de rentas mínimas y la reducción de la pobreza: ¿una red de seguridad defectuosa?" en GUILLÉN, Ana eta ÁLVAREZ GARCÍA, Santiago (Koords.): *Viejas y nuevas desigualdades: retos para la protección social*, Thomson-Civitas, Madrid.
- BELAND, Daniel eta HANSEN, Randall (2000): "Reforming the French Welfare State: Solidarity, Social Exclusion and the Three Crises of Citizenship" en *West European Politics*, bol. 23, 1. zenb., 47-64. orr.
- BERK, Bill (2001): "Prospecting Among the Poor: Welfare Privatization" en www.arc.org/downloads/prospecting.pdf
- BERNAT, Jon (2009): "La Renta de Solidaridad Activa en Francia. ¿Es la activación una vía para salir de la pobreza?" en *Zerbitzuan*, 45. zenb., ekainak, 23-38. orr.
- BERNUZ, M^a José. eta SUSÍN, Raúl (Koord. (2003): *Ciudadanía. Dinámicas de pertenencia y exclusión*, Errioxako Unibertsitatea, Logroño.
- BLANK, Rebecca M. (2000): "Fighting Poverty: Lessons from Recent U.S. History" en *Journal of Economic Perspectives*, bol. 14, 2. zenb., Spring, 3-19 orr.
- BLANK, Rebecca M. (2002): "U.S. Welfare Reform: What's Relevant for Europe?" en *CESifo Working Paper*, 78. zenb., en www.ief.es/Publicaciones/Revistas/Hacienda%20Publica/Monografico2003_Blank.pdf
- BLANK, Rebecca M. eta SCHMIDT, Lucie (2000): "Work and Wages" en www.fordschool.umich.edu/research/papers/PDFfiles/01-007.pdf
- BLOOM, Dan; FARRELL, Mary eta FINK Barbara (2002): "Welfare Time Limits: State Policies, Implementation, and Effects on Families", U.S.

- Department of Health and Human Services en www.mrdc.org/publications/51/overview.pdf
- BLUNDELL, Richard (2002): "Welfare-to-work: Which Policies Work and Why?", Keynes Lectures in Economics 2001, en www.ucl.ac.uk/uct-pa36/Blundell-Keynes-Lecture.pdf
- BOND, Lynne eta CARMOLA, Amy (2004): "Making our way Together: Collaboration in the move from welfare to work" en CROUTER, Ann C. y BOOTH, Alan (Arg.): *Work-Family Challenges for Low-Income Parents and Their Children*, Lawrence Erlbaum Associates, New Jersey.
- BONOLI, Giuliano eta BONVIN, Jean-Michel (2001): "Who is to be activated? A comparison of active labour market policies target groups in four countries", Paper presented in the workshop "Social Exclusion, minimum income support and workfare in Europe", Helsinki, en www.shiva.uniurb.it/eurex/esa/PDF/ESA-Bonvin.pdf
- BONVIN, Jean-Michel eta MOACHON, Eric (2003): "Social integration policies in Belgium, France and Switzerland: the Continental model re-examined", Paper for the ESPAnet Conference, Copenhagen, en www.sfi.dk/graphics/ESPAnet/papers/bonvinmoachon.prn.pdf
- BOSCO, Alessandra eta CHASSARD, Yves (1999): "A Shift in the Paradigm. Surveying the European Union Discourse on Welfare and Work" en EUROPEAN FOUNDATION FOR THE IMPROVEMENT OF LIVING AND WORKING CONDITIONS: *Linking Welfare and Work*, Office for Official Publications of the European Communities, Luxembourg.
- BOUCHOUX, Jacques (2004): "Los Contratos de Inserción en el RMI francés" en Oinarrizko Errenta eta Gizarteratzeari buruzko Jardunaldiak, Abenduak 1-2, Vitoria-Gasteiz.
- BRAUNER, Sarah eta LOPREST, Pamela (1999): "Where Are They Now? What States Studies of People Who Left Welfare Tell Us" en *New Federalism*, n1 A-32 en www.urban.org/UploadedPDF/anf32.pdf
- BREWER, Mike; CLARK, Tom eta MYCK, Michal (2001): "Credit where it's due? An assessment of the new tax credit", The Institute for Fiscal Studies, en www.ifs.org/uk/publications
- BREWER, Mike; CLARK, Tom eta WAKEFIELD, Matthew (2002): "Social Security Under New Labour: What did the Third Way mean for welfare reform?" en www.ifs.org.uk/conferences/socsec/clark
- BUSILACCHI, Gianluca (2008): "The different regimes of minimum income policies in the enlarges Europe" en XII. International Congress of BIEN, Dublin, en www.basicincome.org/bien/pdf/dublin08/4cigian-lucabusilacchibienlargedeurope.doc
- BYRNE, David (1999): *Social exclusion*, Open University Press, Buckingham.

- CABASES, Juan Manuel eta MONTSERRAT, Julia (1991): "Análisis económico de la implantación de la renta mínima garantizada" en *EEEE: IV. Jornadas de Economía de los Servicios Sociales*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz.
- CALMFORS, Lars (2004): "The Limits of Activation in Active Labour Market Policies", Institute for International Economic Studies, Stockholm University, en www.iies.su.se/lcalmfor/berlin3.pdf
- CANCIAN, Maria; KLAWITTER, Marieka M.; MEYER, Daniel R.; RANGARAJAN, Anu; WALLACE, Geoffrey eta WOOD, Robert G. (2003): "Income and program participation among early TANF recipients: the evidence from New Jersey, Washington and Wisconsin" en *Focus*, bol. 22, 3. zenb., 2-10 orr., en www.hearland.org/pdf/12660.pdf
- CAPUCHA, Luis (1998): *Rendimento Mínimo Garantido: avaliação da fase experimental*, CIES/MTS, Lisboa.
- CARD, David; KLUVE, Jochen eta WEBER, Andrea (2009): *Active Labor Market Policy Evaluations: A Meta-Analysis*, Institute for the Study of Labour, Bonn.
- CASTEL, Robert (1992): "La inserción y los nuevos retos de las intervenciones sociales" en ALVAREZ-URÍA, Fernando (Biltz.): *Marginación e inserción*, Endimión, Madrid.
- CASTEL, Robert (1997): *Las metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del salariado*, Paidós, Buenos Aires.
- Center on Budget and Policy Priorities (2008): *The Earned Income Tax Credit* en www.cbpp.org/files/policybasics-eitc.pdf
- CES (2001): *Informe Sobre la Estrategia Europea de Empleo*, Consejo Económico y Social, Madrid.
- CES (2005): *Memoria sobre la situación socioeconómica laboral de España 2004*, en www.ces.es/.../pdf
- CES (euskal) (2002): *Memoria socioeconómica. Comunidad Autónoma del País Vasco. 2001*, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Bilbo.
- CES (euskal) (2004): *Las políticas activas de empleo en la C.A.V y la UE*, Consejo Económico y Social, Bilbo.
- CLASEN, Jochen (2001): "Managing the Economic Risk of Unemployment in the UK", working paper, European Union Institute, Florence.
- CLASEN, Jochen (2002): "Modern Social Democracy and European Welfare State Reform" en *Social Policy and Society*, bol. 1, 1. zenb., en www.dass.stir.ac.uk/staff/documents/SSPaper.pdf
- CLASEN, Jochen (2002b): "Unemployment and unemployment policy in Britain. Increasing employability and re-defining citizenship" en GOUL-ANDERSEN, Jergen; CLASEN, Jochen; HALVERSON, Knut eta VAN OORSCHOT, WIM (Arg.): *Europe's new state of welfare: Unemployment, employment policies and citizenship*, Policy Press, Bristol.

- CLASEN, Jochen eta CLEG, Daniel (2004): "Does the Third Way Work? The Left and Labour Market Policy Reform in Britain, France and Germany" en www.dass.stir.ac.uk/staff/documents/clasenClegginLewis-Surrender.pdf
- COATES, Andrew (2008): "Workfare Comes to Britain?" en *Chartist Magazine*, September-October, en www.chartist.org.uk
- COLL, Francesc (2004): "La Renta Mínima de Inserción Catalana" en Oinarrizko Errenta eta Gizarteratzeari buruzko Jardunaldiak, Abenduak 1-2, Gasteiz.
- CONSIDINE, Mark (2000): "Selling the unemployed: the performance of bureaucracies, firms and non-profits in the new Australian market for unemployment assistance" en *Social Policy an Administration*, bol. 34, 3. zenb., 274-295. orr.
- CORBETT, Thomas (2002): "The new face of welfare: From income transfers to social assistance" en *Focus*, bol. 22, 1. zenb., 3-10. orr., en www.irp.wisc.edu/publications/focus/foc221-part1.pdf
- CORCORAN, Mary eta CHEN, Juan (2004): "Temporary Employment and Welfare-to-Work" en www.fordschool.umich.edu/research/poverty/pdf/tempempl020504.pdf
- CRAMER, Reid (2007): *Asset-Based Welfare Policy in the UK*, New America Foundation, Washington.
- CRISP, Richard eta ROY, Del (2008): *A comparative review of workfare programmes in the United States, Canada and Australia* (Research Report, 533. zenb.), en www.dwp.gov.uk/asd/asd5/rports2007-2008/rrep533.pdf
- CULPITT, Ian (1992): *Welfare and Citizenship. Beyond the Crisis of the Welfare State?*, Sage Publications, London.
- CULPITT, Ian (1999): *Social Policy & Risk*, Sage Publications, London.
- DA ROIT, Barbara eta CREPALDI, Chiara (2007): *The role of minimum income for social inclusion in the European Union*, European Parliament, Bruselas.
- DAGUERRE, Anne eta ETHERINGTON, David (2009): *Active labour market policies in international context: What works best? Lessons of the UK*, Department for Work and Pensions, Londres.
- DAGUERRE, Anne eta LARSEN, Trine P. (2004): "EU Policy Maps", Working Papers for WRAMSOC, en www.kent.ac.uk/Wramsoc/workingpapers/secondyearsreports/policymaps/eupolicymaps.pdf
- DAGUERRE, Anne eta TAYLOR-GOOPY, Peter (2004): "Neglecting Europe: explaining the predominance of American ideas in New Labour's welfare policies since 1997" en *Journal of European Social Policy*, bol. 14, 1. zenb., 25-39. orr.

- DAHL, Espen (2003): "Does workfare work? The Norwegian experience" en *International Journal of Social Welfare*, 12. zenb., 274-288. orr.
- DAHRENDORF, Ralph (1994): *Ley y orden*, Civitas, Madrid.
- DANZIGER, Sheldon (2000): "Approaching the Limit. Early National Lessons from Welfare Reform" en www.fordschool.umich.edu/research/poverty/pdf/ch1-danziger.pdf
- DANZIGER, Sheldon eta DANZIGER, Sandra K. (2005): "The U.S. Social Safety Net and Poverty: Lessons Learned and Promising Approaches", Presented at the Conference on "Poverty and Poverty Reduction Strategies: Mexican and International Experiences", Monterey, México, en www.fordschool.umich.edu/research/pdf/Mexico-Danzigers-Jul05pdf
- DANZIGER, Sandra K.; CORCORAN, Mary; DANZIGER, Shelton eta HEFLIN, Colleen (2000): "Work, Income and Material Hardship after Welfare Reform" en *Journal of Consumer Affairs*, bol. 34, 1. zenb., 6-30. orr.
- DE BRUNHOFF, Marianne (2004): "La gestión del RMI" en Oinarrizko Errenta eta Gizarteratzeari buruzko Jardunaldiak, Abenduak 1-2, Gasteiz.
- DE GIORGI, Giacomo eta PELLIZZARI, Michele (2006): "Welfare migration in Europe and the cost of a harmonised social assistance", IZA Discussion Paper, 2.094. zenb., apirilak, en www.repec.iza.org/dp2094.pdf
- DE GRAAF, Willibrord; FRERICKS Patricia eta MAIER, Robert (2003): "Subsidied labour as a labour market strategy in European Countries", ESPAnet Conference, Copenhagen, en www.sfi.dk/graphics/ESPAnet/papers/graffmaier.pdf
- DE KONING, Jaap. eta MOSLEY, Hugh (2002): "How can active policies be made more effective" en SCHMID, Günther eta GAZIER, Bernard (Arg.): *The Dynamics of Full Employment: Social Integration through Transitional Labour Markets*, Edgard Elgar, Chentelham.
- DE LA HOZ, Joseph M. (1991): "Un año de aplicación de la RMI en Francia: El inicio de un largo y complejo camino" en EEEE: IV. *Jornadas de Economía de los Servicios Sociales*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.
- DEACON, Alan (2000): "Learning from the US? The influence of American Ideas Upon New Labour. Thinking on welfare reform" en *Policy & Politics*, bol. 28, 1. zenb., 5-18. orr.
- DEAN, Hartley (1997): "Underclassed or undemined? Young people and social citizenship" en MAC DONALD, Robert (Arg.): *Youth, the Underclass and Social Exclusion*, Routledge, London.
- DEAN, Hartley (2002): "Business versus Families: Whose Side is New Labour on?" en *Social Policy & Society*, bol. 1, 1. zenb., 3-10. orr.
- DEAN, Hartley (2003): "Re-conceptualising Welfare-to-work for People with Multiple Problems and Needs" en *Journal of Social Policy*, bol. 32, 3. zenb., 441-459. orr.

- DITCH, John (1999): "The Structure and Dynamics of Social Assistance in The European Union" en EUROPEAN FOUNDATION FOR THE IMPROVEMENT OF LIVING AND WORKING CONDITIONS (1999): *Linking Welfare and Work*, Office for Official Publications of the European Communities, Luxembourg.
- DITCH, J. eta ROBERTS, Ellen (2002): *Enfoques integrados de las políticas activas de bienestar y empleo*, Fundación Europea para la Mejora de las Condiciones de Vida y Trabajo, Europar Komunitateetako argitalpen zerbitzu ofiziala, Luxemburgo.
- DODENHOFF, David (2005): "Road to Nowhere. Education and Training Under Wisconsin Works", *Policy Research Institute Report*, bol. 18, 3. zenb., en www.wpri.org/Reports/Volume18/vol18no3.pdf
- DRIVER, Stephen (2000): "Where does welfare reform leave the third way?", paper to "the third way and beyond", University of Sussex.
- DUNCAN, Greg J. (1984): *Years of poverty, years of plenty*, University of Michigan, Ann Arbor.
- EAPN (European Anti-Poverty Network) (1998): *From welfare to the right to work: Experiences in Europe*, EAPN, Bruxelles.
- EAPN (2005): "¿Puede contribuir la activación a la inclusión social? Criterios para una buena activación según EAPN", en www.eapn.hours.be/.../images/pdf/pdf_publication/EAPN%20Publications/Traducs/Spanish/PP12-05%20Activation_es.pdf
- EAPN (2006): "Ensuring a Decent Income and a Better Life for All" en www.eapn.horus.be/.../images/pdf/pdf_publication/EAPN%20Publications/position/Minimum%20income_en.pdf
- EAPN (2009): "EAPN appeal for Adequate Minimum Income for all: What EAPN want" en www.adequateincome.eu/doc/what_EAPN-Wants.pdf
- EDELMAN, Peter (1997): "The Worst Thing Bill Clinton Has Done", *Atlantic Monthly*, March, en www.theatlantic.com/issues/97mar/edelman/edelman.htm
- EICHHORST, Werner eta KONLE-SEIDL, Regina (2008): *Contingent Convergence: A Comparative Analysis of Activation Policies*, Institute for the Study of Labor, Bonn.
- EISSA, Nada; JACOBSEN, Henrik eta THURSTRUP, Claus (2004): "Evaluation of four tax reforms in the Unites States: Labour supply and welfare effects for single mothers" en www.georgetown.edu/faculty/wgj/Eissa.pdf
- ELM, Jorgen (2005): "The active society and activation policy: ideologies, contexts and effects" en GOUL, Jorgen; GUILLERMARD, Anne-Marie; JENSEN, Per eta PFAU-EFFINGER, Birgit (Arg.): *The Changing face of Welfare*, Policy Press, Bristol.

- ERHEL, Christine eta ZAJDELA, Helene (2004): "The dynamics of social and labour market policies in France and the United Kingdom: between path dependence and convergence" en *Journal of European Social Policy*, bol. 14, 2. zenb., 125-142. orr.
- ESPING-ANDERSEN, Gosta (1993): *Los tres mundos del Estado de bienestar*, Alfons el Magnànim, Valencia.
- ESPING-ANDERSEN, Gosta (2000): *Fundamentos sociales de las economías postindustriales*, Ariel, Barcelona.
- ESPING-ANDERSEN, Gosta (2002): "Towards the Good Society, Once Again?" en ESPING-ANDERSEN, Gosta; GALLIE, Duncan; HEMERIJCK, Anton eta MYLES, J. (Arg.): *Why We Need a Welfare State*, Oxford University Press, Oxford.
- ESTEVAO, Marcello (2003): "Do Active Labor Market Policies Increase Employment?", International Monetary Fund en www.imf.org/external/pubs/ft/wp/2003/wp03234.pdf
- ESTIVILL, Jordi eta DE LA HOZ, Joseph M. (1989): *La pobreza y la renta mínima de inserción en Francia*, Lana eta Gizarte Segurtasun Saila, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz.
- ETHERINGTON, David eta ANDERSEN, John (2004): "Workfare or inclusion?" en www.palissy.humana.univ-nantes.fr/msh/costa15/pdf/nantes/andersen.pdf
- EUROPAR BATASUNA (1992): "Recomendación 92/441/CEE del Consejo de 24 de junio de 1992, sobre los criterios comunes relativos a los recursos y prestaciones suficientes en los sistemas de protección social", en www.europa.eu/scadplus/leg/es/cha/c10609.htm
- EUROPAR BATZORDEA (1993): *Libro Blanco sobre Crecimiento Competitividad y Empleo*, Comisión Europea, Bruselas-Luxemburgo.
- EUROPAR BATZORDEA (1993): *Libro Verde. Política Social. Opciones para la Unión*, Oficina de Publicaciones de la UE, Luxemburgo.
- EUROPAR BATZORDEA (1999): "Una estrategia concertada para modernizar la protección social", en www.europa.eu/scandplus/leg/es/cha/c10618.htm
- EUROPAR BATZORDEA (2000): "Construir una Europa que fomente la integración", en www.europa.eu.int/eur-lex/lex/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2000:0079:FIN:ES:PDF
- EUROPAR KONTSEILUA (2007): "Council conclusion. Towards common principles of flexicurity", 2007. urteko abenduak 6-7, en www.cee-recherche.fr/fr/fiches_chercheurs/fr/publicationspdf/01doc11.pdf
- EUROPEAN COMMISSION (1996): *Green Paper. Living and working in the information society: People first*, en www.ipsoc/eec.be/infosoc/legreg/docs/peopl1.html

- EUROPEAN COMISSION (2004): *Employment in Europe 2004*, European Comission, en www.europa.eu.int/comm/employment_social/publications/2004/keah04001_en.pdf
